

Zu hemen zaude. goiena

AZKEN DANTZAK, HERRITARREN AURREAN

Oñatz taldeak amaiera borobila emango die 50. urteurreneko ospakizunei, pandemiak hasierako asmoak galarazi ostean; 500 herritarren aurrean dantzatuko dute bihar, zapatua, Zubikoan / 24


Dantza taldeko kideak entsegua egiten, joan den zapatuan.

IMANOL SORIANO



GEHIGARRIA ERDIKO ORRIETAN


Iñaxio Ibarrodok Aitor Biaini emango dio Oñatiko Musika Bandaren batuta, 42 urteren ostean / 32



Paper-fabriketako hondakinak berrerabiltzeko planta Bergaran

Larramendiko industrialdean kokatuko da eta azaroan hasiko dituzte lanak, 20 milioiko inbertsioa eginda / 3

SINADURAK

 GOTZON IPARRAGIRRE / 8	 MARIJE UGALDE / 48
 ENERITZ URRUTIA / 11	 ALAZNE GURIDI / 52
 PALOMA MARTINEZ / 16	 MIKEL BIAIN / 64

Abenduan jarriko dute martxan TAO zerbitzua Arrasaten; hasieran, probaldian, isunik jarri barik / 10

Arrasatekoak gara

zure leialtasuna eskertu nahi dugu

%20-ko
deskontua
ukipen
lenteetan

%50-eko
deskontua
eguzkitako
betaurrekoetan

%20-ko
deskontua
kristaletan

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen


www.multiópticas.com

B.P.S. 91/20



Santi Idigoras futbolari ohiari elkarrizketa


Mikrotxipa: elementu ñimiñoa, gaitz erraldoia



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Eskoriatza	5	6	524	%12,77	268
Arrasate	4	12	3.523	%15,95	72
Bergara	3	6	1.840	%12,24	59
Oñati	3	6	1.680	%14,65	78
Aramaio	2	3	230	%15,54	337
Gatzaga	1	0	14	%5,60	427
Aretxabaleta	0	13	976	%13,79	183
Antzuola	0	1	294	%13,49	45
Elgeta	0	0	83	%7,34	0
DEBAGOIENA	18	47	9.164	%14,14	100

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Positiboak nabarmen beherantz, eta egoitzetan hirugarren dosiaren zain

Joan den asteko positiboan erdiak baino gutxiago baieztatu dituzte: hemezortzi. Eskualdeko tasak behera egiten jarraitu du, eta EAEkoa baino apur bat baxuagoa zen atzo. Adineko egoitzetako erabiltzaileek datorren astean jasoko dute hirugarren dosia

Maialen Santos ARRASATE

Hirugarren astez jarraian positibo kasuak behera egin dute Debagoiengan, eta azken zazpi egunetan hemezortzi pertsona harrapatu ditu COVID-19ak; joan den astearekin alderatuta, erdiak baino gutxiago dira horiek, 47 izan baitziren. Gauzak horrela, dagoeneko eskualdeko 9.164 lagun kutsatu ditu gaitzak iazko martxoan pandemia hasi zenetik, eta 175 hil, nahiz eta azken astean Debagoiengan ez den inor zendu.

Herriei erreparatuta, Eskoriatza bost kasu izan dituzte joan den egunaz geroztik, lau izan dira Arrasaten hautemandakoak, hiruna Oñatin eta Bergaran, bi Aramaion eta bat Leintz Gatzagan. Antzuolan, Aretxabaletan eta Elgetan ez dute kasurik atze-

man. Egunka, azpimarratzekoa da joan den zapatuan ez zela positibo kasurik izan, eta bai-laran kasurik erregistratu ez zen azkenengo aldia ekainaren 26a izan zela.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, adierazi dute aste honetako martitzena ezker ez dagoela koronabirusak jota ingresatutako gaixorik.

TASAREN EBOLUZIOA INTZIDENTZIA-TASA, EAE-KOA BAINO BAXUAGOA

Debagoieneko azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia-tasak beherantzko joeran jarraitu du azken egune-

tan ere; are gehiago, EAEkoa-rekin alderatuta irauli egin da, eta atzora arte Erkidegoko baina zertxobait baxuagoa zen ibarreko tasa; 100ekoa, zehazki.

Lurraldeei erreparatuta, nahiko parekatuta daude tasak; hain zuzen, 102koa da Gipuzkoan eta 105ekoa Bizkaian. Arabakoa, bestetik, 89koa da, eta Nafarroakoa, denetan baxuena, 70ekoa.

ESKUALDEKO MAPA LEINTZ GATZAGA, GORRIZ DAGOEN HERRI BAKARRA

Azken egunetan aldaketak izan dira eskualdeko koloreen mapan. Nabarmenena Leintz Gatzagakoa izan da; izan ere, positibo baka-

rra erregistratuta kolore gorria hartu du herri horrek. Gainontzeko herriei dagokionez, laranja-jaz margotuta zegoen atzo Aramaio, eta horiz Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñati. Ondoen dauden herriak dira Elgeta, Bergara eta Antzuola; kolore berdez, alegia.

TXERTAKETA-KANPAINA DATORREN ASTEAN EMANGO DIETE HIRUGARREN DOSIA

Astelehen honetan hasi da Pfizer etxeko hirugarren dosiaren txertaketa Gipuzkoako adinekoen egoitzetan, eta Irungo Caser Residencial Anaka zentroan jarri dituzte lehen txertoak. Lurraldeko gainerako egoitzetara martitzenean ziren iristekoak txertoak, nahiz eta Debagoien-era oraindik ez diren iritsi.

Hain zuzen, egoitzetako arduradunek adierazi dute datorren astean jarriko dizkietela txertoak egoiliarrei. Oñatiko San Martin egoitzan eta Eskoriatzako Jose Aranan martitzenean izango da hori, nahiz eta azken horiek "konfirmazioaren zain" dauden oraindik. Bestetik, Arrasateko Iturbide egoitzakoei egunean iritsiko zaie txanda. Bailarako gainerako egoitzetako arduradunek ez dute datari buruzko informaziorik eman.

Txertaketa kanpainaren eboluzioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1.717.397 pertsona dira immunizazio handiena lortu dutenak, 12 urtetik gorako herritarren %86,8, eta beste 1.773.186 laguni falta zaie bigarren dosia.

Azkenik, Pfizer konpainiaren azken entsegu klinikoaren arabera, txertoa eraginkorra da 5 eta 11 urte arteko haurrentzat ere. Dosi txikiagoa eman diete entsegu klinikoan, baina 16 eta 25eko tartean sortutako antigorputz maila oso antzekoak sortzen dituela erakutsi dute emaitzek. Oraindik, baina, FDAk eta EMAk ez dute oniritzirik eman.

BOTILA-FESTAK ERTZAINZAK SEI ESPEDIENTE IREKI DITU IRAILEAN

Bergarako ertzain etxetik adierazi dute azken asteetan gehitu egin direla herrietako kale zurrutak, eta irail hasiera ezker sei espediente dituztela zabalik: hiru Aretxabaletan, bi Bergaran eta bat Arrasaten.

Gainera, azaldu dute azken asteetako jazoerarik "nabarmenena" joan den irailaren 12an Bergaran izan zela: "Bi gizonen arteko liskarra izan zen, eta, gainera, batak bestea larri zauritu zuen, hankan".



Gorritz markatuta, Larramendiko industrialdean planta berriak hartuko duen lursaila, Wolfratex aurrean. ENEKO AZKARATE



Ecocargas izeneko materiala sortuko da plantan tratatutako materialarekin. GREENE

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA

Alacanteko Greene enpresak bat egin du "Euskadiko hainbat inbertitzaileekin", eta Valo-greene Paper BC sortu du Bergaran kokatzeko. 20 milioiko inbertsioa egingo dute. Lanak azaroan hasi nahi dituzte, 2023ko lehen hiruhilekoan planta berriari jarduera abiatzeko. Greenek GOIENARI adierazi dionez, 45 lanpostu sortuko dituzte, "zuzenekoak eta zeharkakoak" kontuan izanda. Bergarako instalazioan tratatutako materialak lehengai gisa erabiliko dira karga mineral ekologikoak ekoizteko. Material berriztagarria izango da, eta bi sektoretan erabiliko da: eraikuntza eta kimika industriala. "Proiektu honi esker, gaur egun berriztaezinak diren materialen ordez ekomaterialak erabili ahal izango dira, lokatzei eta *papelotearen* errefusari esker sortuak".

Adierazi dutenez, planta berri hori ekonomia zirkularraren alorrean erreferentia izango da mundu mailan. Greene Waste To Energy-k "Euskadiko paper-industriarekin batera" diseinatutako teknologiarik esker, paper-fabriketako azpiproduktuak hainbat industria-sektoretan erabil daitezkeen ekomaterial bihurtzeko aukera emango du. Proiektu honekin, paper-industria sektorearen "garapen ekonomiko eta soziala ingurumen jasangarritasunarekin bat" egitea ahalbidetuko duela diote Greenetik.

Larramendin kokatuko den Valo-greeneko lantegian, "modu gutziz iraunkorrean" prozesatuko diren azpiproduktuak bi dira: batetik, papera ekoiztean sortutako lokatzak; eta, bestetik, *papelotearen* errefusa izeneko azpiproduktuen nahasketa bat. Bi material horiek paper-industriaren ekoizpen-prozesuan lor-

Paper-fabriketako hondakinak tratatzeko planta bat Bergaran

Elx-en (Alacant) kokatuta dagoen Greene (Greene Waste to Energy) enpresak lantegi bat irekiko du Bergaran, Larramendiko industrialdean. Paper-fabrikaren hondakinak tratatzeko azpiproduktuak tratatzeko dituzte planta horretan

aurkeztu dute eta Eusko Jaur-laritzaren Ingurumen baimenaren zain daude.

Auzotarren artean kezka

Begarako Udala harremanetan dago San Juan, Basalgo eta Ube-rako auzotarrekin. Hauek kezkatuta daude plantak hondakinak berreraizatzeko prozesu kimikoan "sor daitezkeen keengatik edo usainengatik". Eta jarduerak inguruan sortu ahal duen inpaktuagatik. "15 metroko tximinia izango du lantegiak", adierazi diote GOIENARI. Greenetik adierazi dute tratatuko dituzten azpiproduktuek ez dutela usainik sortuko eta materialak ez direla ikusiko. Era berean, tratamendu-planta eraikin itxi baten egongo dela eta ez duela zaratarik aterako. Horretaz gain, sortutako ke eta urak plantan bertan tratatuko dituztela, ez dela ur-baporerik sortuko eta, ondorioz, isuriak ez direla nabarituriko.

Begarako alkatea, auzotarren ordezkariak eta "kimikan aditu bat" Alacantera joango dira urriaren 4an, Greene enpresak bertan daukan planta-pilotu bat bertatik bertara ezagutzeko. Greenen Alacanteko planta horren jarduera esperimentala da oraindik. Bergaran jarri nahi dutenaren modukorik ez dago beste inon. Ez dago aurrekaririk. Horrek kezka eta mesfidantza handitu du auzotarren artean.

Moirra Capital inbertitzailea

Greene Waste to Energy 2011n sortu zen, Elxeko lau ekintzaile kimikariren ekimenetik. Gaur egun, 40 langile baino gehiago ditu, eta Moirra Capital inbertitzailearen laguntza du. Hainbat arlotan dihardute: hiri-hondakin solidoetan (HHS), industria-hondakinetan, ur-tratamenduen biomasetan...

<p>CITROËN C5 AIRCROSS HYBRID</p> <p>HIBRIDO ENTXUFAGARRIA</p> <p>55 KM-ko AUTONOMIA 1000 MODU ELEKTRIKOAN KARGA AZELERATUA 2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN</p> 	<p>CITROËN C4 BERRIA</p> <p>%100 ELEKTRIKOAK</p> <p>350 KM-ko AUTONOMIA</p> <p>GASOLINA EDO DIESELA</p> 	<p>CITROËN È-BERLINGO BERRIA</p> <p>%100 ELEKTRIKOAK</p> <p>280 KM-ko AUTONOMIA</p> 
<p>CHAPIME TAILERRAK Delegación Citroën en el País Vasco</p> <p>SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE</p> <p> </p> <p> </p>		

tzen dira, eta orain arte zabor-tegira eraman izan dira. Tratamendu-instalazio honi esker, hondakinak "lehengai jasangarri berri" bihurtuko dira. Plantak balioko du urtean "122.000 tona hondakin zabortegian ez

ENPRESAK DIO MATERIALAK "ZABORTEGIAN UZTEA SAIHESTUKO" DELA PLANTA HORRI ESKER

uzteko", eta "atmosfera urtean 150.000 tona CO2 botatzea" saihestuko da.

18.770 metro koadro

Begarako instalazioan tratatutako materialak bi sektoretan erabiliko dira: eraikuntza eta kimika industriala. "Proiektu honi esker, gaur egun berriztaezinak diren materialen ordez ekomaterialak erabili ahal izango dira, lokatzei eta *papelotearen* errefusari esker sortuak". Larramendiko industrialdeko H

partzelan -18.770 metro koadro-kokatuko da hondakin industrialen tratamendu-planta. Industrialdeko sarrera nagusian, ezkerretara geratzen den gunean. Wolfratex kokatuta dagoen eraikinetik gertu. Proiektua Udalean

AUZOTARRAK KEZKATUTA DAUDE "SOR DAITEZKEEN KEENGATIK EDO USAINENGATIK"



1. Emeteri Aranburuzabala, Hernanin eraildako eskoriatzarra. 2. Goian: Benigno Elkorobarrutia, Jose Salterain, eta Valentin Lamarain. Behean: Nicolas Etxabe eta Lopez de Letona. Gatzagarrak guztiak, eta soilik Elkorobarrutiak eta Etxabek lortu zuten bizirik irteea. 3. Esteban Aranguren, goitik bigarrena, Frantziatik itzultzean bigarrenez atxilotu zuten antzuolarra. 4. Jose Antonio Urionabarrenetxea, Oiartzunen eraildako arrasatearra. 5. Jose Maria Azkarraga 'Lurgorri' Gudarien gerra komisario izan zen, eta Derioko hilerrian erail zuten. 6. Maria Asuncion Urbeloa eta Antonio Galdos; Galdos Oiartzunen erail zuten, eta Urbeloa handik lau urtera hil zen lau urteko alaba umezurtz utzita. 7. Jose Maria Etxebarrieta aretxabaletarra Durangon erail zuten, eta emazte eta seme-alabak erbestera joan ziren. 8. Francisca Lamarain eta Pedro Telleria elgetarrak, Elgetan erail zituzten alaba Anttoni bortzatzea eragozteagatik. 9. Farraz Laskurain familia bergararra; erbestera joan ziren, eta aita preso hartu zuten handik itzultzean.

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Tropa frankistek askotariko biktimak eragin zituzten Debagoiengan —eraildakoak, desagertutakoak edo bortxatuak izan zirenak—, eta, urteek aurrera egin arren, haien senideek justizia eta erreparazio gosez jarraitzen dute.

Hala, tropa frankistak bailara heldu zirela 85 urte betetzen diren egunean, aitortza ekitaldia egingo diete biktima haiei. Arrasateko Arizmendiarieta plazan egingo dute, domekan, 12:00etan, eta herriz herri etorritako biktima horien oinordekoak izango dira protagonista. Hitz hauen goialdean dauden bederatzi argazkien atzean dagoen istorio lazgarria kontatuko dute —erailketak, erbesteratzeak, bortxaketak edo haur txiki zirela umezurtz geratutakoak—, eta herriarren eta ordezkari instituzionalen babesa jasoko dute.

Ekitaldia Intxorta 1937 elkartekoek antolatu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Gogora Institutuarekin elkarlanean, eta bailarako herrietako alkateen parte hartze zabala egongo da. Horrez gain, Haizea eta Oihana Arana bertsolariak, Arrostitaitz dantza taldeak, trikitilariak, txistulariak, Goikobalu abesbatzak eta Txorbela Otxoteak hartuko dute ekitaldian parte, eta, urtero legez, krabelin eskaintza egingo dute.

Aitortza eske, "justiziarik eta erreparaziorik gabe" 85 urte pasa eta gero

Domekan aitortza ekitaldia egingo diete frankistek Debagoiengan utzitako biktimei, 12:00etan, Arrasateko Arizmendiarieta plazan. "Egia eta justizia" aldarrikatuko dituzte

Gatzagako testigantza

Argazkietako bederatzi kasuetako batzuk ezagunak ziren aurretik, baina, adibidez, Pili Elkorobarrutiak kontatuko duen Gatzagako lagun batzuen kasua duela gutxi heldu da Intxorta 1937 elkartekoek eskuetara. Hala kontatu du Elkorobarrutiak bi zenbakidun argazkiaren atzean dagoen errealtate gogorra.

"Argazkian bost lagun azaltzen dira: horietatik bi ziur dakigu erail egin zituztela; beste bat

"IHES EGITEAGATIK BIZIA SALBATU ZUEN AITAK; BESTE HIRUREK, TAMALEZ, GALDU"

PILI ELKOROBARRUTIA

desagertu egin zen eta inork ez du haren berririk izan, eta beste bi bizirik irten ziren. Bizirik irten ziren horien artean nire aita zegoen. Tropak sartu eta egun gutxira, euren artean hitz egin zuten zer egin jakiteko. Abertzaleak ziren, eta errepresioa jasateko beldur ziren. Arriskurik gabeko sarekada bat gerta zitekeen abisua jaso zutenean, aitak eta Etxabek mendira alde egitea erabaki zuten, eta gainontzeko hirurak herrian geratu ziren. Handik gutxira gertatu zen sarekada, eta gainontzeko hiru lagunak bertan erail zituzten".

Ihes egin eta gero, irailaren 29an preso hartu zituzten Elkorobarrutia eta Etxabe, Untzillan. Epaiketari 20 urteko zigorra jaso

zuten, eta, guztira, lau urtez egin ziren preso. "Dakigun apurra aitaren arrebek kontatua izan da, aitak ez baitzuen honi buruz sekula ezer kontatzen. Behin galdetu genion horri buruz, goxo-goxo galdetu ere, eta aitak malko artean kontatutakoa entzun ostean ez genion inoiz berriz galdetu. Kartzelan zudela, langileen giltza hotsa entzuten bazuten gauez, bihar-munean presoren bat falta izaten zela kontatu zigun".

"ERBESTETIK BUELTAN, BIGARREZ HARTU ZUTEN PRESOGURE AITA"

IXABEL ARANGUREN

Anttoni Telleriaren kasua

Gerrak utzitako istorio lazgarrienen artean, ezbairik gabe, Anttoni Telleria elgetarrarena dago. Intxorta elkartekoek lanari esker haren testigantza bideo bidez jasota geratu zen 2003an, eta, gaur egun bizirik ez dagoen arren, domekako ekitaldian haren testigantza bideo formatuan proiektatuko dute. Izan ere, frankistak etxera sartu zitzaizkionean bera bortxatzeko asmoa azaldu zuten, aita eta ama aurrean zirela, eta biek galdu zuten bizia alaba defenditzeagatik: "Aitari tiroa jo zioten buruan. Odolustutzeroa zihonez, eskua buruan jarri nion; bigarrenez tirokatu zioten burua, eta nire eskuko atzamarrak birrindu zizkidaten. Amari, berriz, kulata-kolpeka apurtu zioten burua; ez zuen kontzientzia berreskuratu, eta handik hamar egunera hil zen. Bortxatzaileek ikusi zuten onera ezin izango zutela ezer egin, eta txarrean egin zuten dena: hiketak, bortxaketa eta dena".

Sarraskiaren datu zehatzak

Frankistek Debagoiengan eragindako kaltea sakon aztertu izan dute Intxorta 1937 memoria elkartekoek. Nabarmendu dutenez, eraildako biktima gehienak zibilak izan ziren, tropak sartu aurretik 5.000 lagun in-



gurutu egin zuten-eta Bizkaia aldera ihes: "1936ko irailean, kolpistak Debagoienara sartu zirenean, aurrean aurkitu zituzten etsaia pertsona zibilak ziren, eta haiek erailten eta desagerrarazten hasi ziren: Osintxu eta Angiozar auzoak Bergaran, Gatzaga, Marin auzoa Eskoriatzan, Oñati, Arrasate... 1936ko urria eta azaroa bitartean 67 debagoiendar zibil erail zituzten, epaitu gabe".

Elkartekoen ikerketen arabera, 1.200 debagoiendar aritu ziren frontean borrokan eta horietatik 313 hil egin zituzten. Gainontzeko 887ak espetxeratuak izan ziren. Horietatik 128k Frantziara ihes egiten lortu zuten eta bertako kontzentrazio-ere-

muetan sartu zituzten. Espainian preso egon ziren 48 laguni heriotza-zigorra ezarri zieten, eta horietako hamazazpi fusilatua izan ziren.

Tropa frankistek bestelako errepresio mota batzuk ere jasan zituztela azaldu dute Intxortako 1937 elkartekoek: "1.000 pertsona, gehienak emakumeak eta umeak, erbestera joan ziren; hamazortzi emakume ilea mozteta eta errizino olio edatera behartu zituzten eta haietako hiru bortxatu egin zituzten; 44 lagunek maisu-maistren zigorrak bizi izan zituzten; 435 laguni isun ekonomikoak jarri zizkieten; eta 607 lagun, berriz, Union Cerrajera lantegitik kaleratuak izan ziren".

'Auzoko' programa, bailarako lau herritan

Hizkuntza aniztasuna aitortzeko, herritarren arteko harremanak sustatzeko eta kohesiorako euskara erdigunean jartzeko programa Arrasaten, Oñatin, Eskoriatzan eta Aretxabaletan eskainiko dute, eta izen ematea zabalik dago irailaren 30era arte

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Euskaltzaleen topaguneak urteak daramatza euskara oinarri duen programa integratzailer hori garatzen, eta zera nabarmendu dute horri buruz: "Euskal Herria herri anitza da. Hainbat kultura, jatorri eta hizkuntza dituzten herritarrak biltzen dituen gizartea da gurea. Hori horrela, *Auzoko*-k helburu du hizkuntza aniztasuna aitortzea, herritarren arteko harremanak sustatzea eta kohesiorako euskara erdigunean jartzea, eta, ariketa ludikoen eta jolasen bidez, jatorri askotariko herritarren arteko harremanak sustatu eta bizikidetzarako espazioak sortzea da egitasmoaren gakoa".

Helburu horiek guztiak lortzeko, ordu eta erdi inguruko saio irekiak egiten dira astero.

Hala ere, *Auzoko*-k erantzukizun partekatuaen ideia du oinarrian, eta bertako euskal hiztunen parte hartzea ezinbestekoa da kanpotik etorritakoen integrazioa lortzeko. "Herrira etorri berriek edota orain arte euskararekin harremanik izan ez dutenek euskararako bidea egin dezaten, garrantzitsua baita euskal hiztunak diren herritarren parte hartzea zein inplikazioa. Horregatik, euskaraz



Auzoko programak Arrasaten izandako partaide batzuk. GOIENA

bizi diren herritarrak funtsezkoak dira egitasmoan".

Hala, bi profil hauen arabera sailkatzen dituzte parte hartzaileak: "Herrian dugun hizkuntza aniztasuna aintzat hartuz, bi profiletan banatzen ditugu parte-hartzaileak: euskaratik geratu bizi direnak eta euskaratik urrun bizi direnak".

Erronka berriak

Urtetik urtera programa boro-biltzeko eta fintzeko ahalegina egiten dute antolatzaileek, eta aurten ere halaxe egingo dute:

"Ikasturtez ikasturte, proiektua zabaltzen, egonkortzen eta hobetzen saiatzen gara. Horregatik, aurtengoari ere jarri dio *Auzoko*-k bere erronka. Herritarren bilgune izateko bidean, uste dugu herriko eragileen inplikazioa eta saretzea ezinbestekoa dela; hala, *Auzoko* dagoen herritan bertako eragileen artean aliantzak sortzea da aurtengo erronka. Eragile hauek asko ekar dezakete auzokoko taldeetara, eta alderantzizko noranzkoan berdin", azaldu du Euskaltzaleen Topaguneak.

943 76 90 33 ■ info@bergara.uned.es

UNED-BERGARA ikasi zure erritmora, zauden tokian zaudela

MATRIKULAZIO EPEA IREKITA

- 30 gradu, 80 master, doktoretza...
- Etengabeko formakuntza
- Urrutiko hizkuntzak
- 25/45 urtetik gorakoentzako Unibertsitaterako Sarbide ikastaroa



ONLINE aurkezpena
Irailak 29, asteazkena, 18:30ean
www.uned.es/ca-bergara
Konekta zaitetz



Urki Larrea Ibabe, Arrasateko Monterron parkean. GOIENA

"Parot aitzakia moduan erabili dute kanpaina egiteko"

URKI LARREA IBABE ARRASATEKO SARE

Euskal presoek "ezarritako salbuespen legedia" salatu zuten ehunka herritarrek zapatuan. Arrasateko Sare "pozik" agertu da herriak emandako erantzunarekin

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

Arrasateko Unai Paroti eta gainerako euskal presoek "lege arrunta" aplikatzeko eskaera egin zuen Sarek zapatuan. Horren harira, PP eta Vox alderdiek ere mobilizazioak deitu zituzten Arrasaten egun bererako, eta, Abascal buru duen mugimendua herrira zetorrela-eta, hainbat antifaxista plazan batu ziren *Faxismoaren aurrean antolakuntza ta borroka* lelopean. Hurrengo egunean, domekan, *Gora Arrasate!* ekimenaren txan-

da izan zen; Arrasaten eta Euskal Herrian izandako eraso faxistak salatu zituzten.

Bizia izan zen aurreko asteburua... Nola dago Arrasateko Sare?

Aste oso intentsua izan zen... Nekatuta gaude, baina, era be-

"SAREK EZ DITU OMENALDIK EGITEN; SAREK PRESOEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEN DITU"

rean, pozik ere bai. Eskerrak eman nahi dizkiogu Arrasateko herriari, bai eguerdian eta bai arratsaldean modu masiboan erantzun zuelako. Erantzun bikaina izan da.

Espero zenuten PPK edota Voxek horrela erantzutea?

Horrela ez. Kontuan hartu behar da ekimen honekin lotutako lehenengo prentsaurrekoa uztailearen 18an eman genuela. Egia da orduan ere komunikabideren baten azaldu zela gaia; baina ez zen harago joan... Gai-

nera, Unai Paroten eta gainerako presoek egoera salatzeko beste hainbat prentsaurreko eta ekintza egin ditugu, eta ez da sekula ezer gertatu...

Eta zergatik orain?

Bi urte barru estatu mailako hauteskundeak izango direla kontuan hartuta, guk uste dugu zapatuko agerraldiak helburu estrategikoarekin egindakoak izan direla. Eskuinak desgaste-kanpaina jarri du martxan, eta oraingoan Parot izan da aitzakia. Nola? Bada, komunikabide batzuen laguntzarekin eta gezur batean oinarrituta.

Hots, zuena "Parot omentzeko ekitaldia" zela esanez?

Bai. Gauza jakina da Sarek ez dituela ongietorriak edo omenaldiak egiten. Sarek presoek eskubideak defendatzen ditu; hori besterik ez. Desberdinen arteko adostasunak lortzeko sortu da Sare. Azken finean, elkarbizitzaren, bakearen eta konponbidearen alde egingo dugu beti.

Hasierako asmoa baztertu egin zenuten: ez zen 31 kilometroko marxa egin. Erabakiaren asmatu egin zenutela uste duzue?

Bai. Ez genuen konfrontaziorik nahi, eta beste proposamen bat bultzatu genuen herri mailan. Halaber, goizeko deialdia Euskal Herri osora zabaltzea erabaki genuen, Sare Herritarrekin batera. Arrasatearrek oso ondo ulertu zuten egoera; Monterronera joan ziren goizean eta manifestaziora arratsaldean. Aspaldi ez zen horrenbeste jende ikusten Arrasateko mobilizazio baten. Eta gainerako herrietatik helarazitako mezua ere indartsua izan da. Nik uste dut eskuindarrei gaizki atera zaiela kontua. **Errebindikazio ugari izan dira asteburuan, baina Arrasateko Sareren mezua argia izan da: "Salbuespen legedia amaitzea".**

Bai. Uztaileko prentsaurrekoa eman genuen unetik garbiak eta zehatzak izan gara: presoek dituzten eskubideen inguruan jarduten dugu, ez besterik. Eta hori da, hain zuzen ere, alderdiek egiten diegun galdera: euskal presoek badituzte gainerako

"ARRASATEARREK ONDO ULERTU ZUTEN PROPOSAMENA; ESKUINARI GAIZKI ATERA ZAIO KONTUA"

presoek dituzten eskubideak? Guk eskatzen duguna legea aplikatzea da. Noiz aipatu ditugu guk *omenaldi* edo *ongietorri* hitzak? Arrasaten preso bakarra dago, Unai Parot, eta Arrasateko Sarek bere eskubideak defendatzen jarraituko du.

Zein da Paroten egoera?

Madridik gora dago, espetxe lasaiago batean. Baina senideek ez litzukete horrenbeste kilometro egin beharko; legeak dio presoek euren etxeetatik gertuen dauden espetxeetan egon behar dutela. Ironikoak izanda, noiztik bizi da Parot Leonen? Gainera, legea betez gero, preso askok eta askok kalean behar lukete. Hori da herritarrei azaldu nahi dieguna; presoek ere eskubideak dituztela eta horien alde egin behar dugula.

Egun hauetan presioa jasan duzuela ere salatu duzue...

Alderdi eta komunikabide batzuek presioa egin dute, bai, eta, esan bezala, asko gezurretan aritu dira. Egia esan, batzuek jarrera hori erakusteak ez gaitu harritzen, baina EAJ joko horretan erortzeak harritu eta mindu egin gaitu. Arrasateko alkateak, esaterako, ondo zekien zein zen gure aldarria; bazekien legea betetzeko eskaera egitera gindoazela. Baina Josu Erkoreka, Aitor Esteban edota Bingen Zupiria ordezkari jeltzaleak komunikabideetan agertu dira *omenaldi* eta *ongietorri* hitzak errepikatuz. Horrek ez gaitu Sareko kideak bakarrik mindu; herriko eragileetako partaideak ere mindu ditu -baita EAJko jendea ere-.

Eguaztenean, Jaurlaritzak Bizikidetarako, Giza Eskubideetarako eta Aniztasunerako Plana aurkeztu zuen. Zer deritzozue?

Oraindik ezin dugu txostenaren inguruko baloraziorik egin. Eta Jaurlaritzaren jarreraren inguruan esan dezakeguna da orain arte "gogo onez" ikusten genuela, baina, asteburuko gertakarien ostean, ez dakigu non kokatu.

Zein asmo duzue aurrera begira?

Oraingun arte bezala, presoek eta haien senideen eskubideen alde egiten jarraituko dugu: haien egoeraren berri ematen, sentibilizazio kanpainak eta ekintzak egiten, eragileekin elkarlanean... Legea aplikatuz gero, preso askok kalean egoteko baldintzak betetzen dituzte. Gure herrira ezingo da normalizaziora iritsi, horiek guztiak etxean egon arte.

Eskerrik asko!**ROSA ODRIOZOLA**

DEBAGOIENA

Abuztuaren 29an, Urbian gora gindoazela, erori eta min hartu nuen. Gertu zetorren gazte kuadrilla bat, eta euren artean mendi erreskateko bat. Berak atenditu ninduen, eta oso goxo tratatu. Arrasatekoa da, oso jatorra. Gutun hau berari eskerrak emateko idatzi dut. Mila-mila esker zure laguntzagatik.

"Militantismora itzultzea" ez da nahikoa**JOXEMARI MUXIKA ARRIETA**

ARRASATE

292. *Puntua*-n, Mikel Lezamizek idatzitako iritzi artikuluan hurrengo dio: "Euskaldun guztiok prestatu egin behar dugu familia artean, lagun artean, kalean eta gizartearen euskarari prestigioa ematen eta euskararen militantismora itzuliz".

"Gizartearen" honen barnean aisialdiaren gain batik batik lantokiak barne hartzen dituela ulertu nahiko nuke, bizitzaren heren bat bertan pasatzen baitugu. Halere, hauetako komunikazio hizkuntza moduan euskara izateko aukerarik ezaren hurrengo da. Sistemaz espainieraz komunikatzera behartzen gaituzte hegoaldeko euskara hiztunak eta hau aldatzeko arau berriak behar dira.

Lantokietan euskara hiztunen bazterketarik ez!

Eskertza**IÑIGO IGARTZA ARANTZETA**

BERGARA

Mila esker 112 Larrialdi Zerbitzuko talde guztiari, pasa den irailaren 5ean jaso nuen laguntza eta erakutsi zenidaten gertutasunagatik. Nola ez, izan nuen momentu kritikoa haietan laguntzeko prest zeundeteno. Baita ere besarkada bat egun hauetan hainbeste animo ematen ari zareten guztioi.

Urriaren 1a: Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna**ITZIAR USANDIZAGA**

BERGARA

Adinekoak eskubide osoko herritarrak gara. Adinarekin ez ditugu galdu behar eskubideak.

Geure zahartzarora nola bizi eta nola hil nahi dugun erabakitze eskubidea, tratatu duina jasotzeko, eta abar bermatzea nahi dugu.

Gaur egun, adineko pertsonak –gehienak– autonomoak gara, erabakitze gaitasuna dugu eta sozialki aktiboak gara.

Zahartzarora emakumeak dira gehien bizi direnak, adineko emakumeak beste emakume batzuek zaintzen dituzte. Askok euren alabak dira, emakumeak dira gizonen zaintzaile nagusiak.

Emakumeak dira prekarizatutako zaintza zerbitzuetan.

COVID-19aren pandemiak agerian utzi ditu zerbitzu

sozio-sanitarioan, eguneko zentroen, etxez etxeko laguntza zerbitzuetan, egoitzetan, ospitaleetan, sendagile kontsulta ez presentzialetan-eta gabezi larriak.

Gizartearen aldaketa soziodemografiko sakonek zaildu egiten dute adinekoen zaintza famili-eremuan egitea.

Premiazkoa da zainketa sistema birpentsatzea eta eredu berriei buruz hausnartzea.

Beharrezkoa da sexu-genero desberdintasuna gainditzea eta zaintza duina bermatzea.

Administrazio publikoek ezin dute beste alde batera begiratu, inplikatu egin behar dute eta nagusiek duintasunez bizitzeko eta zaintzeko duten eskubidea bermatu behar dute.

Errekan Goraren izenean, eskerrrik asko!**EDORTA BARANDIARAN**

ATXORROTX KULTURA

ELKARTEAREN IZENEAN

ESKORIATZA

Eskerrak eman nahi dizkiegu asteburu aurrera ateratzen lagundu digutenei. Osasun egoeragatik Errekan Goraren formatua eta data aldatzea erabaki genuen, eta asmatu egin dugula uste dugu. Agian, konturatu gabe tekla egokiari eman diogu... Dena den, hausnartu egin behar dugu, aurrerantzean zer eta nola egin erabakitze.

Asteburuak utzi dugun zapo gozoa eta gorputza epel dugula, eskerrrik asko hauei guztiei: elkarteko bazkideak, babesa ematen jarraitzeagatik;

Eskoriatzako Udala, 2008tik ekimenari laguntza ematearren; Copreci, Fagor Ederlan, Zaldibar Errotulazioa, Inkernu; Udaleko langileak; Arantxa, Mari Karmen, Aritz eta brigadako guztiak, Cris eta Labetxe; Dorleta Kortazar, Txintxu eta Burdin; Josu Lazkano, Adri eta Jose Angel; Aintzane, Juan Felix, Oier eta Leteko guztiei; interesa erakutsi duten hedabideei: *Musika zuzenean*, Goiena, *Gara*, *Berria*, Euskadi Irratia, Onda Vasca eta *Noticias de Gipuzkoa*; musikariak, maila onena erakusteagatik, eta emanaldietara etorri diren musikazale guztiak. 2022an elkar ikusiko dugulakoan...

Angiozarko burrunbak**MILA ELORZA**

ANGIOZAR BAILARAKO

BATZARRAREN IZENEAN

BERGARA

Udalatz azpia zulatu nahi duen herensugea bizilagun bihurtzen ari zaigu Angiozar Bailaran, orro eta sua dariola dabilkigu gure mendiak zulatuz AHTaren lanak.

Ekain amaieran hasi dira *Euskal Y* deritzonaren erdigunean doan bidegurutzea osatzen duten hiru tunel erraldoi egiten. Tunel horiek egiteko leherketak egitearekin batera, barruko airea berritzea bermatuko duten aire-generadore erraldoiek dihardute. Horien zaratak kontrolatzeko hainbat neurri hartzeko eskatu zizkion Bailarako Batzarrak Bergarako Udalarari eta Adifi berari. Lehen

kexa horiek bideratzeko asmoz, hasiak omen dira dezibelioen lehen neurketak egiten. Azaldutako egoeraren aurrean zein neurri hartuko dituzten zain gaituzte.

Etengabeko bateko eta beste berrunba eta dinamita ezta txundituta uzten bagaituzte ere, txundituago gaitu ezta horiek gaueko edozein ordu txikitzen gertatzeak; bailara osoan entzuten dira, bertakoon loa eta atsedan orduak ere etenez. Jaiegunitako etengabeko lan-jardunak ere eragin berbera du, atsedan dirako denbora lanen gorabeherekin uztartuz. Ez dago etenik. Jo eta su dihardute ordulariari begiratu gabe. Errespetatu beharreko gutxieneko ordutegi eta egutegirik ez dago?

Pandemia bete-betean, jendarte guztia etxeko itxialdian geunden hartan, AHTaren obrak soilik egun gutxi batzuk baino ez zituzten gelditu. Orain, eguna edota gaua izan, berdina dio; eta edozein ordutan burrunba, tiroak eta zaratak ez du atsedan hartzen.

Balio dezatela lerro hauek ezagutzen ez den errealitate isil-zaratatsu hau jendarte guztiari berri emateko. Eta baita dagozkien administrazioei zentzuzko lan-ordutegietan jarduteko eskaera egiteko ere. Azkenik, denak gonbidatzen zaituztegu Gipuzkoako txoko honetara etorri eta erraldoia ikustera. Hori bai, gogoan izan hori baino askoz gehiago direla Angiozar Bailarako altxorak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun behar dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBIÑE UBEDA**



ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

Suge ustel usaina

Akordaten naiz umetan mendian genbiltzala, bereziki udako egun sargorietan, usain txarren bat nabaritu orduko, nola helduren bati "suge ustel usaina" entzuten genion. Hala, ustel usain oro sugeena zelakotan pasa nuen bizitzako ume denbora, edo beronen zati bat, behintzat. Eta, poliki-poliki, oharkabea, usain txar guztiak sugeekin lotzen ikasi genuen, pentsatuz usteltzen ziren bakarrak sugeak zirela. Hortik, laster, sugeak usteltzea merezi duten animaliak direla pentsatzera, eta ondorioz, sugeei errespetua, beldurra eta nazka izatera.

Hala funtzionatzen du gure burutxo honek: zerbait nabaritzen dugu, kontatera bat egiten digute, sinesten dugu, eta geure bihurtzen dugu.

Sugearen kontu horrek balio dit LGBTBI kolektiboa jasaten ari den erasoak azaltzeko. Beti dago norbait, bere atletik, gezur borobilak egia balira moduan kontatzen duenik, hori sinesten duenik, eta bertuteetan motz izanik, gezur-haztegi hori eraso homofoboetan gauzatzen duenik. Nire ustez, esan

BATZUEK MASKARA KENDU DUTE, ETA HORI ABANTAILA BAT DA, BADA KIGULAKO NORTZUK DIREN

joan zaigu. Grazia egiten didate telebistako iritzi-emaileek diotenean gauza bat hitz egitea dela, eta beste bat, biolentzia erabiliz egiten diren ekintzak. Makina bat urtean Euskal Herrian, beste kontu batzuetan, gauza bera izan dira bada!

Guri, besteoi, haiek bezain ozen esatea dagokigu ezetz, identitate kontuak edota sexu joeraren kontuak norberaren esparruari dagokion zerbait direla, norbanakoon eskubide direla, ezberdintasunean denok berdin tratatuak izateko eskubidea daukagula, eta ez direla kabitzen gure gizartean halako, ez erasoak, ezta dialektikak ere.

Badu honek ere bere paradoxa: *La Casa de Papel*-eko jarraitzaile bazara badakizu zein den maskara jantzita edota aurpegia bistan ibiltzearen alde; besteek badakite nor zaren. Ikusten ari naizena da batzuek maskara kendu dutela, agerian dabilzala, eta hori abantaila bat da, badakigulako nortzuk diren. Jakin bezate gu ere zeintzuk garen!

daitekeenaren muga guztiak gaintzen utzi zaizkie norbaitzuei, gorroto delitu izango lirakeen astakeriak ahots goraz esaten, beldur barik, lotsa barik. Eta hartara, anormaltasuna normaltasun bihurtzen

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

'M-uda-ntza'

**JOSEBA BARANDIARAN
'TTAP'-EN ARGITARATUA**

Bizitza, ezer bada, hori da: mudantza, aldaketa, prozesua, iturri zaharreko ur beti berria.

Ez-udako ez-jaiak bizi izan ditugun 2021 honetan, gogora etorri zaizkit Legazpin, umetan, zein luzeak ziren udak.

San Joan sua geronek egitearekin hasten zen.

Uztailean, udalekuak izan zitezkeen edo ez, baina San Inazio jaiek ixten zuten hilabetea.

Ondoren, langile gehienek hilabetea jai zuten, herria *itxita* gelditzen zen.

Gehienak *al pueblo* joaten ziren, autoa bete traste.

Eta azkenik, Santikutz jai txikiak izaten ziren, berriz herria ireki eta lagun zaharrak topatzeko unea.

Uda bera mundu bat zen, dantzaz hasi eta buka.

Gaztaroan laburtuz joan eta, egun, jada, arrapaladan pasatzen diren lau aste baino ez dira gure udak. Bizilegea.

Aurten, berriz, lanean, mudantza bete bizi izan dut.

Lan bizitza ia osoa toki berberean eman ostean -22 urte, 11 hilabete eta ia 3 aste-, pausoa luzatu eta mudatzea deliberatu dugu, aldaketa, mundu berri

bateranzko bidaia; pentsatze jartze hutsarekin hiltzen da pittin bat mundu zaharra eta berria hurbiltzen.

Noski, Tolosako saia baino galduago egotea ere eragin dezake horrek guztiak.

Baina hegan ikasteko, pareko baloia topatu eta proba egin beharra dago. Jauzi egin.

Bizimodua egokitu, erritmo ezberdinak probatu eta lankide berriak bidaide bihurtu...

Zer da, finean, bizitza, bidaia bat ez bada?

Hasi eta buka gozatu beharrekoa, prefosta, bere uda, duda, muda, dantza, antza, arantza eta mudantza guztiakin.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiaba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailtetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldirikari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Algodonerari buruz gehiago dakigu bisitariei esker"

FANNY ALONSO 'KOTOIAREN EMAKUMEAK' ERAKUSKETAKO ZUZENDARIA

Larraitz Zeberio Lekuona BERGARA Ekainean zabaldu zuten *Kotoiaren emakumeak* izeneko erakusketa Bergarako Laboratoriumen. Urriaren 10era arte egongo da zabalik. Bilbora eramango dute gero. **Zer-nolako harrera izan du erakusketak?**

Oso pozik nago. Harrera ona izan du. Bisitari asko gerturatu direla esan didate, eta bisita gidatuak ere makinatxo bat egin da. Hasieran aurreikusitakoak baino gehiago, azkenean. Oso pozik gaude, alde horretatik. **Interesgarria izan da Algodoneran lan egindako jende gehiago gerturatu delako, ezta?** Bai, eta aukera izan dugu testigantza gehiago jasotzeko eta ezagutzen ez genituen gauza berriak jakiteko. Erakusketan, esaterako, makina zahar bat dago. Ez genekien zehatz zertarako erabiltzen zen, eta bisitan etorritako gizonezko langile ohi batek argitu zigun kontua. Kotoia prentsatzeko makina



Fanny Alonso, atzo eguerdian, Bergarako Laboratorium museoaan. JULEN IRIONDO

da. Sasoi batean, antza, kotoia garestitu egin zen eta konturatu ziren busti egiten zutela gehiago pisatu zezan. Horregatik jarri zuten kotoia prentsatzeko makina. Zoragarria izan da; bisita

gidatua egitekotan hasi, eta bisitarien gidariari erakustea gauzak. **Erakusketak emakumeen bizipenak ditu oinarri.** Bai, erakusketaren zutabe nagusia dira. Bergarako

Algodoneran lan egindako zortzi emakumeren eta Andoaingoan lan egindako hamahiru emakumeren testigantzak ditugu jasota audio dokumentuetan. Bi fabriken historia jasota dago. Liburuak ere badaude irekiera eta itxiera datekin, izandako langile kopuruarekin, gerra dela-eta izandako gorabeherekin... Gure ekarpena bizipenak eta testigantzak lehen eskutik jasotzea izan da. **Emakumeen bizipenak ikusarazi, beraz. Nola hartu dute protagonisten?** Andoainen duela pare bat urte omenaldi ekitaldi bat egin zitzairen, eta plaka bat dago jarrita Algodonera zegoen lekuan. Bergararen kasuan ez dakit ziur aurretik ezer egin den. Kontakizunei dagokienez, gustura kontaktzen dituzte garai hartako kontuak. Garai eta egoera jakin bateko emakumeak dira. Oso gazte hasten ziren Algodoneran lanean -12 -14 bat urterekin-, eta gero, familia izaten zuten. Seme-alaba asko, kasu gehienetan. Horrenbestez, fabrikako lanari etxekoa gehitzen zitzaion. Urte asko pasa dira ordutik hona, eta, halakoetan gertatzen den moduan, gauzak beste perspektiba batekin ikusten

dira. Oroitzapen goxo moduan kontaktzen dituzte. Gazteak ziren, beste indar bat zuten... Baina uste dugu ez zela batere bizimodu erraza izango. **Sumatu duzu berezitasunik emakume haien artean?** Beraien artean zuten eta gaur egun oraindik ere duten elkartasuna eta adiskidetasuna. Ekitaldiak egin ditugunean elkarrekin etortzen dira, eta, urte asko pasa badira ere, jarraitzen dute kontaktua mantentzen. Bergarakoen kasuan, herrikoak dira, eta batzuek elkarrengandik gertu biziko dira, baina esanguratsua egin zait kidetasun hori. Gogoan dut zortzi laguneko bisita gidatu bat egin genuela behin. Bada, zortziak ziren Algodonerako langile ohiak. Elkartu ziren erakusketa ikustera etortzeko, eta oso polita izan zen. **Bilbora doa orain erakusketa.** Bai. Bere bidea egiten jarraitzea nahi dugu. Errenterian, Eibarren, Terrassan... bazeuden ehungintza fabrikak, eta interesgarria litzateke gerturatzea. Dena den, hurrengo geldialdia Bilbo da. Hain zuzen ere, Zorrotzaurreko La Terminal aretoan zabalduko dugu erakusketa, urriaren 14an.

ITURRI ONETIK

Goienakideak sustatzeko kanpaina

Goiena Komunikazio Taldeak Goienakideak sustatzeko ekintza plana abiatuko du urrian, eta uda arte iraungo du. Goiena proiektua bultzatu eta babestuz, besteak beste, *Puntua* aldizkaria etxean jaso eta hainbat deskontu, abantaila eta sari jasotzeko aukera duten 4.000 lagun dira gaur egun Goienakideak. Asmoa da berriak egitea. Urrian aurkeztuko da kanpaina eta hilean behin, herririk herri, ekintzaren bat egingo dute: kultura eta kirol ekitaldiak, eta abar. Goiena Eguna ere egingo da.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-09-21

Bergara eta Soraluze arteko bidegorria, zabalik

Bergara eta Soraluze arteko bidegorri zati osoa ireki zuten. Trenbide zaharraren gainean egokitutako bidegorri tarteak egiteko lanek -1,8 kilometro, Mekolalde eta Osintxu artean- sei hilabete iraun zuten eta milioi bat euroko kostua izan zuten. Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua eta Soraluzeko Udaleko ordezkariak egon ziren. Soraluze-Osintxu tarteak 515 erabiltzaile izan zituen, egunero, 2010eko lehen zatian.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Donostia Zinemaldia hizpide sare sozialetan

@oaranzabal: "Zinemaldi hontan irrika gehien sortzen didan filma Aitor Merinoren #Fantasia da. Ikusteko desiatzen...".

@PantailakEUS: "Donostiako #Zinemaldia-ren 511 emanalditik, euskaraz (batzuk erdizka) edo euskarazko azpidatziekin soilik %11. Non daude euskaldunon eskubideak?".

@aerenaga: "Ez-alfonbra gorriari itxaroten... Distantziarik ez hemen. Glamourra bai. #Zinemaldia".

@andergortazar: "Urtero harritzen nau (onerako) zenbat euskara entzuten den Zinemaldian ikusleen artean".

Abenduan jarriko dute martxan, proba modura

TAO sistema berria abendu eta urtarril artean jarriko dute indarrean, probaldian, hau da, isunik gabe. Aurrez, urrian eta azaroan, txartelak tramitatzeko epealdia izango da; aparkatze sistemak bost gune izango ditu, bakoitza bere ordutegi eta tarifekin

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bertakoen gunea zuriz margotuta egongo da, B/R bereizgarriekin, eta astelehenetik egubakoitzera egongo da indarrean, 09:00etatik 13:30ak arte eta 15:30etik 20:00etara. Zapatu, domeka eta jaiegunetan zerbitzua ez da indarrean egongo. "Bertakoentzako txartela izango dutenek aparkatu ahaliko dute, bizi diren barrutian soilik, denbora mugagabeen", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Urdina eta zuria, 'express'-a

TAO *express*-ak ordutegi jarraitua izango du astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara. Zapatuetan 09:00etatik 13:30era eta gehienez 30 minutuz aparkatu ahaliko da. "Arrasaten erroldatutako ibilgailuek 15 minutuko tarifa onura izango dute aparkaldi bakoitzeko". Gune horietan ezingo da aparkatu bertakoentzako txartela erabiliz, tiketa atera beharko da. Era berean, TAO *express*-etik mugituz gero, ezingo da barruti berean aparkatu bi ordu igaro arte.

Arrunta, gune urdina

Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:30ak arte eta 15:30etik 20:00etara egongo da indarrean eta zapatu, domeka eta jaiegunetan ez da aplikatuko. Gehienez 180 minutuz aparkatu ahaliko da eta Arrasaten erroldatutako ibilgailuek 30 minutuko tarifa onura izango dute aparkaldi bakoitzeko. Bertakoentzako txartela dutenek TAO arruntean aparkatu ahaliko dute, euren barrutian soilik, "denbora mugagabeen". Barruti bateko TAO arruntetik eta TAO luzetik autoa ateraz gero, hiru ordu pasa arte ezingo da barruti berera bueltatu.

Doako gunea

Express-aren ordutegi bera izango du eta gehienez 90 minutuz



Aste honetan jarri dituzte seinale berriak Otalora Lizentziaduna kalean. E.A.

aparkatu ahaliko da. Ezingo da aparkatu bertakoen txartelarekin, tiketa atera beharko da.

Tarte luzerako gunea

Arruntaren ordutegi bera izango du eta goizeko edota arratsal-

deko txanda lortu ahaliko da, tiketa erosiz. Bertako txartela dutenek "denbora mugagabeen" aparkatu ahaliko dute. Barruti bateko TAO arruntetik eta luzetik autoa ateraz gero, hiru ordu pasa arte ezingo da itzuli.

Egoiliarren txartelak, bulego berrian

Olarte kaleko 16. zenbakian irekiko duten bulegoan tramitatu beharko da egoiliar txartela, urriaren 4tik aurrera. Aurrez, Udalak TAO sistemaren inguruko informazioa eta egoiliar txartela tramitatzeko inprimakia banatuko du etxebizitza guztietara.

"Inprimakia eta dagokion dokumentazioa beteta eramatea gomendatzen da, tramitazioa arintzeko. Bete dutenek postontzi batean utzi ahal izango dute, bulegoan", dio Udala Gobernuak.

Zortzi barrutitan banatu da udalerria: Otalora-Ferixalekua, Garibai, Zarugalde-Munar, Arimazubi, Uribe, San Andres, Zabalgunea-Aldai eta Txaeta. Bertakoentzako txartela lortzeko, barruti horietako batean erroldatuta egon behar da, eta helbide berean erregistratutako ibilgailu baten titularra izan.

Ohiko egoiliarren lehen txartelak 35 euro balioko du eta bigarrenak 75 euro. Alde zaharrekoak, berriz, lehenak 30 euro eta bigarrenak 60 euro. Bertako merkataritza txartelari dagokionez, egoiliarren lehen txartelak 35 euro balioko du, bigarrenak 75 euro eta ibilgailu errotulatuak 35 euro. Alde zaharrean, lehen merkataritza txartelak 35 euro, bigarrenak 60 eta ibilgailu errotulatuak 30. "Egokitu zaien barrutian aparkatu dezakete egoiliarrek eta merkatariek, bai bertakoen gunean, bai TAO arruntaren gunean eta baita TAO luzearen gunean ere".



Garibai etorbideko 1. atartean egingo dute eguneko zentroa. E.A.

Eguneko zentroa egiteko lanak lehiaketara atera ditu Udalak

Urriaren 13ra arte aurkeztu daitezke proposamenak eta lanak 2022ko lehen hiruhilekoan hasi gura dituzte

E.A. ARRASATE

Garibai etorbideko 1. atartean adineko pertsonentzako eguneko arreta zerbitzua eraikitzeko obren esleipena prozedura ireki bidez gauzatu da eta hasierako aurrekontua 450.163,85 eurokoa da, BEZ gabe.

Zerbitzu berriak 307 metro koadro hartuko ditu, sei gunetan banatuta: atsedeen-gunea, komunak, banalekua, jangela, jardueragunea eta administrazioa. Hala, zentroan askotariko zerbitzuak eskaini gura ditu Udala Gobernuak: informazioa, jarraipen-balioespena, gizarte hezkun-

tza arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea, estimulazioa edo berriro soin-heziketa lantzeko esku-hartzea, hezitzaile esku hartzea, gizarte-hezkuntza eremuko eta arlo psikosozialeko esku hartzea eta abar.

Hartzaileek, hainbat baldintza

Zerbitzuaren hartzaileek baldintza batzuk bete beharko dituzte: Arrasaten erroldatua izatea, 65 urtetik gorakoa izatea eta hartzailea mendekotasun-arriskuan aurkitzea, mendetasun-egoera Foru Aldundiak aitortua izatea lehen graduan.

Asteon hasi dira Gesalibar auzoko eustorma berregiten

2020ko martxoaren 16an jausitako eustorma konpontzeko lanek bi hilabete inguru iraungo dute eta bidea itxi egingo dute hilabete eta erdiz. Hala, Zabolain jatetxera eta Ibabe garaje mekanikora Atxabalpe eta harrobiko bidetik joan beharko da. Astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 17:30era itxiko dute bidea eta hainbat zapatutan ere bai, 07:30etik 14:00etara. Itxierak Umendia, Atxabal, San Jurgi, Parraia, Etxeberri, Biziola, Arroaga eta Zabolain baserriei zein Zabolain jatetxeari eta Talleres Ibabe garajeari eragingo die. Excavaciones Arrasate SL enpresak egingo ditu lanak, 88.611,46 euroko aurrekontuarekin.

"Informazio gardena" eskatu du Zuntza2021 plataformak

Zuntz optikoaren instalazioaren atzerapena dela-eta, ohar bat kaleratu du. "Instalazio lanak maiatzean hasi behar ziren, Udalaren adierazpenen arabera, eta dagoeneko herritarrok lau hilabeteko atzerapena ari gara sufritzen, inolako azalpenik jaso gabe", nabarmendu dute.

Udala Gobernuak erantzun du esanez asko direla oraindik baimena sinatuta eta aurkeztuta ez daukaten atarteak. "Behin lanak eginda zuntza segituan kontratatatu eta martxan ipini ahal izatea gura dugu. Esparru horien arabera, orain arte jasotako baimenak kontuan hartuz, ez dago esparru bat ere erabat baimenduta dagoenik".

Nagusien Astea egingo dute aurten, lehenengoz

Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunaren harira, aste osoko egitaraua antolatu du Arrasateko Nagusien Kontseiluak, astelehenean hasi eta egubakoitzera bitartean; kontseiluko kideek diote "erronka handia" izan dela aste osoko egitaraua osatzea

Eneko Azurmendi ARRASATE

Iaz, Javier Yanguasen hitzaldia antolatu zuten Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunerako, eta aurten, aste osoko egitaraua osatzera ausartu dira. Modu horretan, askotariko ekintzak egingo dituzte irailaren 27tik urriaren 1era bitartean.

Irailaren 27an, esaterako, zahartzaroaren inguruko mahai-ingurua egongo da Kulturateko areto nagusian, Jokin Etxebarria kazetariak dinamizatuta. Mahaikideak, berriz, Olatz Etxabe Iturbide egoitzako zuzendaria, Iñaki Peña barneko medikua, Miguel Lazpiur Arizmendiarieta Lagunak Elkarte-ko presidentea eta Izarra Gonzalez erretiratua izango dira. 17:00etan hasiko da, eta ostean, Arrasate Musikaleko beteranok emanaldia egingo dute.

Azoka eta pelikula hilaren 28an

Martitzenean, irailak 28, 2018tik hona kontseiluak antolatu izan dituen ekintzen kartel guztiak erakutsiko dituzte BAZen, pantaila handi batean: "Herritarrek ikus dezaten ze lan egiten dugun". Hala, hitzaldien kartelak, gidak, programak, eta abar egongo dira ikusgai. Egun berean, 19:00etan, *Abuelos* pelikula ikusi ahal izango da Amaia antzokian.

Jardueren berri emateko, azoka

Irailaren 29an, Arrasateko pertsona nagusien elkarten azoka egingo dute eta elkarte bakoitzak egiten dituen jarduera eta ekintzen berri emango du; bidaiak, tailerrak, dantza ikastaroak eta abar, esaterako. "Erretiratuen elkarteetan, tragoaz eta bingoaz gain, gauza asko egiten dira, eta horiek ezagutarazi gura ditugu", nabarmendu dute. Lau dira Arrasateko erretiratuen elkarteak: Toki Argi, Musakola, Abaroa eta Uribarri.

Eguaztenean bertan, 18:00etan, Arrasateko Sexologia Zerbitzu-



Arrasateko Nagusien Kontseiluko hainbat kide, martitzeneko prentsaurrekoan. E.A.

KONTSEILUKO KIDEEK NABARMENDU DUTE "INPORTANTEA" DELA HERRITARREK PARTE HARTZEA EKINTZETAN

ko sexologo Aritz Resinesen eskutik, adineko pertsonen sexualitateari buruzko hitzaldia egongo da Kulturateko areto nagusian.

Sasoibiderekin irteera berezia

Irailaren 30ean, Sasoibideren irteera berezia egingo dute, 10:00etan Biteri plazatik irtenda, eta hiru aukera edukiko dituzte partaideek, "bakoitzaren nahiaren edo gaitasunaren arabera". Lehena, Mojategira; bigarrena, Arrasateko balkoira; eta hirugarrena, Miraballesera. Ibilaldi guztiak bukatu ostean, 12:00 inguruan, luntx berezia egingo dute Etxaluzera irakurketa, Abaroako tabernan eta "edozein joan ahal izango da, ibilaldian parte hartu ez dutenak ere bai". Azaldu dutenez, bost euro ordainduta, bi edari eta bi pintxo eskuratu ahal izango dira.

Azkenik, urriaren 1ean, Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna izanik, manifestu bat irakurriko dute Kulturateko areto nagusian, 11:00etan, "Arrasateko Nagusien Kontseiluak dituen ardurak eta beharrak azaleratuz, etorkizunera begira aurrerapausoak eman daitezten". Gero, Arrasate Musikaleko emanaldia egingo du, biolinarekin eta pianoarekin.

Saioak, 'streaming' bidez

Asteleheneko mahai-ingurua, eguazteneko hitzaldia eta egubakoitzeko ekitaldia zuzenean jarraitu ahal izango dira Youtubeen *-Goiena.eus* webgunean daude loturak-. "Hala ere, arrasatearrek parte hartzea gura dugu, inportantea da guretzat".

Hiru urte daramatzate lanean

2018an sortu zuten Arrasateko Nagusien Kontseilua eta ordutik askotariko ekintzak antolatu izan dituzte. Gaur egun, hauek osatzen dute: Toki Argi, Musakola, Abaroa eta Uribarriko erretiratuen etxeak, Sasoibide, Caritas, Duintasuna eta Bizipoz egitasmoko hainbat kide. "Dena den, ateak zabalik ditugu".



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Errepidearen beste alde

"%25 ugaritu dira txirrindularien eta autoen arteko istripuak". Egunkaria zabaldu eta hara non hau irakurri dudana eta, nola ez, barrena mugitu dit, beste behin. Ez da lehenengo aldia honen inguruan aritzen naizela eta, zoritxarrez, ez dut uste azkena izango denik.

Barrutik bizi dugunok badakigu zer den hori, zer den egunerokotasunean kalera entrenatzera irten eta autoak, kamioak, furgonetak eta abar presarekin edozein modutan gure ondotik pasatzea.

Pandemia dela eta ez dela, egia da jende asko hasi dela txirrindularitza munduan murgiltzen eta lehen baino askoz txirrindulari gehiago aurkitzen direla errepideetan zehar. Erlojuari begira bizi garela esan beharrik ez dago, baina garrantzitsua da balantzan jartzea minutu batzuen gorabehera eta pertsona baten osasun zein bizia.

Honen helburua ez da inor epaitzea, baizik eta norbera kontziente izatea, errepidean goazenean ez gaudela bakarrik eta gure bidean denbora baino askoz gehiago dugula.

GORA ETA BEHERA



J.B.

"Noiz arte egongo da parkea itxita?"

Herritar batek adierazi du Juan Arzamendi Musika Etxea izango denaren ondoko haur parkeak "denbora gehiegi" daramala itxita. "Dagoeneko bada garaia irekitzeko".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

'Txiki' eta Otaegi izango dituzte gogoan Gudari Egunean

"Euskal Herria askatzeko eginiko ahalegina beren bizitzarekin ordaindu zutenak" oroitu dituzte irailaren 27an. "Aurrera egin ahal izateko, oroitzea ezinbestekoa da; nora goazen jakiteko, nondik gatozen jakitea ere funtsezkoa zaigulako". 19:00etan manifestazioa egingo dute, Seber Altuben hasita, eta 19:30ean ekitaldia Monterron parkean.

Sexu esplotazioa eta salerosketa salatu ditu Ezker Anitzak

Atzo, irailaren 23a, sexu esplotazioaren eta pertsonen salerosketaren aurkako eguna zela eta, Ezker Anitzak eskatu dio Udal Gobernuari 2016ko uztailean gai horri buruz onartutako mozioa bete dadila. "Mozio horrek gizar-tean errotuta dagoen salerosketaren arazo larriari aurre egiteko zenbait konpromiso jasotzen zituen".



Maite Aizpuruaren Erresistentzia arazo fisikoa da antzezlanak emango dio hasiera udazkeneko egitarauari. MAITE AIZPURUA

Antzezlan bat Jabetze Eskola martxan jartzeko

Emakume Txokoaren Jabetze Eskolak gaur abiatuko du ikasturtea eta hiruhilekoa, 'Erresistentzia arazo fisikoa da' antzezlanarekin, eta astelehenean hasiko dituzte ikastaroak; izen-ematea "oso ondo" joan da, 120 bat emakume ariko baitira saioetan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Kulturateko areto nagusian izango da gaurko antzezlan, 19:00etan. Esther Lizarralde Emakume Txokoko teknikariak azaldu duenez, emakumezko artistei taularatzea errazteko eta aukera bat eskaintzeko saiera egiten dute urtero. "Gainera, lanaren beraren edukia oso interesgarria iruditu zitzaigun eta, euskaraz izanik, egitaraua horrekin abiatzea erabaki genuen", gaineratu du. "Gorputz disidenteen inguruko hausnarketa interesgarria egiten du antzezlanak eta bat dator Emakume Txokotik lantzen ditugun gaiekin. Izan ere, ekintza hauen bidez saiatzen gara sentsibilizazio eta kontzientziazio lana egiten berdintasunaren arloan".

Maite Aizpuru aktoreak, herrera izanik, azaldu du antzezlan "ikerketak biografiko" bat dela. "Funtsean, aktorearen eta korrika egiteko makina baten artean sortzen den promes bat da. Makinan norbaitek egingo

du korrika, gorputz atletiko edo funtzionala izateko desirarekin. Hori da abiapuntua, hausnartzeko ea aktore herrera nola erlazionatzen den makinarekin". Gorputzaren "ikuspegi feminista eta antikapitizista" egiten du lanak. "Zalantzan jartzen du mundua banatzea gaituen eta ezgaituen artean. Beraz, hausnarketa bat da zenbat argi-ilun egon daitezkeen gizarteak gaitu bezala sailkatzen dituen gorputzen inguruan. Esan moduan, hausnarketa biografikoa da, umoretik egindakoa", dio.

Talde guztiak osatuta daude

Bestalde, 120 emakume inguruk hartuko dute parte tailer eta ikastaroetan. Azken horietan,

ORAINDIK LEKUA DAGO URRIKO ETA AZAROKO TAILER BATZUETAN, ETA IZENA EMAN DAITEKE

gainera, talde guztiak osatu ahal izan dituzte. "Ari gara ohiko erritmoa berreskuratzen, eta ikusten da jendea gogotsu dagoela". Dena den, urrian eta azaroan egingo dituzten saio batzuetan oraindik lekua dagoela gogorarazi du Lizarralde. Honako hauek dira: *Mendian ere gure buruaren jabe*, *Poesia xuxurlatu*, *Eztabaida feminista*, *Bizipen gineko-obstretikoak* eta *Emakume migratuendako topagunea*. Ohiko bideak erabiliz eman daiteke izena; hau da, 943 79 41 39 telefonora deituta, emakumetxokoa@arrasate.eus helbidera idatzita edo Emakume Txokoan bertan.

Hitanoaren erabileraren inguruko ikastaroa, esaterako, lehenengoz egingo dute, eta hamabost emakumek hartuko dute parte. "Gogoz eta motibatuta antzeman dut jendea hitanoa ikasi eta praktikan jartzeko. Izan ere, erabileraren inguruan hausnarketa egin eta hori sustatzea da helburua".



Nerea Baena, lasterketa irabazi ostean, lore-sorta eskuan duela. N.B.

Ekarpem soziala egiteaz gain, proba irabazi du Nerea Baenak

Bularreko minbiziaren aurka borrokan ari direnei babesa erakusteko lasterketan gailendu da arrasatearra

E.A. ARRASATE

Gaitzaren aurka borrokan ari diren guztiei elkartasuna eta babesa adierazteko lasterketa jokatu zuten domekan Gasteizen, 1.500 parte-hartzaile ingururekin.

Lau kilometroko ibilaldia hamalau minutu eta 43 segundoan bukatu zuen Baenak eta hiru sari jaso zituen: lehen emakumezkoa, beterranoen artean lehen eta ama zirenen artean lehen. "Nire errekor pertsonala hobetu dut; beraz, oso pozik nago", azaldu du. Dena den, beste motibazio batzuk izan ditu proba egiterako: "Nire motibazioa

zen nire umeek ni korrika ikustea proba batean eta nitaz harro sentitzea. Gainera, helburu soziala daukan lasterketa da eta nire ekarpem egin gura izan nuen bularreko minbizi lehenbailehen bukatzeko".

"Hunkitu" ere egin zen. "Gaitzaren ingurukoak entzunda, negar apur bat egin nuen hasieran, baina ondo joan zen dena".

Bilbon beste proba bat

Bi aste barru, gaixotasun neurodegeneratiboen ikerketarako dirua batzeko elkartasun proba batean izango da, Bilbon.

Zahar-Berrin izena emateko epea irekita, astelehenera arte

2021-2022 ikasturtean ere, Arrasateko Udal Euskaltegiekin elkarlanean, euskara ikasi edo hobetzeko aukera eskainiko du Zahar-Berrin mintzapraktika egitasmoak. Bi aukera eskainiko dituzte: batetik, aurrez aurreko euskara eskolak, astean bi egunetan, ordu eta erdikoak; bestetik, euskarazko mintzapraktika, astean ordubetez, talde txikietan eta bidelagun baten laguntzarekin. Eskaintza Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza ikasten ari diren umeen gurasoei zuzenduta dago. Izena emateko, 943 77 12 28 telefono zenbakira deitu 10:00etatik 12:00etara edo zaharberri@ae-delkarte.eus helbidera idatzi.

Ekin Emakumeen ikastaroetan lekua geratzen da oraindik

Laster abiatuko dituzte saioak, eta bi ikastarotan lekua dute oraindik: TAO eta kosmetika naturala. "Zeure burua sendatzeko gaitasuna garatu, estresa bizipen bilakatu eta barne bakea lantzeko momentuan bazaude, ezin duzu TAO ikastaroa galdu", azaldu dute. Kosmetika ikastaroan, berriz, sendabelarrak erabiliz ukenduak, ezpainetako baltsamoak, ponpa freskagarriak, aloe gela eta eskuetarako kremak egiten ikasiko dute.

Izena emateko, bulegora gerturatu (Pablo Uranga 4, behe), 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietara deitu edota emakumeak@ekinmakumeak.eus helbidera idatzi.



Arrasateko jokalariek, elkar besarkatuta, partiduko gorabeheren gainean berbetan. GOIENA

Ez dute besteen beharrik errugbi taldea osatzeko

laz, pandemia tarteko, Arrasatek eta Ordizia indarrak batu behar izan zituzten Euskadiko Ligan jarduteko. Taldea utzi zuten jokalariek gehienak bueltatu egin dira ostera ere, eta hilabete daramate denboraldiaurrea prestatzen.

Xabier Urzelai ARRASATE

Ez dute besteen beharrik. Arrasate Rugby Taldeko senior mailan ostera ere 30 jokalariek inguru batu dira, eta horrekin egin go diote aurre denboraldiari. Izan ere, iaz, kutsatzeak saihesteko, askok errugbia baztertzea erabaki zuten: "Pentsa, berdegunean 30 jokalariek batzen dira partiduko batean -15 talde bakoitzeko-, eta ordezkoek ere jokatzeko dute. Batek positibo emango balu, denek egin beharko lukete koarentena, eta errugbia, gainera, kontaktu fisiko handiko kirol jarduera da, nahiz eta aire zabalean egin. Hori ikusita, askok errugbia baztertzea erabaki zuten, eta horretxegatik batu ginen ordiziarrekin", azaldu du Barrutiak.

Egoera hori gaindituta, gehienak taldera batu dira ostera ere: "Hilabete daramagu entrenatzen, eta, egia esan, badugu non lan egin", dio, barrez. Izan ere, urtebete berdeguneetatik urrunteza denbora luzea da. "Eta fisikoki

asko igartzen da hori. Orain, 30 jokalariek inguru izango gara taldean; badirudi asko dela, baina ez, nahiko justu ibiliko gara. Hala, taldearen atea zabalik daude kirol hau probatu gura dutenendako".

Hamar talde multzoan

Arrasatearren urrian hasiko dute liga -asteburuan Elorrioren izango dute lagunartekoa-, eta Ohorezko Mailatik jaitsi berri den La Unica talde nafarra izango da nobedade bakarra: "Guk liga jokatu genuen iaz, baina ez zuten txapelketa izaerarik izan, ez zen ezer jokoan egon, helburua gehiago zen errugbian jokatzeko jarraitzea. Goian, berriz, jaitzierak eta igoerak izan ziren,

KORONABIRUSAGATIK IAZ ERRUGBIA UTZI ZUTEN GEHIENAK TALDERA BUELTATU DIRA OSTERA ERE

eta orduan galdu zuen kategorian La Unicak.

Neskek, Ordiziarrekin

Arrasate Rugby Taldearen beste nobedadeetako bat da iaz entrenatzen ibili ziren neskek taldea osatzeko dutela. Eta horiek bai, ordiziarrekin batera batuko dituzte indarrak: "15eko errugbian jokatzeko dute, eta Arrasatek 15 jokalariek inguru ditu. Hala, ordiziarrekin batera 30etik gora izango dira, eta kopuru polita da hori", adierazi du Barrutiak. "Baina hor ere atea zabal-zabalik daude, bailarako neskek orain badute errugbian jokatzeko aukera".

Maila nazionalean garaipen batekin egin dute debuta

Kukuyagaren kontra 6-2 irabazita hasi du liga Mondratek; Gasteizko Aurrera dute bihar kontrario

X.U. ARRASATE

Maila nazionalean zalantzak uxatzeko moduko liga hasiera izan du Mondratek. Izan ere, lehenengo partiduan arrasatearrek 6-2 hartu zuten mendean Kukuyaga Etxebarri. Egia da denboraldiaurreko lagunartekoek erakusten dutela taldeak, gutxi gorabehera, ze maila duen, baina liga ofizialki hasi arte ez dago jakiterik bakoitza non dagoen. Egia da, baita ere, partiduko bakarrak ez duela askorik esaten, baina ondo hastea da konrtua.

Hala, arrasatearrek lehenengo puntuak poltsikoan dituztela joango dira zapatuan (18:30) Gasteizera, Aurreraren kontra jokatzera. Hain zuzen, talde hori da orain momentuan ligako liderra, 2-9 irabazi zioten eta Sasikoa Durangori. Eta horiek bai, horiek hobeto erakutsiko dute zein den Mondrateren maila.



Otxarkoagaren kontrako lehia. GOIENA

Gipuzkoako lehen mailan

Maila nazionaleko taldearekin batera Mondratek Gipuzkoako lehenengo mailan ere taldea izango du aurtengo denboraldian. Eta haiek urriaren 3an hasiko dute liga. Gaintxuren kontra jokatzeko dute lehena.

Bigarren derbia jarraian, oraingoa Zarautzen

Joan den asteburuan ligako lehenengo partidua etxean galdu eta gero -Easoren kontrako derbia- Mondragon Unibertsitateak Zarautzen kontra jokatzeko du EBako bigarren derbia (domeka, 18:30). Zarautzarrek ere galdu egin zuten lehenengo jardunaldian, 55-58 Valle de Eguesen kontra. Biak ala biak, irabazteko gose aterako dira.



Easoren kontrako lehia. GOIENA

Mondra Mutriku saiatuko da lehen garaipena batzen

Arrasateko futbol talde nagusiak zapatuan (17:00) jokatzeko du Mutriku, bi partidutatik bat irabazi duen taldearen kontra. Maila berean, nabarmentzeko da Aloña Mendik eta Bergarak Azkoagainen (domeka, 16:30) jokatzeko duten derbia -ligako hirugarrena jarraian-. Aretxabaletak, azkenik, Ordizian jokatzeko du zapatuan (16:00).



Urolaren kontra. GOIENA



Maestrissimo obrako lau protagonistak oholztan, arropa eta makillaje dotoreekin. YLLANA KONPAINIA

Hitzik gabe uzteko moduko ikuskizuna

Yllana antzerki konpainiak 'Maestrissimo' antzezlana umoretsu eta musikatua aurkeztuko du bihar, 19:00etan hasita, Amaia antzokian. Lau musikariek 300 urte atzera egingo dute, errege gupidagabe bati konposizio berezi bat proposatzeko

Hasier Larrea ARRASATE

Pagagnini obraren bigarren zatia ondu du Madrilgo Yllana antzerki konpainia ezagunak *Maestrissimo* antzezlana erekin, bere ohiko zigiluari muzin egin gabe. Antzerki mutua egiten espezialistak dira bertako sortzaileak, beraz, bihar Amaia antzokira gerturatzen direnek ez dute behin ere protagonisten-

gandik hitzik jasoko. Bai, ordea, hiru biolinez eta biolontxelo bakarraz osatutako konposizio alaiak.

Eduardo Ortega, Jorge Four-nadjiev eta Isaac M. Pulet interpreteen laguntzarekin, Jorge Guillen *Strad* izango da biolin-jole printzipala; Ara Malkianek gidatzen zuen *Pagagnini* obran parte hartu zuen zenbait

saiotan, eta orain berari egokitu zaio tonu altuenak interpretatzea. Baina ez hori bakarrik: "Ez dugu hitzik egiten, eta eskuarekin ere ezin dugu keinurik egin, musika-tresnekin baikaude une-oro. Beraz, aurpegiak eta instrumentuen sokak dira gure komunikabideak", dio Guillenek.

Musikariak onartu du lau protagonistei "konplikatu" egin

zaiela euren ohiko eginkizunari aktorearen papera eranstea. Hala ere, entseguetan eta emaldietan "asko" disfrutatu dutela azpimarratu du: "Izan ere, istorio zinez dibertigarri bat kontatzen dugu; XVII eta XVIII. mendeko hiru musikari gara, eta gorteko erregeari konposatu berri dugun pieza erakutsi behar diogu, jakinda gustatzen ez bazai burua moztuko digula".

Ukitu moderno eta klasikoak

Konposaketa horrek garai hartako eta gaur egungo musika estiloetatik edaten du, laukoteak denboran bidaiatzeko gaitasuna izan duelako. Hain justu hor dago *Pagagnini* obraren eragina: "Antzezlana hori gaur egungo garaian kokatuta dago, ondorioz, rocka, bluesa eta jazzaz utzartzen dute musikari horiek.

Protagonista berberak dira 300 urte atzera egiten dutenak, eta hain zuzen hortxe dago musikari ero hauen grazia".

Gauzak horrela, garai barroko eta neoklasikoko pieza originalen eta musikariek eurek sortutako konposaketan nahasketa bat aurkeztuko diote erregeari. Strad-en esanetan, iraganeko doinuak *allegro e molto vivace* estilokoak dira: "Orduan italiarra zen musika klasikoan nagusitzen zen hizkuntza, eta etiketatik musika bakoitzak transmititzen zuen energiaren arabera jartzen zituzten; kasu honetan, termino horren laburpena musika alai izango litzateke.

Jauregiko erregea konbentzitzeko bidean, gainera, oztopo ugariarekin egingo du topo harizko laukoteak, ikuslea barrez lehertzeko xedez.



'Strad'-ek ezagutzen du Amaia

Bere proiektu pertsonalarekin etorri zen Arrasatera Jorge Guillen biolin-jolea, lbai-arte gonbidatuta, iazko otsailean. Musikariak "oroitzapen paregabeak" gordetzen ditu orduan emandako ikuskizun hartatik: "Bi aldeok ahalegin berezia egin genuen".

Kulturateko klaustroa, arte garaikidearen agertoki

Espazioak eskaini dien aukeretara moldatu dute euren obra 'Mala xena nunca muere' erakusketako artistek

H.L. ARRASATE

Atzo inauguratu zuten Maria Benito, Ander Perez eta Ainhoa Lekerika sortzaile bizkaitarrek Kulturateko klaustroan urriaren 17ra arte ikusgai egongo den erakusketa. Bereizgarri gisa,

paretetan zintzilik baino gehiago, argazkiak, bideo-proiektzioak eta marrazkiak patioaren ezagunak zehaztetara egokitu dituzte hiru artistek, eta piezen arteko fusio errepikazina sortu: "Klaustroan egin duguna ez li-

tzateke posible izango bertako zutabe, arku edota sabai konkretu horiek egongo ez balira", nabarmendu du Perezek. Hala, "aurretik espazioa ezagutu gabe, itsu-itsuan" lanean aritu diren arren, "oso gustura" daude gureari egin dioten ekarpenarekin.

Mala xena nunca muere instalazioaren lehen esperientzia Balmasedako Horcasitas jauregian egin zuten, uztailean, Eusko Jaurlaritzak arte garaikidea bultzatzeko *Eremuak* programaren baitan.



Ainhoa Lekerika, klaustroko sabaian bere artelanak proiektatzen. EREMUAK



Solosaldea eskainiko duen hizlaria. BERDINTASUN SAILA

Ikasi eta desikasi, etengabeko prestakuntza

Elkarrekin (des)-ikasten egitasmoa sortu dute Aramaion, herritar guztiei zuzendutako egitasmoa. Etengabeko formazioa da egitasmoaren ardatza. Bihar, 'Amatasun feministak' gaia landuko dute eta eguaztenean 'Ziberindarkeria matxistak'

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaio Udalak *Elkarrekin (des)-ikasten* egitasmoa jarri du martxan. Lehen aleak bihar bertan ikusi ahal izango dira. Izan ere, bi ekitaldi antolatuta dituzte dagoeneko: *Amatasun feministak* eta *Ziberindarkeria matxistak* hitzaldi solasaldiak.

Aktibatzea piztea

Elkarrekin (des)-ikasten egitasmoa Aramaion sortu dute eta herritar guztiei zuzendutako ekimena da. Pertsona orok jaiotzetik hil arte duen prestakuntza du ardatz. "Eskolan bakarrik ez da ikasten. Denon artean ikasi eta desikasten dugu, etengabeko formakuntza izan behar luke bizitzak", dio Lierni Altuna alkateak. Hain zuzen, herritarren artean etengabeko formakuntza hori bilatu nahi dute, herritarren "aktibatze hori" piztu gura dute.

Jakintza era integralean ulertuta, tokian toki, garaian garai, bihurtzen da aberasga-

ri eta praktiko, Aramaio Udal arduradunen esanetan.

Errespetua eta zaintza

"Gure arteko harremanak osasuntsuak, justuak, parekoak eta sanoak izateko sortu da ekimen hau", diote. Gizartearen norabidean eboluzionatzeko: "Guk egiten dugulako auzoa, herria, gizarte eta mundua. Errespetua eta gure arteko zaintza beharrezkoa da. Gai asko jorratuko ditugu eta elkarrekin ikasi eta ezagutza partekatu nahi dugu".

Ingurumena, kontsumoa, euskara, osasuna, zaintza, generoa eta berdintasuna, nortasuna, herrigintza... Egunerokotasunean eragiten duten hainbat arlotan sakondu nahi dute era kolekti-

**IRAILAREN 29AN,
'ZIBERINDARKERIA
MATXISTAK'
HITZALDIA EGINGO
DUTE, 18:00ETAN**

boan. Lehen ekintzek berdintasunarekin izango dute zerikusia. Hain zuzen, Berdintasun Sailak antolatutakoak izango dira.

Bihar, lehenengoa

Lehenengo ekitaldia bihar bertan egingo dute, 10:00etatik 13:00etara, osoko bilkuren aretoan. June Fernandez kazetariak hitzaldi-solasaldia egingo du, *Amatasun feministak* gaiaren inguruan. Aurrez eman behar zen izena ikastarorako.

Bigarren hitzaldia umeek eta nerabeek sare sozialetan dituzten arriskuen ingurukoa izango da: *Ziberindarkeria matxistak*. Irailaren 29an izango da, eta Estibaliz Linares egingo du hitzaldia. Ekitaldi hori bi zatitan banatuko da: goizean, eskolan egingo du hitzaldia - LHko 3, 4, 5 eta 6. mailetakoe-dako; eta arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara, gurasoendako eta interesa dutenen guztientako, kultura etxean -edukiera bete arte izango da-.

Sasoian egoteko gimnasia eta pilatesa, Udalaren eskaintza

Bi ikastaro horietarako urriaren 28an baino lehen eman behar da izena, udaletxera bertara joanda

A.E.G. ARAMAIO

Aramaio Udalak argitaratu du 2021-2022 ikasturtean zehar eskainiko duen kirol eskaintza. Sasoian egoteko gimnasia eta pilates eskainiko dute.

Sasoian egoteko gimnasia hirugarren adinekoei zuzendutako eskaintza da, martitzen eta eguenean egingo dute, 10:45etik 11:45era bitartean. Doan izango da, baina udaletxean eman behar da izena, irailaren 28a baino lehen. Bestalde, pilates ikastaroan bi aukera egongo dira: martitzen eta eguenean 09:30etik 10:30era

bat eta astelehen eta eguenean 19:30etik 20:30era bestea. 120 euro izango da pilates ikasturtea eta udaletxean ordaindu behar da irailaren 28a baino lehen.

Osasun krisiaren ondorioz, kirol ekintzetan prebentzio neurriak bete behar dira, eta, gainera, edukiera mugatua izango dute ikastaro horiek.

Bestalde, Udala GPA eskaintza lotzen dabil. Beste urte batzuetan eskaini izan duten kirol jarduerak GPA; oraindik lotu batik dagoen arren, epe motzean martxan izatea espero dute.

Euskara praktikatu eta ikasteko hainbat ikastaro egongo dira

Udalak hiru euskara ikastaro jarriko ditu martxan ikasturte berrian. Urriaren hasiko dituzte euskara ikastaroak, baina horiek antolatu ahal izateko, izen-emate epera ireki dute.

CI-EGA prestatzeko ikastaroa. Interesa duten pertsonen izena eman eta ondoren antolatuko da taldea eta ordutegia. Zuzenean bideratuko da azterketa prestatzera. Bestalde, mintzapraktika ikastaroa egongo da. Euskaraz berba egiteko, gramatika errepasatzeko... aukera izango dute horiek. Azkenik, Jubilatutaldeen ikastaroa. Interesatuak idatzi alaiak202@gmail.com helbidera. Astelehenera arte eman daiteke izena ikastaroetan.

Eduerne Ormaetxeak Arabako erlojupekoa izango du bihar

Erlojuaren aurka lehiatuko da bihar Eduerne Ormaetxea kadete mailako ziklista aramaioarra. Murgian jokatu dute Arabako erlojupeko txapelketa, 8 kilometroko lasterketa. "Esango nuke ibilbide egokia dela niretako. Nahiko etapa laua izango da, eta amaiera aldean aldapa txiki bat izango du", azaldu du Ormaetxeak.

Aste bukaeran Arabako Itzulia jokatzetik dator, eta gogotsu, gainera: "Arabako Itzulia maila ona eman dut, ikusi dut ondo nagoela, eta parte hartzeko indarrez nator. Ea zelan irteten den lasterketa". Proba horrekin amaitutzat emango du denboraldia Ormaetxeak.

Pilota txapelketaren bigarren jardunaldia gaur eta etzi

San Martin pilota txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu dute aste bukaeran. Gaur, 18:00etan hasita, alebin B eta kadete A mailetakoei jokatu dute; eta domekan, 10:00etan hasita, alebin A, alebin B, infantil A eta infantil B kategorien txanda izango da. Eñaut Moto eta Julen Fernandez aramaioarrek jokatu dute domekan.

Irakurketa klub feministak jarraipena izango du aurten ere

Ikasturte berrian ere euskarazko irakurketa klub feminista indarrez beteta etorriko da. Taldean parte hartu gura duenak urriaren 4ra arte izango du izena emateko aukera, *berdintasuna@gorbeialdea.eus* helbidera idatzita. Laia Eskolak, Gorbeialdeko Kuadrillak eta Aramaio Udalak elkarlanean antolatuta dute ekimena da.

Herria hobetzea helburu duen taldea, kide bila

Bederatzi urte daramatza Aretxabaleta Lagunkoia lanean herrian. Erretiratuek osatutako taldea indartu egin gura dute, lagun berriak sartuta; izan ere, oraindik lan asko dagoela egiteko uste dute eta erronka berriei heltzeko gertu daude, gainera

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Elkarren artean, edozein gairen gainean, hitz egiten ikasteko jarri zuten abian taldea 2012an, eta lan-saio mordoa egin zituzten orduan, "sekula eztabaidatu gabe". Hortik abiatuta, herriaren gaineko diagnostikoa egin zuen Aretxabaleta Lagunkoia, eta handik urte batzuetara berriki eta osatu. Egindako lana udal ordezkariari erakutsi diete eta hainbat bilera egin dituzte txostenen jasotako gainean jarduteko. Taldea hamabost bat lagunek osatzen dute, baina adinean aurrera doaz horiek, eta jende berriarekin indartzea da asmoa. Hala, hitzaldia antolatatu dute urriaren 5erako, taldearen nondik norakoak azaltzeko; komentuan izango da (18:00), eta interesa duten guztiak gonbidatu dituzte bertara.

Zortzi arlotako eskaerak

"Gure taldearen ezaugarrietako bat da erretiratuok osatzen du-

gula. Eta udal teknikariak geuk deitutakoan bakarrik datoz, gure zalantzak argitzeko", azaldu du Pedro Etxebarria kideak, eta gaineratu: "Era berean, udal ordezkariarekin elkarlana oso garrantzitsua izan da. Guri eran-

tzuteko agertu dira beti Ongizate zinegotzia zein alkatea".

Taldean elkartu dira haien artean "inolako zerikusirik ez" duten kideak. Herriaren gaineko behaketa eginez eta ideiak eta iritziak mahai gainean ja-



Pedro Etxebarria, Joxepi Barandiaran, Itziar Errasti eta Luis Mari Otxoa. MIRARI ALTUBE

rrita, Aretxabaletaren gaineko diagnostikoa egin dute. "Hori bakarrik ez, GSR egoitzaren gaineko txosten bat ere egin dugu, baita eskualde mailan uraren gaineko beste bat ere, ibaia eta araztegia kontuan hartuta, esaterako", dio Etxebarriak.

Herriaren gaineko txostena zortzi arlotan banatu dute, eta arlorik zabalena aire zabalari eskaini diote. Bertan jasotako batzuk nabarmendu gura izan dituzte: "Gure eskaeren artean daude: Santutxutik Lausitarako pasabidea egitea; Larrino eta Bedoña artean behar den moduko pasabidea txukuntzea; Aozaratzatik Urkuluraino jarraipena ematea bidegorriari; komunak bidegorrian, Arrasatera bidean; tutoretzapeko pisuak... Guk proposatutakoak dira horiek, eta batzuk kontuan hartu eta egin ere egin dira, Herriko Plazatik Santa Kurtz kalera dagoen arrapala, esaterako, eta animalien gaineko ordenantza, nahiz eta hori gartzeko egon oraindik".

Kide berrien beharra

Taldea haztea dute helburu orain, hori indartuta kontu gehiagori eta erronka berriei heltzeko: "Taldea handituz gero, batzordeak egingo genituzke, eta talde txikitian landu gai zehatzak: ibaia, adinekoren egoitza, bakardadea... Horretarako jendea behar dugu, eta 70 urteren bueltakoak badira, hobeto; baina gogoia izanez

gero edonor sar daiteke". Erronka berrien artean Komertzio Lagunkoia dute begiz jota. "Aretxarterekin elkarlanean jardungo genuke, haren bitartez iritsi komertzioetara".

Diagnostikoa jasotako zortzi arloak

- **Aire libreko guneak:** parkeak, bidegorriak, ibaia, garbitasuna, zirkulazioa, Plan Orokorra...
- **Garraioa:** taxiak, autobusak...
- **Etxebizitza:** etxeetara sarrera -igogailuak-...
- **Parte-hartzea:** komunikazio sareak, bizilagunak, tokiko komertzioa...
- **Errespetua eta inklusioa:** hezkuntza, belaunaldi arteko zubiak, bazterketa...
- **Enplegua eta parte-hartzea:** aisialdia...
- **Informazio bideak:** teknologia berriak...
- **Ongizate eta osasun zerbitzuak:** marjinazioa eta pobrezia, etxeko zerbitzua, egoitzak, medikua...



NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ

Aupa UDA!

Futbola ez da izan inoiz nire gustuko kirola. Txikitian beste aukerarik ez zegoenean jolasten nintzen auzoko umeekin batera. Ze poza hartzen nuen baloia galtzen zenean! Nire etxean domekero futbola zen telebistan ikusten zen gauza bakarra. Eta telebistan ezin bazen ikusi, irratian entzuten zen. Isil-isilik egon behar genuen zorabiatzeko abiaduran hitz egiten zuen kazetariari jarraitu ahal izateko. Asper-asper eginda lo hartzen nuen. Baina bizitza oso bihurria denez, semeari ikaragarri gustatzen zaio futbola. Eta nahiz eta era desberdinetan bere atenzioa beste nonbaitera bideratzen saiatu garen, berak futbola gura zuen. Beraz, orain dela bost urte, UDAn hasi zen. Garai hartan, nik pentsatzen nuen UDAn futbola bakarrik lantzen zuela; aldiz, gaur egun, nire iritzia guztiz aldatu da. Izan ere, UDAn semeari futbola baino askoz gehiago ematen dio: taldearen esanahia, taldekideek elkar motibatuzko garrantzia, taldearekiko ardura, diziplina. Nik ezagutzen dudak futbolak ez du hori islatzen; baina semeak bere taldeari buruz hitz egiten duen moduak bai. Hau guztia esanda, aupa UDA! Eta eskerrik asko entrenatzaile lana egiten duten gazte guztiei.

GORA ETA BEHERA



Eskailera apurtuta txorien behatokian

Urkulu urtegiaren bueltan dagoen txorien behatokira igotzeko eskailera apurtuta dago. Hala jakinarazi du herritar batek: "Umeek gora igo nahi izaten dute, eta, dagoen bezala, arriskutsua da. Nahiko nuke honen ardura duenak konpondu dezala, mesedez".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Txartel digitala prestatzen dabil UDA, bazkideendako

Bazkide txartela banatzeko ohitura du UDAn denboraldi hasieran; aurtengoa, baina, txartel digitala prestatzen dabil, eta adierazi dute urri bukaera aldera jarriko direla bazkideekin harremanetan hori eskuratzeko.

75. urteurrenaren baitako berrikuntzetako bat da: "Orain arteko ibilbidean izandako ilusioak eta izaera berak ematen digute garai bakoitzera moldatzen joateko indarra; betiere, ahalik eta zerbitzu hobereana eskainiz". Eta hobetzeko prozesu horren baitan dator txartel berria: "Aurrerapauso bat gehiago da UDAn etengabeko eraldatze prozesuan, eta, erosoagoa izatearekin batera, jasangarriagoa ere bada".

Parke igerilekudun bat proposatu du EH Bilduk

Urkulura doan bidegorriaren bueltan, 25.000 metro koadroko eremuan, Olatza izeneko gunearen zirriborroa aurkeztu du; han irudikatu ditu igerileku ekologikoak, aldagelak eta komunak inguruan dituela, anfiteatroa eta taberna, besteak beste

Mirari Altube ARETXABAETA

Estrategikotzat duen proiektuaren berri eman zuen EH Bilduk astelehenean: Olatza parkea. Urkulu urtegiara doan bidegorrian, ortuak dauden gunearen bukaeran, proposatu dute hori eraikitzea. Oraingoz, baina, ideia bakarrik da, eta onartu dute ez dela epe motzean egin daitekeen proiektua, besteak beste, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) jasota egon behar duelako.

Plan Orokorrearen menpe

"Urte osoan eta edonork disfrutatu ahal izateko parke integral eta jasangarria egitea da asmoa, eta horren berritasun handiena igerilekua izango litzateke", zioen Ion Albizu bozeramaileak, eta gaineratu zuen horri esker herritarrek Aretxabaletatik irten beharrik ez luketela izango "aisialdiarekin gozatzeko", bereziki udan, "freskatzea" gura den sasoian.

Horretarako, baina, lur eremu horren kalifikazioa aldatu egin beharko litzateke, Albizuk azaldu zuenez: "HAPO, Plan Orokorra, garatzeke dago, eta, guk zehaztu dugun proiektua hor txertatu behar denez, orain da unea hori aurkezteko eta proposatzeko. Izan ere, gero, urte batzuk beharko dira onartzeko". Europar hedatuta dagoen eredia izan arren hemen ez dagoela halakorik zehaztu zuen: "Ildo horretatik, legediak ere garapen bat beharko du".

Proposamenean jasotakoak

Olatza parkea 25.000 metro koadro batuko dituen eremua izatea proposatu dute, Assembly langetatik gora, Urkulura doan bidegorriaren erdialdean. Udalarenak dira lursail horiek eta abeltzaintzarako erabiltzen dira, gaur-gaurkoz, EH Bildukoek azaldu zuten bezala. Hor igerileku bi kokatuko lirateke, bata han-



Olabarria, Albizu, Garciaetxabe eta Gabilondo proposamenarekin. IMANOL BELOKI

HERRITARREN ARTEAN INTERESA PIZTUKO DUELA USTE DUTE; HAIEN EKARPENAK JASO GURA DITUZTE

diagoa eta bestea txikiagoa: "Ez dira igerileku arruntak izango, ekologikoak baizik; eremu naturalean txertatuta egongo direnez, ingurumena errespetatuko dutenak". Hala, produktua kimikorik ez lukete erabiliko horietan eta ur berririk ere ez litzateke beharko, Albizuren esanetan: "Uraren gardentasuna eta kalitatea mantentzeko bio-filtroak eta horretarako sortutako teknologia erabiltzen da".

Aldagelak, komunak eta taberna ere zehaztu dituzte proposamenerako egindako zirriborroan, eta komunak zabalik izatea urte osoan aipatu dute; hala, parkera doazenez zein bidegorrian paseatzen dutenek erabili ahal izateko. Anfiteatroa ere aurreikusi dute; formatu txikiko kultura ekintzetarako. Horiez gain, bertako basoa txukuntzea eta erabilera publikoa

ematea ere aipatu zituzten, baita ibilbide zaharrak berreskuratzea ere. "Parkearen beste helburuetako bat da elkarren arteko harremanak bultzatzea; herria egitea, azken finean". Mugikortasunaren aldeko apustua egin dutela gaineratu zuten, natura eremua kokatuta dagoelako eta herritik gertu, gainera.

Horretarako egin beharreko inbertsioari dagokionez, "zurrunak" izan beharra dagoela jakitun direla adierazi zuten EH Bildukoek: "Horregatik, proiektua, guztiz bideragarria dela esan genezake, bai inbertsioari dagokionez, bai urteko kostuari begira".

Herritarren iritziak jasotzea

Behin komunikabideen aurrean aurkeztuta, herritarren iritzia jasotzeko txanda zabaldu dute: "Herria aspalditik eskatzen ari den proiektu bat da, eta uste dugu piztuko duela ilusioa eta interesa. Hala, datozen hilabeteetan herritarrekin konpartituko dugu eta beraien iritziak eta ekarpenak jaso nahiko genituzke. Eta gero, herriari interesatuz gero, HAPOren garapenera bideratuko genuke".

"Norbera zaintzea umea zaintzea bezain garrantzitsua da"

NEREA MENDIZABAL PSIKOPEDAGOGOA

Kuku Miku guraso-eskolako saioak gidatzen ditu.

M.A. ARETXABAETA

Orain dela bost urte inguru hasi zen Kuku Mikuko gurasoekin lanean.

Guraso eskolak garrantzitsuak dira?

Familia nuklearretan bizi gara, bakoitza geure airera, eta babes sozial horretan guraso eskolek bere lekua dute. Izan ere, asko aldatu dira kontuak sasoi bate-tik hona. Horregatik, elkarren arteko sostengua beharrezkoa da eta komunitate bat sortzeko lagungarri izan daiteke: elkar laguntzeko, ulertzeko, babesteko... Hezteko moduak ere aldatzen ari dira eta paradigma aldaketa hauekin nahaste handia bizi dugu guraso moduan; eta, gainera, erreferenteak falta zaizkigu. Hortaz, konpartitzeko espazio bat ere bada eskola, baita baliabideak topatzeko ere, norberak nahi duen heziketa modu hori topatzeko.

Eta hortik abiatuta guraso sareak eratzten dira?

Bai, noski; Kuku Miku bezalako elkarteak sortzen diren harremanei esker eta guraso eskoletan elkar gehiago ezagutzeari esker, saioetatik kanpo ere harremanak sakontzeko aukera eman dezake, komunitate talde bat osatuz.

Gaiak zelan zehazten dira? Zer da gurasoek gehien eskatzen dutena?

Gurasoek unean uneko kontuak eskatzen dituzte. Askotan ateratzen diren gaiak dira seme-alaben emozioak –haserre, frustrazioak, beldurrak...–, eta horiek nola kudeatu geuk eta nola la-



Nerea Mendizabal. NEREA MENDIZABAL

gundu umei kudeatzen; baita gurasoek gainezka gaudenean zelan zaindu geure burua ere. Azken baten, seme-alaben heziketan oinarri sendoa eratzea da guraso guztiok gura duguna.

6 urte bitarteko adin tartean zer da gurasoek kontuan izan beharrezkoa?

Umeak txikiak direnean horien garapenari ematen dio garrantzi handia bereziki guraso profil batek; zaindu nahi izaten ditu umeen beharrak, umeen emozioak, umeen erritmoak... Oso ondo dago, baina umei lehen-tasuna eman eta geure buruarekin ahazteko arriskua dugu, baita bikotekidearekin eta garrantzitsuak diren beste alderdi batzuekin ere. Umeen beharrak zaintzea bezain garrantzitsua da norbera pertsona bezala zainduta egotea; zaintzaileok ez badugu geure burua zaintzen, zaintzaile kaskarrak izango gara.

Lindi hop eta konposizio dantza ikastaroak Jaikirekin

Jaiki elkarteak lindi hop dantza ikastaroa egingo du astelehene-tan, irailaren 27an hasita –has-tapen maila 18:00-19:15 eta maila aurreratua 19:30-20:45–. Eta martitzenetan, bat-bateko konposizio ikastaroa –18:30-20:30–. Kuartel zaharrean izango dira biak. Argibide gehiagorako, hona hemen bideak: jaikielkartea@gmail.com edo 688 81 96 65.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Taxi partekatu zerbitzua, proba pilotu gisa

Elizateak hirigunearekin lotzeko taxi proiektu pilotua aurkeztu dute asteon, Apotzagako elkartean, eta irailaren 27an jarriko da martxan. Azaroaren 28ra arte iraungo du zerbitzu horrek, eta ondoren, erabiltzaileen balorazioa jasoko da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Taxi partekatuaren foru proiektu pilotu batek Eskoriatzako elizateak herrigunearekin lotuko ditu. Proiektu pilotua datorren irailaren 27an jarriko da abian, eta horren berri eman dute asteon, Apotzagako elizateko auzo-etxeko aurkezpen ekitaldian. Bertan batu ziren, zerbitzuaren nondik norakoak azaltzeko, elizateetako zenbait bizilagun; Eskoriatzako Elizateen Elkarteko Leire San Vicente bozera-mailea; Joserra Zubizarreta, Eskoriatzako alkatea; Migel Jaenike (Vic Viveros de Inicativas) berrikuntza hiritarrean aditua; eta Ander Iturri, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko zuzendaria.

"Gipuzkoako diputaziotik proiektu hau laguntzea erabaki dugu, landa mugikortasunean zentratuko egitasmo interesgarria delako. Batzuetan, herriguneko mugikortasunean zentratzen gara, eta, alde horretatik, oso ondo dago egitasmoa. Fundacion La Caixa gure babesarekin, Migel Jaenike ikertzailearekin eta elizateetakoekin batera prestatzen aritu den lanari hasiera emateko prest gaude", adierazi zuen Ander Iturri, Aldundiko Mugikortasuneko zuzendariak.

Bi hilabeteko probaldia

Bederatzi aste iraungo du taxi zerbitzua, eta bi euroko kostua izango du bidaia bakoitzeko, eta beste bi euroko gainkostua leku jakin batera edo baserriraino eramateko. Gainera, tokiko lau taxilarik jardungo dute, eta taxilari horiek egunero hamabi udalerrri konektatuko dituzte Eskoriatzan eta Aretxabalean –Marin, Marulanda, Zarimutz, Mazmela, Apotzaga, Bolibar, Lete, Gellao, Arkarazo eta Mendiola–. Gellaok eta Mendiolak, gainera, geldialdi bat izango dute Aretxabalean.



Taxi partekatu zerbitzuaren proba pilotu aurkezpenen batutakoak. IMANOL BELOKI

TOKIKO LAU TAXILARIK JARDUNGO DUTE ETA ZERBITZUAK BI EUROKO KOSTUA IZANGO DU

Konexioak egunero egingo dira –domeketan eta jaiegunetan izan ezik–, jaitsiera bat izango da goizean –elizateetatik herrigunera– eta igoera bat arratsaldean –herrigunetik elizateetara– astelehenetik zapatuta. Gainera, egubakoitzean eta zapatuan beste igoera bat egongo da gaueko azken orduan.

Aspalditik datorren proiektua berrartu eta elkarlanean egingo dako lana egon dela adierazi zuen Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea: "Duela denbora bat, Iñaki Kerexeta ere tartean zela, La Caixa Fundaziotik aukera bat etorri zen elizateetan zenbait proiektu garatzeko. Komunikazioa eta garraioidea izanda eskaerako bat, horri heldu zitzaion, eta, pandemiagatik gelditu arren, orain, gaia berrartu eta proiektua martxan jarriko dugu. Az-

pimarratu eta eskertu egin behar da elizateetan izan den inplikazioa, eta, proiektu pilotua izanda, esperientzia interesgarria dela iruditzen zait. Hasiera batean, bi hilabete iraungo du, eta gero, erabiltzen dutenei galdera-sorta bat egingo zaie zerbitzua baloratzeko, eta, hain zuzen ere, horren arabera garatu ahal izango dugu".

Ibilbideak partekatuz

Behar batetik sortutako proiektua gauzatzeko bidelagun gisa, Madrilgo enpresa bat izan da eurekin elizateen eta herrigunearen arteko mugikortasuna aztertzen. Hala, aztertu dituzten aukeretatik honako hau izan dela egingarriena adierazi zuen Miguel Jaenikek, VIC Viveros de Inicativas Ciudadanaseko kidea: "Jendeak taxi hau erabili ahal du, bide batez, bere auto partikularra etxean utziz, zenbait kasutan. Oso zaila da hori egitea sarri, jendeak autoa denerako erabiltzen duelako. Ideia da ibilbideak partekatzeko aukera ea ote dugun jakitea, ordu jakin batzuetan: lanerako, aisialdirako, erosketetarako, ikastetxera joateko..."



Ruben Testa, seme Aratzi gomendioak ematen. RUBEN TESTA

Aratz Testa Yamahako kopako Europako finalan arituko da

Bihar, irailak 25, zapatua, jokatu den finalean arituko da 11 urteko motorzale eskoriatzarra

I.B. ESKORIATZA

Irailaren 25ean, moto-kroseko nazioen munduko txapelketa izango da Italian, Montovan, eta horrekin batera, Yamaha kopako Europako moto-kros txapelketako finala jokatu da. Bertan arituko da Aratz Testa, 65 cc-ko kategorian lehiatzen.

Aratzen aita Ruben Testak esan duenez, gustura ari da semea lehiatzen, eta gozatzea izan behar da bere helburua: "Urte ona egiten ari da Aratz, eta motor berriari berehala hartu dio eskua. Euskadikoan bost lasterketa egin ditu eta,

hiru lasterketaren faltan, sailkapenean lehenengo postuan dago, bere mailan. Hala, orain Europako finalean aritzea eskulako saria da beretzat. 11 urte ditu, eta egin behar duena da uneaz disfrutatzea".

Anaia nagusia ere ondo

Enaitz Testa anaia nagusia, berriz, 85 cc-ko mailan ari da lehiatzen, eta bere kategorian lehenengo postuan dago Euskadikoan. Iaz, Europako finalerako sailkatu zen, baina COVID-19agatik bertan behera geratu zen.

GORA ETA BEHERA



IMANOL BELOKI

Anduaga Pentsuak-eko sarrerako espaloia

Anduaga Pentsuak-eko sarreraraino sartzen dute autoa herritar askok, materiala bertan kargatzeko, espaloia gainetik pasata. Horren ondorioz, bertako espaloia egoera kaskarrean dago.

Dantza eta umorea izango dira kale-antzerkian

Hiru emanaldi programatu ditu Eskoriatzako Udalak kale-antzerki jaialdirako: irailaren 30ean, 'Turistatzen' izeneko ikuskizuna izango da; urriaren 1ean, 'Gazte' dantza ikuskizuna; eta urriaren 2an, 'Legea gu gara' umorezko saioa

Imanol Beloki ESKORIATZA

Kalera: Kale-antzerki jaialdia antolatu du Eskoriatzako Udalak hilaren 30erako eta urriaren 1erako eta 2rako, udari amaiera emateko. Izenak dioen moduan, kalean egingo dira ikuskizunak, hiru, eta antzerkia beste formatu batean eskaintzearen aldeko apustua egin dute.

Lehenengo hitzordua irailaren 30ean, egunean, izango da, 19:00etan, Fernando Eskoriatza plazan, *Turistatzen* izeneko. Trapu Zaharra taldearen lana da, eta oholtzan Santi Ugalde eta Mila Espiga aktoreak izango dira, Oscar Terolek zuzendutako antzezlanen. Bigarren ikuskizuna *Gazte* izango da, urriaren 1ean, 19:00etan, Santa Marina plazan. Oinkari dantza taldeak eta Hika Teatroak elkarlanean ekoiztutako lana da. Eta azkena, berriz, *Legea gu gara* umorezko ikuskizuna, 19:00etan Santa Marina plazan izango da.

Kalera ateratzeko gogoz

"Uztailean antolatu genituen zenbait hitzordu kaleko hainbat txokotan, baina bertan behera utzi behar izan genituen hainbat ekitaldi. COVID-19 kasuak izan ziren, eguraldia ere ez zen oso fin aritu... Hori horrela, kale-antzerki jaialdian antolatutakoak

publiko familiarrantzat, mota askotarikoak, eta kalean egingo direnak dira, antzokitik ateratakoak. Hain zuzen ere, horren alde egin dugu, eta funtzionatu-koduten aurreikuspenaz gaude", adierazi du Arantxa Unzueta, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

Eguraldi txarra bada, B planak

Ikuskizunen egunetan eguraldi txarra egiten badu leku aldatuak egingo dituztela jakinarazi du Eskoriatzako Udalak: hala, *Turistatzen* ikuskizuna

Zaldibar antzokian egingo da, *Gazte* dantza ikuskizuna Manuel Muñoz kiroldegian egingo da eta *Legea gu gara*, berriz, Joseba Iñurrategi pilotalekuan izango da. "Ikuskizun bakoitzak bere beharrak ditu, eta horregatik hartu dugu horrelako erabakia. Dena den, eguraldi ona bada, dagozkien plazetan egingo dira. Horren harira, aukietan eserita ikusi beharko dira saioak, eta sarrera libre izango da, edukiera bete arte. Gutxi gorabehera, 150 eserleku izango dira".



'Turistatzen' ikuskizuneko une bat. GOIERRIKO HITZA

'Mintza-poza!' oinarri, hasi dute Berbalagunek ikasturtea

Saioak hasi arren, izen-emate kanpaina abiarazi berri dute, interesdunek Berbalagun taldeak ezagutzeko

I.B. ESKORIATZA

Berbalagun taldeak martxan dira dagoeneko, eta, ikasturte berriari begira, *Bizi zaituz Mintza-pozez, egin zaituz Berbalagun!* lelopean hasi dute kanpaina berria. Hala ere, dinamizatzaileek

azpimarratu dutenez, urte osoan izango dute izena emateko aukera zabalik. *Mintza-poza!* oinarri, euskaraz hitz egiteko elkartzen, ematen eta jasotzen eta lagun berriekin euskaraz gozaten jarraitu nahi dute, eta,

pandemia aurreko egoerarekin, ohiko partaideak hasi dira euskaraz praktikatzen.

"Urriaren 21ean, 18:00etan, tonbola berezi bat egingo dugu Fernando Eskoriatza plazan, eta Berbalagunetako partaideei zuzenduta bakarrik ez, herritar guztiei irekita egongo da; sari ederrak izango dira, gainera... Dena den, aurrerago emango dugu informazio gehiago", adierazi du Iratxe Arresek, Eskoriatzako Berbalagunak taldeko koordinatzaileak.



Leintz Gatzagako San Miguel plaza. IMANOL BELOKI

Eguaztenean atzemandako kasuarekin, eremu gorrira

Azken positibo horrekin, hamalau kasu erregistratu dira, guztira, Leintz Gatzagan, pandemia hasi zenetik

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Eguaztenean, COVID-19 positibo kasu bat atzeman zuten Leintz Gatzagan, eta, horren ondorioz, eremu gorrira pasa da herria. Abuztuaren 11n hauteman zen azken kasua, eta, guztira, pandemia hasi zenetik, hamalau positibo erregistratu dira.

Azken asteko positiboaren ondorioz, 400etik gorako intzidentzia-tasa du herriak. Hala eta guztiz ere, COVID-19 positibo baiezta denetik hamalau egunera ez bada kasu berririk izaten, eremu berdera pasako da berrito ere.

Zuhurtiaz jokatzeko

COVID-19 gaitzetik libre egon zen herria pandemiako lehenengo hilabeteetan. Hain zuzen ere, 2020ko irailaren 17an erregistratu zen lehenengo kasua, eta, gaitza iritsi arren, Leintz Gatzagako udal ordezkariak behin

eta berrito adierazi izan dute herritarrek ondo errespetatu dituztela neurriak eta gomendioak. Horren adierazle da pandemia osoan zehar hamalau kasu positibo soilik atzeman direla bertan.

Zuhurtiaz jokatzeko eskaerari erantzun ona eman zaio, eta horrek zenbait ekintza kultural egitea ahalbidetu du. Makila Korta jaia, *Hemen gaz!* jaialdiren baitan, Erne eta Larru Beltzak taldeek egindako emanaldiak, haurrentzako muralismo tailerra eta 2021eko Andra Mari jaiak, besteak beste.


Hilean ekintza kultural bat antolatzeke ideiarekin jarraituz, gainera, ari dira aurrera begirako zenbait hitzordu prestatzen. Esaterako, Gatz Eguna urriaren 17an egitea aurreikusten dute, eta Sorginak Emakume Elkarteko kideak ikastaro bat egiteko gogoz daude.

Ludotekako ikasturte berria prestatzeko bilera egin dute

Gurel Guraso Elkarteko kideak Gatzagako ludotekako ikasturteko dinamika berriak prestatzeko batu ziren atzo, eguna. Herriko haurren beharrak identifikatu, kurtsoan zehar antolatu nahi dituzten zenbait ekintza mahai gainera atera, eta askotariko ekarpenak jasotzeko eta partekatzeke aprobetxatu zuten hitzordua.

Bigarren enkantea eginda, eta balorazioak aterata

Gatzagakomendian dauden ehi-za postuen enkantea irekita egon da, eta zenbait egun izan dituzte interesdunek eskaerak egiteko. Hala, lehenengo txanda amaituta, beste enkante bati ekin diote. Proposamenak aurkezteko epea amaitu da, baina informazio gehiago behar duenak *leintzgzatzaga.eus* webgunean kontsulta dezake.



17 UDAKO ARGAZKIEN .GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

**367 argazki jaso ditugu.
Eskerrik asko parte hartzeagatik!**

Irailaren 24tik 29ra arte, zure argazki gustukoena aukeratu ahal izango duzu
(PUBLIKOAREN SARIA)
Bozkatu *Goiena.eus*-en!
Pertsonako boto bakarra onartuko da.

Eta adi egon! Urriaren 1ean, lehiaketako lau sarien irabazleen berri emango dugu! Zorte on!



Argazki guztiak ikusi eta bozkatzeko sar zaitetz kanal berezi honetan:
<https://labur.eus/lehiaketa-2021>



RESPOMUSOKO ATERPETXETIK, EKAINEAN | Argazkia: Lurdes Hernando



OLAGARROEN ORRAZIA, SANTORINI, GREZIA | Argazkia: Maider Iglesias



BASTIDA, ARABAKO ERRIOXa | Argazkia: Alberto Caballero



SARDINIA | Argazkia: Aritz Murgia



ARAMAIOKO BAILARA ORIXOLDIK | Argazkia: Julen Axpe



NERGA, GALIZIA | Argazkia: Ana Azkona



SANTIAGO DE COMPOSTELA | Argazkia: Ana Boisa



LLANES | Argazkia: Iker Zubizarreta



GASTIAIN, NAFARROA | Argazkia: Ibernalo Iparragirre



'SELFIE'-A. ARTE ETA ZIENTZIEN HIRIA, VALENTZIA | Argazkia: Oxel Vazquez

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jaietxea

BERGARA
EREIN DA JAN

GU Travel
Halcon bedak
Arrasate

SANMIGELAK 2021 EZ-JAIAK



Jone Olabarria OÑATI

San Migel eta Errosaixo jairik ez da egongo aurten, pandemiak eztanda egin zuenetik bigarren urtez jarraian. Argi utzi gura izan du Udalak, eta "azken esfortzua" egitea eskatu die oñatiarrei Iñaki Olalde Kultura zinegotziak: "Helduko dira San Migel eta Errosaixo jaiak elkarrekin ospatzeko egunak, baina, bitartean, azken ahalegina egin beharrean gaude".

Guneetan banatutako ekintzak

Egoerari erreparatuta, eskaintza kulturalera mugatu dute aurtengo egitaraua, eta, aurreko urtean bezala, "COVID-19aren kontrako prebentzio neurri guztiak bermatuz" egingo dela azpimarratu du Udalak. Hain zuzen ere, pilaketak saihesteko asmotan, lau guneetan banatu dituzte kultur ekitaldiak: Azoka Kultura Gunea, kiroldegia, plazako pilotalekua eta Irunberri plaza, hain zuzen.

"Espazio gehiago izango dira kultura eskaintzarako. Jende pilaketak saihestea da helburu nagusia eta egitarauko hitzorduen lekuen dibertsifikazioak horretan lagun dezake. Zenbaitetan handiagoa izango da edukiera; beraz, herritar gehiagok gozatu ahal izango du kultura eskaintzaz, prebentzio neurri guztien bermarekin", zehaztu du Olalde.

Gaineratu duenez, "oso aintzat" hartu dute unean uneko egoera:



'Oñatiko garagardo festa' irudikatu zuen herriko kuadrilla batek 2019ko Errosaixo Bixamona Egunean. GOIENA

"Moldaketarik egin beharra bailego, moldatu egingo genuke. Halaxe eskatzen du egoerak".

Elkar zaintzeko deia

Iazko esperientzian oinarrituta, kultura eskaintza berreskuratzeko beharra helarazi dute herriko hainbat eragilek, eta, azaldu dutenez, elkarlanean hila beteak eman dituzte egitaraua prestatzen: "Ekainean hasi ginen prestatzen, hainbat eragilerekin batuz. Iaz ekintzak bertan beharra lagatzea erabaki zuten eragile askok aurten berreskuratu egingo dituzte, eta hori nobedadea da".

Uneko egoeraz jakitun, "prebentzio neurriak bermatuz eta uneko araudia errespetatuz" gauzatuko dira jarduerak: "Hila beteak jardun ditugu horretarako elkarlanean, eta aurtengo egitarauan izango da horren islarik".

Denentzako aukerak

Hala, etxeko txikienetatik hasita, herritar guztientzako eskaintza izango da gaurtik aurrera herrian; besteak beste, kontzertuak, hurren danborrada, gazta lehiaketa, Atsolorra, haurrentzat jolas parkeak haurrentzako ikuskizunak eta Oñatiko Musika Bandaren kontzertuak. "Espazio kontuak direla-eta", aurten ere ez da barrakarrik izango Oñatin.

Sarrerak hartu beharko dira ekintza gehienetan parte har-

Jairik gabe ere, gozatzeko prest

Kultur egitaraua zehaztuta, lau gune erabiliko dituzte ekitaldietarako: Azoka Kultura Gunea, kiroldegia, plazako pilotalekua eta Irunberri plaza. Oñatiko txosna batzordeak ere San Migel eta Errosarixo egunen bueltarako musika eta emanaldiak antolatu ditu

ALTUNA

Ondo pasau jaixak eta zaindu!

ALTUNA profesional

100 urte... artaxiak egitten!



Lau gunetan antolatutako ekintzak

Irailak 24, egubakoitza

- **22:00** La Basuren kontzertua, Azoka Kultur Gunean

Irailak 25, zapatua

- **19:30** Oñatzen 50. urteurren jaialdia, Zubikoan

Irailak 26, domeka

- **10:30** Artisau azoka, Merkatu plazan eta Azoka Kultur Gunean
- **10:30** Nazioarteko 61. Artzain Txakurren Lehiaketa, Santa Lutzian
- **11:00** Atsolorra: jaiotako haurrei ongietorria Bilkura Aretoan
- **16:30** XII. Mus Txapelketa, Portuko plazan
- **18:00** Haurren danborrada, Zubikoan
- **20:00** Neomak taldearen kontzertua, Azoka Kultura Gunean

Irailak 28, martitzena

- **17:00** Eriz Magoaren *Auskalo* ikuskizuna, Azoka Kultur Gunean
- **22:00** Esti eta Mikel Markezen kontzertua, Azoka Kultur Gunean

Irailak 29, eguaztena

- **09:00** Txistularien goiz-eresia
- **11:00-19:00** Gazteentzako ekintzak, Etxaluzen
- **12:00-14:00/17:00-22:00** Haur Parkea, Etxaluzen
- **13:00** Musika Bandaren kontzertua, Azoka Kultur Gunean

Irailak 30, eguena

- **13:00** Jotak Acordes Navarros taldearekin, Azoka Kultur Gunean
- **20:00** Oskarbi taldearen kontzertua, Azoka Kultur Gunean

Urriak 1, egubakoitza

- **22:00** Travellin Brothersen kontzertua, Azoka Kultur Gunean

Urriak 2, zapatua

- **10:30** Gazta lehiaketa eta dastaketa, Azoka Kultur Gunean
- **13:00** *Ibilian-ibilian* ekimena, Sarek antolatuta, plazan
- **18:00** Herri kirolak, Plazako pilotalekuan

Urriak 3, domeka

- **09:00** Txistulari taldearen goiz-eresia
- **11:00-14:00** Herri kirolak haur parkea
- **13:00** Iñaxio Ibarredoren gidaritzapean Bandaren azken kontzertua, Zubikoan
- **19:30** Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia eta Aitor Tatiegi, Azoka Kultur Gunean

tzeko, eta dagoeneko eskuragarri daude ohiko puntuetan: Txokolateixan, plazako leihatila digitalean eta udal webgunean.

Txosnagunea, martxan

Atzo bertan hasi ziren txosna muntatzen txosnagunean, Irunberri plazan, eta bihar zabalduko dituzte, egitarau zabalarekin. Urriaren 4ra bitartean, musika emanaldiak, jolasak eta ipuin kontaketa zein bazkariak -janaria norberak eramanda- egingo dituzte.

"Dana familixan geaketan da"

Oñatiko primadia izeneko egitaraua antolatu dute aurten, eta, zuzeneko musika emanaldien artean, irailaren 25ean, esaterako, Tribade eta No Name Tiriti taldeen kontzertua egongo da, 21:30ean.

Hilaren 28an, berriz, Distopia elektrotzaranga eta DJ Malandro ikusteko aukera egongo da. Hala ere, urriko lehen astebururako antolatu dituzte ekintza gehienak: Kiki, Koko eta Moko pailazoak, Bidean Erromeria taldearen emanaldia, haurrentzako jolasak, bingo musikatu edo karaokea.

Erasoen aurrean, "zurrin"

Era berean, inolako erasorik onartuko ez dutela zehaztu dute txosna batzordeko ordezkariak, eta horren aurrean "zurrin" jardungo dutela, "txosnetako protokoloa aktibatu eta antolakuntza feminista baliatuz".

'Oñatiko primadia': egitaraua gertu dute

Irailak 25, zapatua

- **12:00** Txosnen irekiera, Irunberri plazan
- **14:30** Bazkaria, nork bere janaria eramanda
- **Ondoren** *Hiltzailearen jolasa*
- **16:30** Kahoot
- **21:00** Tribade + No Name Tiriti
- **Ondoren** DJ Pintxada

Irailak 28, martitzena

- **17:00** Txosnen irekiera
- **18:00** Distopia elektrotzaranga
- **20:00** Pregoia

- **20:30** DJ Malandro
- **00:00** Karaokia

Urriak 1, egubakoitza

- **19:00** Kiki, Koko eta Moko pailazoak
- **21:00** Talka

Urriak 2, zapatua

- **11:00** Txosna irekiera + Txotx!
- **14:30** Bazkaria, norberak eramanda
- **16:00** Jolasak
- **20:00** Erroka + Bidean erromeria
- **Ondoren** Virgin Mary DJ Set

Urriak 3, domeka

- **11:00-14:00** Haurrentzako jolasak
- **12:00** Txosna irekiera
- **14:00** Jolasendako atsedena
- **16:00** Haurrentzako jolasak
- **18:00** Ipuin kontalaria umeentzako
- **19:00** Mentertz eta Ibil Bedi taldeen kontzertuak

Urriak 4, astelehena

- **12:00** Txosnen irekiera
- **14:30** Bazkaria, norberak janaria etxetik eramanda
- **16:00** Bingo musikatu
- **17:00** Dibertsioak



**Gu ere
oñatiarrekin!**

Mekanizazio zerbitzu integralak

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

Gorularien soka ez dadin eten

Pandemiak baldintzatutako 50. urteurrena izan du Oñatz Dantza Taldeak, baina, azkenean, uste baino amaiera "borobilagoa" emateko aukera izango dute; izan ere, bihar, zapatua, 500 lagunengatik aurrean ariko dira 59 dantzari eta 60 kolaboratzaile

Amaia Txintxurreta OÑATI

Uste baino modu gaziagoan ospatu behar izan du Oñatzek bere mende erdia. Pandemiagatik, bertan behera utzi behar izan baitzituzten iazko hilabete guztietarako prestatuta zituzten ekitaldiak. Gero, pixkanaka-pixkanaka egoerak utzi duen heinean, egin dituzte hainbat ekintza, baina orain, hasieran uste baino amaiera "borobilagoa" emateko aukera izango dute. 50. urteurreneko ospakizunei bukaera emango diete bihar, za-

patua, 19:30ean Zubikoan egingo duten ikuskizunarekin.

"Horrelako ekitaldiak gutxitan egiten ditugu; agian, bost urtean behin Oñatin, eta ez askoz gehiago. Azkenean, 500 ikus-entzule izango ditugu, Labi batzordeak joan den astean malgutu zituen neurriengatik, eta, 50. urteurrenen ospakizunak bukatzeko, ikusita iaz gertatutakoa eta zein izan den bilakaera, uste dut garai ona dela bukatzeko", adierazi du taldeko kapitain Mikel Biainek. Taldekideak gogotsu

eta urduritasun puntu batekin daudela aitortu du.

Dantzak protagonista

Oñatzeko 59 dantzarik hartuko dute parte, maiatz erdialdean hasi ziren entseguen talde txikietan, eta prest daude guztia jendaurrean erakusteko. Dantza hauek eskainiko dituzte: agurra, Bizkaiko dantzari dantza, bate-lak eta kaixarranka, dantzara plazara, fandango eta arin-arina, erraldoien dantzak, Gipuzkoako dantzak, suletinoak, gorulari



Oñatzeko bi dantzari entseguan, atzean musikariak eta abeslariak dituztela. I.S.

eta, azkenik, Lizarrako larrain dantza. "45. urteurrena ospatu genuenean, fandango bat eta arin-arin bat izan genituen azken dantza bezala, eta oraingo emandirako erabaki dugu Lizarrako larrain dantza egitea,

azken hori denok batera dantzatzeko", azaldu du kapitainak.

Hainbat kolaboratzaileekin

Dena den, Oñatzeko dantzariak ez dira bakarrik egongo taula gainean. Urte hauetan guztietan



ituziorako hamaika arrazoi

euren bidelagun izan diren hainbat kultur talde ere eurekin izango dira-eta ikuskizunean; hauek, zehazki: Oñatiko Udal Banda, Ganbara Abesbatza, Lizargarate Trikitizale Elkartea, Txinparta Bertso Eskola, Aita Madina Txistulari Taldea eta Arrasateko Dultzaineroak. Biainek esan du hasieratik izan dituztela gogoan: "Ahal zen heinean bai nahi genuen eurekin gogoratu; azkenean, 50 urte hauetan guztietan gurekin presente egon diren taldeak dira eta eurekin ere gogoratu nahi genuen urteurrenari bukaera emango dion ikuskizunean".

Txinpartakoe, esaterako, aurkezle edo gidari lanak egingo dituzte ekitaldian; txistulariek, Udal Bandakoe eta Lizargarate Trikitizale Elkartekoe hainbat kantu joko dituzte; Arrasateko gaiteroek, berriz, erraldoiak protagonista izango diren momentua girotuko dute, bukarako larrain dantzaz gain; eta Ganbara Abesbatzakoe, agurrean, dantzara plazara abestian eta Gipuzkoako dantzetan hartuko dute parte. "Gipuzkoako zikloaren barruan, esaterako,

Zergatik hartuko duzue parte Oñatzen ekitaldian?



ISABEL MALLORQUIN
OÑATIKO UDAL BANDA

"Ekitaldi historikoa da, eta ideia ona litzateke 50 urte gehiago itxaron gabe horrelako ekitaldiak egin ahal izatea. Euskal kultura eta folklorea oso modu original eta politean transmititzen dute guretzat".



OIHANA DIAZ GANBARA ABESBATZA

"Herriko kulturaren parte garelako eta oso gertuko eragile sentitzen dugulako. 50 urte ez dira egunero betetzen, eta, zorionak emanaz, erreferente den taldearen ikuskizunean osagarri izan nahi dugu".




AITOR MADINA AITA MADINA TXISTULARI TALDEA

"Oñatzen jardueran txistulariak bidelagun izan garelako. Euskal folklorea dantzaren bitartez ezagutzera ematen duen kultur talde oñatiarra da, eta txistularien jardueraren ardatz nagusietako bat".



GARAZI BILLAR LIZARGARATE TRIKITIZALE ELKARTEA

"Gure jaialdian ere izan ziren Oñatzeakoak. Guretzako oso aberasgarria da herriko beste taldeekin elkarlanean aritzea. Herriarren elkarlana, herriko kultura eta herria bera bizirik mantentzeko ezinbestekoa da".



URKO ARREGI TXINPARTA BERTSO ESKOLA

"Gure ekintzetan erantzun bat izatea eta ahalik eta jende gehien laguntza nahi izaten dugun moduan, guk ere lagundu egin behar dugula uste dut. Eltziaikide izateaz gain, oso ondo egiten dute euren lana".

bi dantza egingo ditugu: arku dantza eta upelategi. Orain dela bost bat urte Durangon egin genuen ekitaldi baten, hango txistulari eta bandaz gain, Ganbarakoe ere hartu zuten parte. Polita eta desberdina iruditu zitzaigun, eta berreskuratzea pentsatu dugu", esan du Biainek.

Esker hitzak herritarrendako

"Jendearen babesak presioa eragin digu, baina presio pozgarria, jendea gu ikusteko prest dagoelako. Egiten dugun lanari balioa ematera etorriko dira, ea gero ikuskizuna euren gustukoa den", adierazi du kapitainak. Eta gaineratu du lanean jarraituko dutela: "Jaien ostean, 350 ume ingururi dantzak irakasten jarraituko dugu, eta guk, gure entseguekin".

Goiena telebistan zuzenean

Salgai jarritako sarrerak agortuta daude, baina bihar leihatilari egongo dira bakarren batzuk salgai. Goiena telebistak zuzenean eskainiko du saioa, baita *Goiena.eus*-ek ere. Errepikapenak telebistan: bihar 23:30ean eta etzi 13:30ean eta 21:30ean.

Gualbi
aholkularitza

Gu ere oñatiarrekin!

ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOAKULARITZA
ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Martitzen arratsaldean Eltzian egindako entseguan. M.R.

Umeen danborrada etzi, ezohiko eran bada ere

Zubikoa kiroldegiko kantxa berdean izango da umeen danborrada domekan, 18:00etan. Ez da zaldirik edo karrozarik egongo eta musika bandako kideak izango dituzte ondoan. Sei pieza joko dituzte eta ordubete inguruko emanaldia izango da

Oihana Elortza OÑATI

Kopuru, formatu eta espazio aldaketekin, baina umeen danborrada egongo da aurten. Domekan izango da, irailaren 26an, 18:00etan, Zubikoa kiroldegian. Hango kantxa berdean egongo dute, egungo neurri eta arau guztiak jarraituta.

Zaldirik eta karrozarik ez

Geldirik joko dute danborra umeek kiroldegian, herriko kaleetan zehar jo ordez. Eta horixe izango da, agian, izango duen aldaketa handiena. Baina nahiz eta formatua beste bat izan, danborrada antolatzeko prest agertu zen 2019koa antolatu zuen herritarren talde bera, eta horrela adierazi zuten jai batzordean. Umeak ere animatu direla ikusita, pozik daude hartutako erabakiarekin.

Formatu aldetik, pandemia aurreko danborradetan baino ume gutxiagok hartuko dute parte: 63k -150 inguru izan ohi dira-. Eta konpartsetako kideak izango dira denak. Hau da, ez da ez zaldirik, ez karrozarik ezta elkarte gastronomikoetako banderarik egongo. Danbor jotzaileen

ondoan musika bandako kideak egongo dira. Aldaketa horien kontrara, arropa berriak jantzi-ko dituzte kantinerak eta zuzendari batzuek; txano batzuk ere berriak izango dira.

Ordubeteko iraupena

Danborrada 18:00etan hasiko da, baina parte hartuko duten umeak 17:00etarako joango dira kiroldegira. Antolatzaileak goizean joango dira kantxa berdera, umeak sartu orduko dena prest egon dadin gauza bakoitza bere tokian jartzea. Ikusleak -lau gonbidapen eman dizkiote ume bakoitzari- 17:30ean sartuko dira eta harmailetatik ikusiko dute. Ordubete inguru iraungo du eta sei pieza joko dituzte umeek. Asmoa da ibilbidetxo bat eginaz sartzea kantxa berdera eta modu berean irtetea amaitu eta gero.

Irailaren hasieran hasi ziren entseguan. Eltzian egin dituzte, bi txandatan banatuta eta taldeka. Han ere egoera pandemiakoak eskatzen dituen neurriak hartuta aritu dira, eta gauza bera egongo dute domekako ikuskizunean.



egaralur

Construcciones | Eraikuntza Lanak

50
años-urte
1967 | 2017

- Eraikuntza lanak
- Industria-naberen eraikuntza
- Obra Zibila - Urbanizazioak
- Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- Etxebizitzaren eraikuntza

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62 • www.egaralur.net



XANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20, Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54
Julen Uribeetxeberria - 699 34 89 47
txantxiku@telefonica.net



Gu ere oñatiarrekin!

Jolasak umeentzako eskaintzaren barruan

Magia ikuskizuna, pailazoak, puzgarrien jolas parkea, ipuin kontaketa saioa eta era askotako jolasak egongo dira, besteak beste, umeendako. Jolas saioetako batzuk txosnagunean egingo dituzte, Haur eta Guraso Asanbladak proposatuta

Oihana Elortza OÑATI

Jolas egiteko eta kultura ikuskizunez gozatzeko hainbat eskaintza izango dituzte txikienek aurtengo San Migel eta Erro-saio egunen bueltan. Jaien orde z antolatutako eskaintza kulturean magia ikuskizunak, ipuin kontaketa eta era asko askotako jolasak daude jasota, esate baterako. Baita haurren parkea ere.

Jolasetarako hainbat gune

Horietako jolas batzuk urriaren 3an, Erro-saio egunean, egingo dituzte, Irunberri plazan muntatu duten txosnagunean. Izan ere, umei zuzendutako ekintzak



Kiki, Koko eta Moko pailazoak. GOIENA

ere jaso dituzte txosna batzordeak egin duen *Oñatiko primadia* izeneko egitarauan.

Haurren eta Gurasoen Asanbladatik etorri zen horretarako proposamena, "egitaraua aberastuz", asanbladako kideek dioten moduan. Hala, jolasak ez ezingo dira, pailazoen ikuskizun bat eta ipuin kontaketa saio bat ere egongo dira umeendako datozen egunetan. Urriaren 1ean datoz Kiki, Koko eta Moko, 19:00etan, txosnagunean, eta ipuin kontaketa saioa urriaren 3an egingo dute, jolasekin batera.

Jolasetarako, hainbat gune edo espazio prestatuko dituzte Irunberri plazan urriaren 3an, eta gune bakoitzean jolas ezberdinak egongo dira. Haurren eta Gurasoen Asanbladako kideek eramango dute materiala eta prestatuko dituzte txokoak, baina jolasean ibiliko diren umeak euren gurasoen zaintza pean ibiliko dira. Jolasetako batzuk bakarka aritzekoak izango dira, eta taldeka beste batzuk, baina jolas libreak nagusituko dira. Asanbladako kideek eskerrak eman gura dizkiete, bide batez, jolasak prestatzeko laguntza eta

materiala eman dieten herritarrei. Egun horretan, urriaren 3an, goizetik iluntzera arte egingo dira umeendako jolas edo ekintzak Irunberri plazan; txosnetako txandak Asanbladako kideek egingo dituzte.

Umeendako, herri kirolak

Herri kirolei lotutako jolasak ere egongo dira, bestalde, umeendako. Egun berean izango dira, baina plaza ondoko frontoian –edo Azoka Kultura Gunean, eguraldi txarra egiten badu–, 11:00etatik 14:00etara.

Horrez gain, pandemia aurretik bezala, haur parkea ere egongo da aurtan. Etxaluzeko parkean jarriko dituzte puzgarriak eta bestelako elementu batzuk, haurren gozamenarako. Eguaztenean muntatuko dituzte, San Migel egunean, eta egun osoz egongo dira erabilgarri: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Egun horretan eguraldi txarra egiten badu, Zubikoa kiroldegian muntatuko dute jolas parkea, Etxaluzen egin ordez.

Barrakarik ez da egongo, horiek ekartzeko aukera aztertzen ibili baziren ere.

Amets Berezaio

Berezaio

Gu ere oñatiarrekin!

SALMENTA
(berriak eta bigarren eskukoak)

**KONPONKETA
MEKANIKOAK**

TXAPA ETAPINTURA

Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

**ASEGURU AHOLKULARITZA
ESPEZIALIZATUA**

Gertuko zerbitzua momentu zailetan

*Arduraz eta alaitasunez
gozatu egun hauetaz!!*

688 774 531 - WHATSAPP 943 089 006
OINATI@COINBROKER.EUS WWW.COINBROKER.EUS
ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA, 20560 OÑATI

Migel Arregi ere lehian dela jokatu da Artzain Txakurren Txapelketa

Antolakuntzak erabaki du parte-hartzaileetako bat herrikoa izatea domekan –10:30–, eta 'Azpilleta'-ri eman dio aukera; gos d'atura arraza katalaneko txakur bat ere izango da nobedade, aurten Frantziako ordezkari izango ez duen txapelketan

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI
Iaz egiterik eduki ez ostean, bueltan da aurten Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa; 61. aldia izango du, eta Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako txakurrik onenak ariko dira lehian. Egoera aztertuta, euskal herrialdeetako txapelketak martxan jartzea erabaki zuten orain zenbait hilabete, eta, ohi bezala, horien eta horietako txakur hoberenek jakatu ohi duten Euskal Herriko txapelketaren –aurreko asteburuan izan zen, Bizkaiko Garainsegida izango da Oñatikoa.

Pandemiaren eraginez zenbait aldaketa izango dira aurtengo txapelketan, urteetan antolakuntzan diharduen eta gaur egun Euskal Herriko artzain txakurren txapelketen antolatzailen Elkartearen (EHATE)

presidentea ere baden Joxe Mari Bengoaren esanetan; adibidez, txapelketaren gunera sarrera libre izango da –ez da ordaindu behar–. Baina egin egiteko arazorik ez zuten ikusi: "Eremu zabalean denez, jendearentzako arazorik ez dagoenez...". Ohiko neurriak errespetatzea eta arduraz jokatzeko, horixe eskatzen du antolakuntzak.

Hamahiru parte-hartzaile

Biarnoko Aramitzeko ordezkari ez da izango aurten txapelketan, eta gehiago izango dira Gorbeiaiko euskal artzain txakurrak, Hegoaldeko herrialdeetako lau txapelkunekin batera –Jabier Zubiaurreren *Mendi*, Gipuzkoako; Karlos Ardanzaren *Mendi*, Bizkaiko; Axier Bolivarren *Kobi*, Arabako; eta Jorge Oteizaren *Lagun*, Nafarroa-

koa–, Euskal Herriko txapelketako sailkapeneko bertako arrazako lehen bi txakurrak ere gonbidatu baitituzte aurten, Fidel Alonso arabarraren *Bat* –Euskal Herrikoan, hirugarren– eta Aitor Tato gipuzkoarraren *Nabar* –laugarren, Garain–: "Bestela, border collie asko izaten ziren, eta geure arraza bulztatu nahi dugu".

Eta bertako arrazako txakur haiei gehitu behar zaie Migel Arregi *Azpilleta* oñatiarraren *Lagun*. Izan ere, aurten ere herriko ordezkari bat izango da lehiakideen artean, baina ez aurreko urteetan bezala Gipuzkoako txapelketa irabazita sailkatuta –2019an ez, baina aurreko lauretan hala lortu zuen txartela Joxe Mari Bengoak berak–, gonbidapen bitartez baizik: "Urteetan esaten ziguten zergatik ez

Malagatik txakur txapelketetara

27 urte ditu, eta Ingurumen ikasketak; Mari Carmen Giraldo betidanik gustatzen zaizkio animaliak, eta, zehazki, txakurrak: Andaluziako podenco arrazaren babeserako elkarte batean ere badihardu. Gomiztegiko ikastaro baten bidez izan zuen lehen harremana Oñatirekin, eta, interesa sortuta, hango artzain eskolan ikasle izan zen aurreko ikasturtean. Horrela ezagutu zuen Joxe Mari Bengoa ere. Gaur egun, Gopegin bizi da, abeltzaintzako kooperatiba baten egiten du lan, eta Oñatiko artzain Nestor Altzelairekin ere bai, gazta saltzen. Gustuko ditu artzain txakur txapelketak, eta ez dio muzin egiten Oñatikoren antolakuntzan Bengoari lekukoa hartzeari: "Joxe Mari lagunduko lidake, eta bai, prest nago".



Mari Carmen Giraldo. GOIENA

Lehiakideak

Gilles Etxegoien	Gaua	Naf.Be.
Roger Jauretze	Ximist	Naf.Be.
Jorge Oteiza	Lagun	Naf.
Karlos Ardanza	Mendi	Bizk.
Axier Bolivar	Kobi	Araba
Jabier Zubiaurre	Mendi	Gip.
M.Atxeritogarai	Izar	Naf.Be.
Fidel Alonso	Bat	Araba
Hilari Novillo	Beyon	Kat.
Miguel Adrover	Xeco	Mall.
Juli Bayot	Saüc	Cast.
Migel Arregi	Lagun	Gip.
Aitor Tato	Nabar	Gip.

Palmaresa

G.Etxegoien	Gaua	2019
G.Etxegoien	Gaua	2018
G.Etxegoien	Gaua	2017
Marcel Uhalde	Etxe	2016
G.Etxegoien	Gaua	2015
E.Mendiguren	Riki	2014
Jean Paul Irikin	Xintxo	2013
A.Alustiza	Ttiki	2012
A.Alustiza	Ttiki	2011
A.Alustiza	Ttiki	2010
J.Mari Jauregi	Bizkor	2009
J.Mari Jauregi	Bizkor	2008
J.Mari Jauregi	Bizkor	2007

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharririk izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M² del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20



2019ko edizioaren irudi bat. IMANOL SORIANO

ote genuen, estropadetan moduan, herriko ordezkari bat sartzen. Aramitzeko ordezkariaren hutsunea aprobeztatuz, Oñatikoa sartu dugu". Urteetan hor diharduen Azpilletarentzat aitortza edo sari moduko bat ere bada; hala ere, ez dute zehaztu urteroko kontua izango ote den txapelketara herriko artzain bat gonbidatzearena.

Horiekin batera, lehia ariko dira Iparraldeko hiru ordezkari, denak baxenabartarrak –eta denak border collie arrazako txakurrekin–: Gilles Etxegoien *Gaua*, Oñatin txapeldun 2019an; Mitxele Atxeritogarainen *Izar*,

Iparraldeko txapelduna; eta Roger Jauretxeren *Ximist*, Iparraldeko bigarrena eta Euskal Herriko txapelduna.

Parte-hartzaile zerrenda osatuz, azkenik, Herrialde Katalanetako ordezkariak: Bartzelonako Hilari Novilloren *Beyon* eta Mallorcako Miguel Adroverren *Xeco* –border collieak– eta Castelloko

KATALUNIAKO ARTZAIN TXAKURRA TXAKUR INDARTSUA DA, EGOKIA ARTALDE HANDIETARAKO

Juli Bayoten *Saiuc*, Oñatin aspaldi ikusi gabeko gos d'atura arraza katalanekoa: "Artalde handirako txakur ona da, indartsua, lasaiagoa lanean. Baina gurea moduko txapelketetarako behar den bizkortasunik ez du. Hala ere, Bayoti proposatu nion harekin etortzeko, tokian tokiko arrazak bultzatzearen, eta onartu egin zuen".

Azken bost edizioetan Iparraldekoak izan dira nagusi Santalutziako zelaian. Aurten ere kontuan hartu beharrekoak izango dira txapela lautuan irabazi duen *Gaua* eta *Ximist*, Euskal Herriko txapelduna.

"Duela 50 urte ere hantxe nengoen txapelketan parte hartzen"

MIGEL ARREGI ARTZAINA

Mende erdi geroago, Oñatiko txapelketan lehiatuko da.

Nola jaso zenuen berria?

Sorpresa izan zen. Txapelketara etorri ohi den bat aurten ez zela etorriko eta herriko bat sartu nahi izan zuen Joxe Mari Bengoak. Elkartearen proposatu zuen, eta aurrera egin du.

Eta, pozik?

Bai, bai. Gustatzen zaigu, eta halako notiziak ez dira gaizki etortzen. Aurten, justu, 50 urte direla ere hantxe nengoen parte hartzen. Bi aldiz hartu nuen parte, Gipuzkoako Txapelketa eta Euskal Herriko, biak, irabazita. Gero, utzita eduki nituen txapelketak, lan kontuengatik eta. Baina, ardiak eta txakurrak beti izan ditudanez, Bengoak nahi izaten zuen ni berriro parte hartzen hastea, eta bere bitartez halaxe hasi nintzen, eta urte hauetan hortxe ibiltzen gara saltsan.

Eta duela 50 urteko haien ze oroitzen dituzu?

Oroitzen dituzte. Orduan, agian, 3.000 pertsona egongo ziren begira. Gogoratzen dut, aurretik, txapelketa Soraluze azpian egiten zenean, 5.000 lagun-eta izaten zirela. Orduan ez zegoen autorik; trena eta autobusak, eta ez dakit nondik agertzen zen hainbeste jende. Orain egiten den lekuan ere 3.000 lagun-eta elkartzen ziren urte guztietan. Baina, apurka-apurka, behera joan da. Orduan ez zen hainbeste kirol-eta egoten, eta urtean behingo gauza polit hori oso estimatua zen. Dena dela, aurrekoan, Euskal Herriko Txapelketan ikaragarrizko jende pila egon zen, harrituta geratu nintzen.

Domekan ze asmorekin joango zara?

Ahaleginduko naiz, eta, suerte apur bat izanez gero, ea zerbait egiten dudun. Txakur ona da *Lagun*, etxeko lanean oso ona. Txapelketa beste gauza bat da, baina saiaturako gara. Lan ona eginez gero, gustura geratuko naiz.



IMANOL SORIANO

ULMA

Estimatu QR kodea
60 urteko konpromisoa
eta lanaldetza!



Gu ere oñatiarrekin!



60 URTEZ ELKAR HARTUTA





Jone Olabarria OÑATI

"Aurten, bigarren urtez, ez dira jaiak antolatuko. Nola bizi duzu egoera?". Hori izan da aurtengo kartela sortzeko orduan Udalak herritarrei helarazi dien galdera. Hala, jairik ez, baina datozen egunetarako prestatu duten egitaraua iragartzeko diseinu posibleak gertu daude, eta, zailtzarrik gabe, pandemiaren eragina nabaria da.

Bozketa bidez –atzora arte– izan dute herritarrek gustukoaren aldeko botoa emateko aukera. Guztira zortzi dira aurtengo hautagaiak, guztiak jaietako ikurra izan ohi den txantxikua-ren presentziarekin eta COVID-19ak herritarren egunerokora ekarri dituenekin.

Jairik ez den erakusgarri

Aurtengo lehiaketara aurkeztu diren diseinuei erreparatuta, egunerokoan txertatu diren objektu eta hitz berriek pisu handia hartu dutela azaldu du Iñaki Olalde, Kultura zinegotziak: "Irudi gehienetan musukoaren presentzia dago, bizi dugun egoera dela-eta, eta *Jaiak* hitza marratuta ageri da, tatxatuta".



Zortzi diseinu kartel irabazlea izateko lehian

Jai nagusiak ez dira ospatuko bigarren urtez jarraian, eta egoera hori nola bizi duten jaso dute artistek karteletan. Atzora arte egon zen online botoa emateko aukera, aurkeztu diren zortzi kartelen artean diseinu gustukoena aukeratzeko

Iazkoarekin alderatuta, baina, aldaketa igarri dutela azaldu dute: "Diseinuek helarazten dituzten mezuei dagokienez, bai, esan daiteke positiboagoak direla, bidea amaitzen ote doan erakusle moduan edo...".

300 boto inguru

Parte hartzeari dagokionez, atzora arte egon zen botoa emateko aukera online bidez. Herritarren erantzunaz galdetuta, Olalde adierazi du eguaztenera arte 300 lagun inguruk emana zutela dagoeneko gustukoaren aldeko botoa.

Diseinu irabazlearen egileak, Oñatiko ez-jaiak iragartzeaz gain, 500 euroko saria eskuratuko du.

Iaz, azokan ikusgai

2020ko aldian ere zortzi lan aurkeztu zituzten lehiaketara, eta, aurten moduan, online botoa emanda aukeratu zuten irabazlea. Artisauen azokan ikusgai egon ziren lanak, eta orduan, Sophia Moralesek eta Xanti Ugartek egindako diseinuak jaso zituen boto gehien: zehazki, 497.



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortxo proiektatua eta xafla termikoak.
- Galderen aldizkako azterketak.

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Finantzatzeko aukera onak!

Gu ere oñatiarrekin!

943 71 82 49 - 943 75 16 46
Sagar Erreka 2, behea (Soraluze)
fogasleriturgintza@gmail.com



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK



Aholkularitza fiskala

Lan aholkularitza

Kontabilitatea

Zerga aitortpena

Gu ere oñatiarrekin!

Errementari plaza 2-3 behea • OÑATI

Azken bi urteetan jaiotako 140 oñatiarri omenaldia

COVID-19a tarteko iaz ez zuten Atsolorra egin, eta, hortaz, 2019ko San Migel jaien ostean jaiotako oñatiar txikiek ez zuten ongietorri ekitaldirik izan. Hala, ordutik eta gaur egunera arte jaiotakoei jarriko diete udal ordezkariak zapia, berezia aurten



Izaro Elorza alkatea, hurrei zapia jartzen 2019. urteko sanmigeletan egindako azken omenaldian. GOIENA

Jone Olabarria OÑATI

2019ko sanmigeletatik gaur egun arte jaiotako haur oñatiarrek ongietorri ekitaldia izango dute domekan, udaletxe oso bilkuren aretoan. Guztira, 140 inguru dira azken bi urteetan jaiotako haurrak, eta denek batera jasoko dute zapia, pandemiaren ondorioz iazko omenaldia bertan behera geratu ostean.

Neurri bereziak hartuta

Atsolorra izenez ezaguna den ohiturarekin, alkateak eta zinegotziek egingo diete harrera txikienei, eta ume bakoitzak bi guraso, tutore, familiarrekin edo ordezkariarekin igo ahal izango da. COVID-19a dela-eta, talde txikietan egingo dute omenaldi ekitaldia, eta, Iñaki Olalde Kultura zinegotziak azaldu duenez, ohiko neurriak jarraituko dituzte: "Dagoeneko ohiko bilakatu diren gela eta musukoa derrigorrezkoak izango dira, distantziak errespetatu egin behar dira eta talde txikietan gerturatu beharko dute". Normalean baino haur gehiago izateaz gain, berrikuntzekin dator aurtengoa.

Haurrentzako zapi berezia

Jaiotako zapia jantzita egin izan zaie azken urteetan oñatiar txikiei ongietorria, baina aurten, ohitura hori mantentzearen aldeko apustua egin duten arren, berrikuntza bat gehitu eta tradizioa umeen beharretara moldatu dutela azaldu du Olalde: "Aurten, propio diseinatu dugu ekitaldirako, eta bi funtzio izango ditu: atzeko alderantz zapi bat izango da eta aurrerantz jarrita umeendako adur-zapi funtzioa hartzen du".

Aspalditik datorren ohitura

Euskaldunen jaiotza erritua zen Atsolorra, eta Elizaren bataioen etorrerarekin beherakada izan zuen ohitura horrek, baina mantendu egin zuten, gehienbat, baserri giroan.

Oñatiko Udalak 2014. urtean berreskuratu zuen antzinako tradizioa, eta "herriak jaioberriei oñatiar berri moduan ongietorria egiteko modua" irudikatzen duela zehaztu du Udalak. Azken urteei erreparatuta, familien aldetik ere, oro har, "oso harre-ona" duen ekitaldia izan ohi da Atsolorra.



GU ERE OÑATIARREKIN!



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

•**NORENTZAKO:**
Haurrentzat,
gaztetxoentzat
eta helduentzat

•**NOIZ:**
Goizean, eguerdian,
arratsaldean eta
iluntzean

•**ZER:**
Oinarriko ezagutza,
trebakuntza,
laguntza eta
azterketa ofizialetrako
prestakuntza

Maite Aiaztui Kortabarria



Zatozte!
informazioa
jasotzera eta zuen
beharrak zeintzuk
diren azaltzera

www.Asgoiena.com

Arantzazuko Ama, 3 behea

943 53 36 57-685 986 003

Agurra, azken kontzertuan

Oñatiko Musika Bandako zuzendari moduan azken kontzertua eskainiko du Iñaxio Ibarrondok, Errosaixo Egunean. 42 urteren ostean, Aitor Biainek hartuko du haren lekukoa, eta batuta eskuan lehen kontzertua azaroan izango dela aurreikusten du

Maialen Santos OÑATI

Oñatiko Musika Banda zuzentzen egindako 42 urteko ibilbide luzeari agur esango dio Iñaxio Ibarrondok Errosaixo Egunean, urriaren 3an, Zubikoa kiroldegian eskainiko duten kontzertuan. Egutegian markatutako emanaldia da hori, eta oñatiarrekin izango duen azken zitarako apropos aukeratu ditu joko dituzten piezak, Ibarrondok aitortu duenez: "Pare bat kantu nostalgiko eskainiko ditugu, eta aitak sortutako Oñatiko ereser-

kia entzuteko aukera ere izango da, besteak beste". Hori gutxi balitz, aurreratu du emanaldiaren amaieran hitz batzuk eskainiko dizkiela oñatiarrei, eta azken urteetan zendu diren bandako kide ohiak ere izango dituzte gogoan.

Gaur-gaurkoz, musikari eguneroko eskaintzen dio tartea Ibarrondok, eta aurrerantzean ere horri estuki lotuta segituko du, besteak beste, Parrokiako Abesbatzako zuzendari izaten jarraituko duelako, orain arte moduan.

Edozelan ere, bandako kargua utzita "beste zaletasun batzuetarako" denbora gehiago izango duela uste du; "tardean, paseatzeko edo irakurtzeko".

Erreleboa, Biainek

Aitor Biainek hartuko du Ibarrondoren erreleboa -besteak beste, Ganbara Abesbatzako zuzendaria da-, eta "erronka handia" izango dela aitortu du. Azken 22 urteetan bandako kide izan da Biain -klarinetea jotzen du-, eta, beraz, aspalditik eza-

gutzen du aurrerantzean gidatuko duen taldea.

Datozen egunetako kontzertuen ostean ekingo dio lanari; zehazki, ez-jaien osteko entseguetan hasiko baitu ibilbide berria. Zuzendari moduan eskainiko duen lehen kontzertuari buruz galdetuta, adierazi du aurreikuspenen arabera azaroan izango dela, Santa Zezilia egunaren bueltan: "Datorren urteko egutegia, gutxi gorabehera, itxi dugu Udalarekin. Lehen, saiatzen ginen hilean kontzertu bat eskaintzen, eta horrek hala izaten jarrai dezan gura dugu". Horretaz gain, Banda Gaztea ere sortu dute Musika Bandak eta Musika Eskolak elkarlanean, eta hogeitabat musikari gazterekin dagoeneko lanean hasita dago zuzendari berria: "Musika Eskola guretzat garrantzitsua da, jendea bertatik iristen delako gugana".

Taldera egokitzea lehentasun

Edozein modutan ere, taldera egokitzea izango du Biainek zeregin nagusi hasieran: "Elkar ezagutzen dugu, baina bandako kideek nire lan egiteko era ere ezagutu beharko dute, eta baita

nik euretako bakoitza ere. Hala, elkar ezagutzeko urtea izango da honako hau, eta herriari kontzertuak eskaintzekoa". Are gehiago, aitortu du "proiektua sendotzeko" asmoa dutela, eta baita "publiko zabalago baten gana" iristekoa ere. Egingo dituzten urratsetan pandemiaren eboluzioak izango du zeresanik; izan ere, osasun krisiak baldintzatuta ari dira oraindik ere, eta edukierari lotutako zailtasunak dituzte entseatu zein kontzertuak eskaintzeko: "Unean unera egokituz joango gara".

Abesbatza eta banda zuzentzeko orduan egon daitezkeen desberdintasunei buruz galdetuta, zera esan du: "Esango nuke bandan ari direnek musika ezagutza badutela; denek dutela maila jakin bat, alegia. Ez dira hutsetik hasten. Abesteko orduan, aldiz, denetarik dago; badago

"DATORREN URTEKO CORPUSETAN, 80 URTE BETETZEAN, UTZI GURA NUEN"

IÑAXIO IBARRONDO



TXOPEKUA

jatekxoa / sagardotegia

Gu ere oñatiarrekin!!!

Tel. 943 78 05 71 • Urbarri 5, Arantzazu bidea • 20560 Oñati





LIZARRALDE

KIROLAK

Gu ere oñatiarrekin!



<p>ARRASATE Foruen Enparantza • San Andres auzoa Tel.: 943 79 91 47</p>	<p>OÑATI Olakua 16 Tel.: 943 78 29 86</p>	<p>LEGAZPI Patrizio Etxebarria 2 Tel.: 943 08 28 46</p>
--	--	--



Ibarrondo, ezkerrean, batuta Biaini pasatzen, martitzenean. XABIER URZELAI

jakintza gehiago zein gutxiago duen jendea". Eta gehitu du esperientzia berria izango duela honako hau: "Orkestra eta abesbatza ezberdinetan zuzendari lanetan aritu izan naiz azken urteetan, baina egia da talde

instrumental bat gidatuko dudan lehen aldia izango dela".

Txikitatik musikari eskainia

"Alfabetoa baino arinago" ikasi zituen notak Ibarrondok, eta 6 urterekin dagoeneko herriko

bandan danborra jotzen zuen. "Sasoi hartan, aita zen bandako zuzendaria, eta aitona ere bandako kide zen", azaldu du. Eta gaineratu: "Jendeak ez zuen sinesten danborra jotzeko gai nintzenik". Gerora, beste hain-

bat herritako bandan aritu zen; tartean, Bergarakoan eta Arrasatekoan. "Sekula ez nuen pentsatuko bizimodua musikatik egin ahal izango nuenik", dio.

Biainek ere gogoratu ditu musika bandan izandako hastapenak: "Gogoan dut bospasei gazte hasi ginela elkarrekin, eta entseguetara gainontzekoak baino lehenxeago etortzen ginen, Iñaxiorekin ikastera". Hasierako egunetan pixka bat ikaratu zela ere aitortu du: "Uste genuen bagenekiela instrumentua jotzen, baina konturatu ginen guk uste baino gehiago genuela ikasteko. Hala, etxean ere aritzen ginen entseatzen". Horri lotuta, Ibarrondok aitortu du Biain bandan hasi zenerako bazekiela nola jotzen zuen klarineta: "Haren etxe azpitik pasatzen nintzenez entzuten nuen entseatzen".

Gura baino arinago

"Datorren urteko corpusetan, 80 urte betetzean, gura nion zuzendari izateari utzi, baina faktore ezberdinak tarteko orain uzteko erabakia hartu nuen", azaldu du Iñaxio Ibarrondok. Pandemia aurretik egin zieten

zuzendari kargua hartzeko proposamena Aitor Biaini, eta "hizketan" aritu dira azken hilabeteetan, batuta hartzeko txanda iritsi zaion arte.

Banda zuzentzeko ikasketak eginak ditu Biainek, nahiz eta, haren hitzetan, "eskolarik handiena bandan bertan Iñaxioren gidaritzapean jardutea izan den". Hori horrela, aurrerantzean, hark utzitakoari "jarraipena ematen" saiatuko da, "esentzia mantenduz eta, era berean, ukitu propioa emanaz". Ibarrondok, berriz, ez du zuzendari berriari emateko "gomendio zehatzik", uste baitu esku onetan uzten duela taldea.

"Taldea nola eraman duen miresten diot Iñaxiori", esan du Biainek. "Esker hitzak besterik ez dut berarentzat, egindako guztia eta izandako dedikazioa izugarria izan da", aitortu du.

"BANDAREN ESENTZIA MANTENDUKO DUT, ERA BEREAN, UKITU PROPIOA EMANAZ"

AITOR BIAIN

MENDI
ZABAL
SENDAGILEA

#PS:135/18

▲ **M^a Angeles Mendizabal**

H ● **AHO SENDAGILEA**

Implantologia
konbentzionala eta gidatua

Odontologia estetikoa

Periodontzia

Leire Errasti

Odontologia orokorra

Ortodontzia

Gu ere oñatiarrekin!

Arantzazuko Ama 2C-behea • 20560 Oñati
Tel.: 943 71 60 71 • mendikorta@outlook.com

Gu ere oñatiarrekin!

Tenceria
Kuttun

Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44 OÑATI

Askotariko musika doinuak

Estiloari eta generoari dagokionez eskaintza orekatua osatu dute bai Udalak eta baita txosna batzordeak ere. Nabarmendu behar da iazko hutsunearen ondoren aurrean indarberrituta datorrela Dibertsioak ekimena: zortzi talde igoko dira agertokira

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI
Kultura eskaintza zabala prestatu dute San Migel eta Erro-saixo jaietarako Oñatin. Eskaintza horren barruan leku berezia izango dute zuzeneko musika emanaldiek. Azoka Kultura Gunean eta Irunberri plazan izango dira musika kontzertu gehienak; Oñatiko Udal Bandak pilotalekuan egingo du emanaldia (Ikus informazioa 32 eta 33. orrietan). Osasun egoerara egokitutako eskaintza izango da; hori horrela, Azoka Kultura

Guneko emanaldietarako sarre-rak aurrez hartu beharko dira, eta txosnagunean ez da sarre-rarik beharko, baina edukiera mugatua izango du tokiak. Emanaldi guztiak eserita entzun beharrekoak izango dira.

Eskaintza orekatua

Udaleko Kultura zinegotzi Iñaki Olalde dio eskaintza orekatua osatzen saiatu direla: orekatua bai estilo aldetik eta baita genero aldetik ere. "Gainera, hizkuntzari ere begiratzen diogu

eta lehentasuna euskal taldeek izaten dute. Hala ere, osatu dugun eskaintzan gazteleraz edo ingelesez ere abesten dute".

Gaur, egubakoitza, La Basu bakarlariak hasiko du zuzeneko musika eskaintza. Etxebarriko rap abeslaria aitzindaria da Euskal Herriko raparen historian: 90eko hamarkadan hasi zen raparen munduan eta ordutik hainbat proiektutan parte hartu du. Emakume bati emakume talde batek hartuko dio lekukoa, baina bestelako

Kataluniatik Oñatira

Bartzelonatik rap doinuak ekarriko ditu Tribade taldeak. MCs Bittah-k, Masiva Lulla-k eta DJ BigMark-ek osatzen dute taldea. Bartzelona olinpiarra eta *cool*-a alde batera utzi eta "benetako Bartzelona" erakutsi nahi dute euren abestietan, langile klasearen Bartzelona.

Horrez gain, berdintasunaren aldeko aldarria ere egiten dute. XXI. mendeko bi emakumeren borroka erakusten dute, gizarte erabat maskulinoan murgilduta. Gainera, isilarazitako hainbat borrokaren alde egiten dute euren raparekin: besteak beste, tokiko eta auzoetako borrokak, LGTBI mugimendua eta mugimendu antifaxista. Euren musikan flamenko, soul, afrotrap eta reggaeton doinuak entzun daitezke. Emanaldia bihar, irailaren 25a, izango da, 21:30ean, txosnagunean. No Name Tiriti taldea eta DJ Malandro ere igoko dira taula gainera.



doinuekin: Neomak taldeak trikitia eroango du Azoka Kultura Gunera. Trikitia, txintxarrik gabeko panderoak, perkusio instrumentu bitxiak eta ahots ederra dituzte taldeko zazpi kideek.

San Migel egunaren bezperan, Esti eta Mikel Markez aita alaben txanda izango da. 2020an argitaratutako *Azal berritzen* laneko abestiak eskainiko dituzte. Diskoaren aurkezpen biran, Arkaitz Miner eta Julen Alonso

Gu ere oñatiarrekín!



Aker • Amets
Garoa • Helmuga
Ongi • Txopekua
Urtiagain



Oskarbi taldea oholatza gainean. ARTXIBOKO IRUDIA

musikarien laguntza izango dute; hala, laukotea osatuko dute.

San Migel egunean, aurkezpenik behar ez duen El Drogas iruindarra izango da zuzenekoa eskaintzen. San Migel Bixamon egunean, aldiz, azken urte lu-


zeetako ohitura jarraituz, Nafarroako jotak entzungo dira: Acordes Navarros taldeak emanaldia egingo du, 13:00etan. Iluntzean, aldiz, euskal musikaren ikur diren eta adin batetik aurrerakoek ondo ezagutzen

duten Oskarbi taldearen txanda izango da. "Oñatin jotzeko gogoz" daudela dio Olalde. Udalaren eskaintza osatuko dute Travelling Brothers blues taldeak eta erromeria doinuak egiten dituen Trikižio taldeak.

El Drogas, formatu akustikoan

Barricada talde ezaguneko abeslari izandako Enrique Villarreal Armendariz, *El Drogas* ezizenarekin ezagunagoa, Oñatin izango da San Migel egunean. Azoka Kultura Gunean egingo du emanaldia, modu akustikoan, 19:30ean eta 22:00etan.

El Drogas Akustik Fraktion birako lehenengo emanaldia egingo du Oñatin. Emanaldiaren oinarrian, argitaratu berri dituen *189 escritos con una mano enferma* liburua eta *El largo sueño de una polilla* diskoa daude. Emanaldi akustikoa izango da eta musikariaren alde intimoa ezagutzeko aukera eskainiko du, duda barik. Lan berriko abestiak joko ditu, baina baita betikoak ere. Taula gainean beste sei musikariaren laguntza izango du: Txus Maravi, Eugenio Aristu, German San Martin, Selva Baron, Patricia Greham eta Nahia Ojeta.



'El drogas'. ANGEL DELGADO

Txosnagunean, Dibertsioak

Txosnagunean ere askotariko musika estiloak egongo dira. Nabarmendu behar da berriro ere egingo dutela Dibertsioak musika emanaldia, urriaren 4an, 17:00etan. "Dagoeneko zortzi

taldek eman dute izena, estilo askotarikoak. Gure asmoa da talde bakoitzak ordu erdi pasatxo jotzea. Eta emanaldia amaituko du Gaitzerdi erromeria taldeak", azaldu du Jon Etxarri antolatzaileak.



'HEMEN DEBAGOIENA' OÑATITIK

GOIENA TELEBISTA, SAN MIGEL EZ-JAIK

IRAILAREN 29AN, EGUAZTENEAN, 18:00/ 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

Iturgintza
BELOKI

Iturgintzako material salmenta

- Komunen eta sukaldeen zaharberritzeak
- Gas naturala, butanoa, propanoa, gasoila
- Berogailua eta aire girotua
- Diseinua, dekorazioa eta opariak
- Obren koordinazioa gremio guztiekin

Gu ere oñatiarrekin!

Bakardadeko Ama kalea 11 – OÑATI
Tel.: 678 46 54 58 / 943 10 52 54



OÑATI
dabilen herria

ongi
terri!



*Saur
zaindu
dezagun,
bihar ere
izateko*

EL DROGAS
AKUSTIC



LA BASU



NEOMAK



ESTI ETA
MIKEL MARKEZ



TRAVELLIN



ERIZ MAGOA
AUSKALO



SANMIGELAK

2021

EZ-JAIAK

ARETXABALETAKO



UNAI ITURRIOTZ

Ondo pasau sanmigelak!

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa



Errekabarren 18, behea
20550 ARETXABALETAKO



943.080796



943.080796



696378909



unai@iturriotz.eus



www.iturriotz.eus

Azoka eremua handitu egin dute

Durana, Mitarte eta Iralabari kaleetako espazioan banatuko dituzte postuak Aretxabaletako artisautza eta nekazaritza ekologikoaren 26. edizioan



2019ko artisautza eta nekazaritza ekologikoaren 25. feria. IMANOL SORIANO

Imanol Beloki ARETXABALETA

Ohiko jaiak berreskuratu ezin izan badira ere, Aretxabaletako Udalak kultura ekintza sorta antolatu du astebururako: "Azokaren esentzia berreskuratu nahi izan dugu, baina, formatu murriztagoan, eta egungo baldintzetara egokituta. Normaltasun handiagoranzko bidean gaude, baina oraindik azken ahalegina egin behar dugu, elkar zainduz", azpimarratu du Ainhoa Caberok, Kultura zinegotziak. Era berean, "arduraz eta zentzuz" jokatzeko dei egin du, nahiz eta

Labik prebentzio neurriak malgutu dituen. "Sanmigela ospakizun herrikoiak dira, aretxabaletarrek asko maite dituztenak, baina oraindik ez dira baldintza guztiak betetzen normaltasun osoz bizitzeko", berretsi du Kultura zinegotziak. Azkenik, programaz gozatzeko dei egin du beharrezko osasun neurriak hartuz.

35 postu, guztira

Sanmigeletan, artisautza eta elikagai ekologikoen azoka izaten da programako hitzordu

garrantzitsuena. Aurten, *Sanmigela kulturala* izenpean, irailaren 25ean, hau da, zapatu honetan egingo da, eta izango da bertan zer ikusi, zer dastatu, zer erosi eta zer galdetu bertako zein kanpoko artisau eta ekoizleei. Izan ere 26. edizioak hogeita hamabost postu batuko ditu formatu egokitan, eszenatoki berriak gehitu dituzte, postuen arteko distantzia eta pandemiari aurre egiteko gainerako prebentzio neurriak bermatzeko. Hala, erakustokiak hiru eremutan jarriko dira: Durana eta

Mitarte kaleetan eta, edizio honetan berrikuntza gisa, baita Iralabari plazatxoaren azpian ere, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

Azoka irekitzeko eta egunari hasiera emateko, gainera, Aretxabaletako txistularien diana

ARTISAUTZA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN AZOKA, HIRU EREMUTAN BANATUTA

izango da. Kalera aterako dira herriko txistulariak eta herriko kaleak alaituko dituzte, herri-tarrei azokara joateko dei eginez.

Azoka, hiru eremutan

Iralabari plazaren azpialdean atonduko dute aurten nekazaritza ekologikoen aldeko Biolur Elkarteak, Aretxabaletako Udalak eta Landaolak antolatutako azoka ekologikoa, eta bertan hogeita hamabost postu izango dira, guztira: barazkiak, frutak, pasta, gazta, ezti, landareak, arropa, gazta, marmeladak, ogia eta



RPS: 63/19

Gu ere aretxabaletarrekin!



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

m
Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

**Gu ere
aretxabaletarrekin!**

Aretxabaletako campusa
Otalora 31
20555 Aretxabaleta

Eskoriatzako campusa
Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu
www.mondragon.edu



Tril emakume taldeko kideak taloak egiten. IMANOL SORIANO

sagardoa izango dira, besteak beste, eta, Euskal Herriko zenbait ekoizle batuko diren arren, herrikoak ere izango dira bertan, beste zenbait urtetan moduan: Maria Jesus Revuelta barazkiekin, esaterako, eta Mandibitzu baserrikoak gaztarekin.

Hori horrela, ekoizle hauekin edo gainontzekoekin aukera aparta izango dute azokara gerturazten diren herritarrek, produktu ekologikoak bertatik bertara eskuratzeko, garaiko produktuak zeintzuk diren jabetzeko eta edozein zalantza edo

informazio gura badute, ekoizleekin zuzenean jarduteko.

Horrekin batera, nekazaritza ekologikoaren aldeko Biolur Elkarteak, gainera, bertan jarriko du bere postua, behar duenari argibideak edo bestelako informazioa emateko, eta abian duen *Gure lurrina* izeneko bazkidetza kanpainari buruzko informazioa ere zabaltzeko. Hala, interesdunei *biolurkide* izateko eskaera eginez, Gipuzkoako elikadura ekologikoaren ekoizpen sareari laguntza emateko.

Ekologikoa erdigunean

Azokara eramango diren produktu guztiak modu ekologikoan ekoiztiak izango dira, natura, animalia eta gizakien eta osasuna eta etorkizunarekiko errespetuz eta inolako kalterik eragin gabe ekoiztutakoak. Ekoizpen ekologikoak, gainera, hainbat abantaila ditu, norberaren osasuna ez ezik, ingurumena ere zaintzen duelako eta, hartara, hurrengo belaunaldiei ere luraren emankortasuna bermatzen zaielako. Hori horrela, kalitate handiko elikagaien barietate zabala batuko da Aretxabaleta-ko artisautza eta elikagai ekologikoen azokan.

Herriko artisauen ordezkari

Artisau lanen eta bestelako produktuen hamabost postu ere jarriko dituzte artisautza eta elikagai ekologikoen azokan.

TALOAK ERRESERBA BIDEZ PRESTATUKO DITUZTE AURTEN, ETA GUZTIAK SALDUTA DAUDE DAGOENKO

Horiek Durana eta Mitarte kaleetan egongo dira, eta, besteak beste, joskintza lanak, bitxiak, egurrezko lanak, lore sikuak, musika tresnak... izango dira. Batez ere, bailarako artista eta ekoizleek beteko dituzte postu horiek, eta Aretxabaleta-ko ordezkariak azpimarratzekoa izango da. Izan ere, Ariane Unanue, Mari Luz Osorio, Lara Gonzalez, Izaro Sanchez Nerea Maskariano, Isabel Gonzalez eta Aritz Olano herritarrak izango dira bertan beraien produktu eta lanekin.

Eskaripeko talo goxoak

Tril Emakume Taldeak prestatutako taloak dastatzeko aukera ere izango da, beste hainbat ediziotan moduan, baina oraingoan, Herriko Plazan izango dute euren postua. Hala ere, aurrez eskatzeko dei egin zuten talogileek, eta, guztira, 250 talo egingo dituzte; dagoeneko guztiak dituzte salduta. Izan ere, produktu preziatua izaten da sanmigeletan txistor edo hirugihar taloa, eta izaten diren ilarak saihesteko modu horretan egitea erabaki dute talogileek.

Egitaraua

Irailak 25, zapatua

- 10:00-14:00 Artisautzaren eta nekazaritza ekologikoaren 26. feria. Durana kalean, Mitarte kalean eta Iralabarri plaza azpian.
 - 10:00 Diana.
 - 11:00-13:30 Loramendiko Tril emakume taldearen talo txosna, Herriko Plazan.
 - 13:00 Lekaixokak antolatuta, *Balkoitik balkoira* saioa, udaletxe zaharrean, Igor Gaztelumendi eta Etxahun Elortza bertsolariekin.
 - 16:30 Nerabeentzako *paintball*-a, Ibarra zelaian.
 - 19:30 *Iratzar kantari* emanaldia, Herriko Plazan.
- Irailak 26, domeka
- 13:00 Herri kirolak, Herriko Plazan.

San Migelak!!

EGUZKIGRAF
inprimategia

...beti herritarren alboan

Aupa Aretxabaleta!!

Aretxabaleta-ko Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



luz, Sebastian Lizaso eta Jon Maia aritu ziren *Balkoitik balkoira*; argazkian, Lizaso balkoian hasteko gertu. AITOR AGIRIANO

Maila handiko bertsoak, balkoitik balkoira botata

Beste urte batzuetan erabilitako formatua erabiltzearen aldeko apustua egin dute oraingoan ere Lekaixokakoek. Hala, Beñat Gaztelumendi eta Etxahun Lekue batuko dira udaletxe zaharreko balkoian bihar, 13:00etan, bertsoan era zabalean egiteko

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaleako Lekaixoka bertso eskolak azken urteetan bere aletxo jarri du San Migel jaietan, eta aurten ere beste zenbaitetan erabilitako formatu berarekin antolatu dute hitzordua, *Balkoitik balkoira* izeneko bertso saioarekin. Aurreko edizioetako maila berari eutsiz, Beñat Gaztelumendi eta Etxahun Lekue bertsolariak izango dira lan horretan, eta saioa udaletxe zaharreko balkoitik izango da oraingoan, 13:00etan hasita.

Udaletxe zaharrean

"Aurretik, birritan egin dugu San Migel jaietan bertso-saioa *Balkoitik balkoira* formatuan. Orain arte, Pagaldaixenien jartzan zuten Loramendiko *Tril* emakume taldekoek talo-txosna, eta bertako bizilagunei eskatzen genien bi balkoi uzteko; hala, herritarrek taloa jan bitartean saioa entzuteko eta, bide batez, kalea girotzeko asmoz. Aurten, baina, Pagaldaixeneko lokala ez dago libre, eta talo-txosna Herriko Plazara eramango dute. Beraz, udaletxe zaharreko erakinean egingo dugu saioa, Lo-

ramendin. Gela Soziala deitzen den gela bat dago bertan, eta armariaren parean bigarren solairuan dauden bi leihoak erabiliko ditugu. Hala, inori bere etxera sartzeko eskatzen aritu beharrean... Formatuak funtzionatzen duela esango nuke, eta, ekarri ditugun bertsolarien maila ikusita, saio ederra eskainiko dute, ziur", adierazi du Unai Bengoa *Satza*-k.

Puntako bertsolariak

2019an, Alaia Martin eta Igor Elortza bertsolariak aritu ziren *Balkoitik balkoira* bertsoan. Iaz, berriz, Sebastian Lizaso eta Jon Maia aritu ziren, eta aurtengo ekinaldian, Beñat Gaztelumendi Gipuzkoako txapeldun izandakoa eta Etxahun Lekue Bizkaiko txapeldun izandakoa arituko dira. Horrenbestez, aurreko edizioetan besteko maila altua egongo da Durana kaleko saioan. Hala, probintzien arteko pikeak alde batera utzi, eta modu librean abestuz aretxabaletarren gozagarri izango den ikuskizuna eskainiko duten aurreikuspena dute Lekaixoka bertso eskolako kideek.

BEROA OKINDEGIA

Basabe poligonoa 2 | Loramendi 6
ARETXABALETA

EUSKAL OGLIA

GURE GARIA, GURE OGLIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN

EUSKO LABEL
EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

Gu ere aretxabaletarrekin!

Jon
Harategia

Gu ere aretxabaletarrekim!

Durana 15 • Aretxabaleta • 943 79 71 69

Herrikidek, ARLO GUZTIAK landuz, jabeen komunitateen kudeaketan lan egiten du; jabeen lasaitasuna bermatuz eta, betiere, zerbitzuan PRESTUTASUN osoa bilatuz.

Hurbil egoteak ematen duen erosotasunaz baliatuz -Aretxabaletan gaude- zure komunitatea zentzuz eta arduratsu kudeatzen dugu. Horretaz aparte, beste balio bat dugu: eraikuntzan eta lan arloen zuzenketan urte askotako esperientzia (ezbeharrak, dokumentazioa, laguntzak...)

Gu ere aretxabaletarrekim!

HerriKide
Komunitateen kudeaketa

Basabe,4 - EO-11 20550 Aretxabaleta
Tel./Faxa: 943089875 / Tel.: 679455764
herrikide@outlook.com
www.herrikide.net

Hasier Larrea ARETXABALETA

Urtero 40 kontzertu inguru jozera ohituak ziren Anoetako musikariak, baina, azkenaldian, tantaka jasotzen dituzte gonbidapenak. Horregatik saiatu dira emanaldi bakoitza eurentzat eta publikoarentzat berezi bihurtzen. **Hilabete asko pasa dira erromeria taldeek plazak dantzan jartzen zizutenetik. Nola egin diozue aurre egoerari?**

Gau giroko dantzaldi saioak ematen genituen guk; beraz, bagenekien planteamendu berririk gabe ez gintuztela inondik deituko. Jendeak eserita gu ikusteko moduko zerbait egitea pentsatu genuen; ezin badute dantzatu, gutxienez, abestu dezaten. Espontaneoki atera zitzaigun konponbidea.

Eta zein izan zen?

Euskal kantu mitikoak aukeratu eta toke berria ematea, nazioarteko kantu ezagunekin nahastuta. Adibidez, *Txoria txori* Metallicaren doinuekin nahastu dugu, eta *Aitormena* The Police taldearen *Every break you take* abestiarekin. Hain zuzen ere, horrela iritsi gara Iratzar Erromeria izatetik Iratzar Kantari izatera.

"Ezin bada dantzatu, abestu egingo dugu"

JULEN APEZETXEA IRATZAR KANTARI TALDEKO BATERIA-JOLEA

Anoetako musika taldeak buelta bat eman dio erromeria kutsuko erreperitorioari pandemian zehar; emaitza bihar erakutsiko dute, 19:00etan, Herriko Plazan



Iratzar Kantariko taldekideak. JULEN APEZETXEA

Nola eman zenuten zuen proposamen berritzaile horren berri?

Bideoklip bat grabatu genuen aipatutako azken kantu horrekin, eta funtzionatu egin zuen. Pixkanaka, deitu egin gintuzten, eta horrela heldu gara Aretxabaletera.

Nola jaso zaituztete plazetan?

Oso ondo. Aurten, bost kontzertu eman ditugu, eta lehenengoetan publikoak *beste bat!* eskatzen zigun. Orduan ez geneuzkan hainbeste kantu prestatuta, baina, pixkanaka, kantutegia betetzen joan gara, gutxienez, ordu eta erdiko kontzertua ematera iritsi arte.

Publikoa animatzen al da bertsiotzeko abestera?

Hori zen helburua, eta zenbait ideia genituen mahai gainean: kontzertuetan letrak inprimatu eta banatzea edo QR bidez deskargatzeko aukera ematea. Azkenean, telebista handi bat erosi, gure atzean jarri eta letrak proiektatzea erabaki genuen.

Nolako giroa duzue talde barruan?

Taldea sortzerakoan profesional bezala hasi ginen, eta lagun bezala amaitu dugu. Beti ateratzen dugu tartea afaria egiteko edo dena delakoa. Batzuetan, alderantziz gertatzen da. Iratzar taldeaz gain, norberak badauzka beste proiektu musikal batzuk. Beraz, gerta liteke taldekide batek kontzertura etorri ezin izatea. Halakoetan, badugu nori deitu, eta hark ordezkatzten du.

Aretxabaletan jo izan al duzue beste urteren batean?

Pare bat aldiz etorri gara andramaixetan; orduan, txosnetan jo genituen kontzertuak. Oraingo Herriko Plazan izango da, eta, zutik edo dantzan egon beharrean, jendeak eserita jarraitu beharko du ikuskizuna. Ea hori ere laster aldatzen den.

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Gu ere aretxabaletarrekin!

ARETXABALETA • Mitarte 1 • Tel.: 943 77 13 79

Jaso izan dutena eman nahi dute domekan

Sanmigel Kulturalen egitarauari amaiera emateko, Bihurri eta Eibarko Euskal Jokoak elkarteak herri kirol saioa egingo du Herriko Plazan, 13:00etan. Aretxabaletako Udala haietaz "beti" gogoratzen dela-eta, onena ematen saiatuko dira partaideak

Hasier Larrea ARETXABALETA

Herri kirolek ere geldialdia izan dute, baina pixkanaka ari dira hain beharrezko dituzten plazak berreskuratzen, sanmigeletan ohikoa den ekitaldi horren itzulerak iradokitzen duen moduan. Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolariak aipatu du Aretxabaletara etortzeko gonbidapena "aurreko guztiak bezala gustu handiz" jaso duela.

Herritarrak gozarazi nahian maila handiko kirolariak etorriko direla aurreratu du, aita-semeetatik hasita: "Nire semea, Hodei, Urrezko Aizkorako txapeldun berria da; Andoni Izeta eta Xabier Zaldia ere izango



Osa, abuztuaren 1ean, Zarauzko Aritzbatalde frontoiko Bi Harri txapelketan. L.O.

ditugu alboan". Zaldia hiru aldiz irabazi du Euskal Pentatloi Saria eta Izeta bezperan Azpeitian jokatuko den final hori irabazteko hautagaietako bat da.

Iparraldeko jokoak egiten dituen Karlos Aretxabaleta ere azalduko da Herriko Plazan, Izeta sendiko Hodei eta Jakes Iruretagoiena harri-jasotzaileekin batera.

Emakumeak, plazak hartzen

Plazetan sarri ibiltzen diren horiei freskotasuna gehituko die Lierni Osa harri-jasotzaile zarautzarrak. Uztailean hasi zen entrenatzen, "Andoni Izeta lagunak hauspotuta". Abuztuaren lehenean, Zarauzko Bi Harri txapelketan aritu zen harriak altxatzen estreinakoz, eta, zerbikaleko lesioa atzean utzita, "gogotsu" dago Aretxabaletan lehiatzeko.

Herri kirolean emakumeek pauso bat aurrera eman dutela uste du: "Lehen aldia izan zen Zarauzko ekitaldi hartan nesken txapelketa antolatzen zena, eta orain, pentatloian ere ari dira emakumeak maila indibidualen parte hartzen".

Erakustaldia eta lehia, denetik dago

Maila handiko probaren hasieran, nor baino nor gehiago aritu gabe ikusleei plazera eragiteko asmoz irtengo dira zortziak: lau aizkolariak aitzurrarekin, abiadura probak eginez, zutik, esku bakarrarekin eta kolpeka; Iparraldeko jokoetako ordezkaria lasto-fardoak altxatzen eta jaurtitzeko, baita ingudea altxatzen ere; eta hiru harri jasotzaileak, pisu eta forma askotariko harriak altxatzen.

Jarraian jardungo dute serioago, bi taldetan banatuta, aizkoran, harri jasotzen, trontzan eta korrika.

Ondoren, motozerrekin beste erakustaldi bat egingo dute, eta ekitaldia harri jasotzaileen agurrarekin itxiko da.



*Aretxabaletako komertzioa bizirik!
Gu ere aretxabaletarrekin!
Egin dezagun aurrera denok batera!*





'HEMEN DEBAGOIENA' ARETXABALETATIK

GOIENA TELEBISTA, SAN MIGEL EZ-JAIK

IRAILAREN 27AN, ASTELEHENEAN, 18:00/ 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!
▶ 🍏

goiena

Zu hemen zaude.

Gipuzkoako postontzi zaharrenetakoa, Elgetan

Mendizaleen plazako izkina batean dago, eta abuztuan berri zuten postontzien mantentze-lanetarako Correos-endako lan egiten duten bi langilek. Altxor txiki bat dela azaldu dute; izan ere, antzerako beste hiru bakarrik gelditzen dira Gipuzkoan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Gutunak bidaltzeko bi postontzi daude herrian: bata Mendizaleen plazan eta bestea Andra Mari plazan. Hirugarren aukera da postaz bidali beharrekoak zuzenean San Roke kalean dagoen bulegora eramatea.

Telefonoaren zein Interneten garapenarekin posta arrunta bidezko mezularitzak behera egin du nabarmen. Horren ondorioz, Correos-ek nabarmen murriztu ditu kale-postontziak. Elgetan, ordea, biek jarraitzen dute erabilgarri, eta antzinatasuna dela-eta balio berezia du Mendizaleen plazan dagoenak.



Elgetako Mendizaleen plazan dagoen postontzia. L.Z.L.

Antzerako beste hiru Gipuzkoan

Correos-eko antzinako dokumentuetan jasotzen da 1762an jarri zirela lehen postontziak kalean. Hormen kontra jartzeko ziren –gehienetan, posta bulegoetan–, eta erabiltzaileek postariaren zain egon beharra saihesteko. Ez dago Elgetako postontziaren antzinatasunaren erreferentziarik, baina Correos-etik ziurtatzen dute bere ezaugarriengatik Gipuzkoako zaharrenetakoa dela. Postontziak berritzen joan dira, eta horien forma, kolorea, dekorazioa zein materialak aldatzen joan dira. Oraindik ere, ordea, erabilgarri

POSTONTZI ZAHARRAK HONDATU AHALA BERRIEKIN ORDEZKATZEN DITU CORREOS-EK

daude modernizazioaren eta uniformizazioaren olatuari ihes egitea lortu duten lau postontzi Gipuzkoan; tartean, Elgetakoa. Besteak Lezon, Errenterian eta Azpeitiko Urrestilla auzoan daudela azaldu dute Correos-etik.

Itxura berrituta, abuztutik

Abuztuan mantentze-lan txukuna egin diote Elgetako postontziari. Halakoetan boluntario gisa ibili ohi diren bi lagun izan dira, eta lau joan-etorri egin dituzte Donostiatik. Postontzia ondo lixatu, minio-inprimazio antioxidatzailea eman, eta margotu egin dute. Postontziak dituen osagaiak ere txukunduta daude. Hala, gutun-azal forma duen plakaxoa, *Correos* dioena, eta zerbitzua egunero ematen dela adierazten duten osagaiak ere berrituta daude.



Lezoko postontzia

Udaletxean dago, fatxadako lau zutabeetako batean. Forma obaldua duen bakarra da, eta herriko armaria darama.



Errenteriako postontzia

Horma-postontzia da honako hau ere, eta udaletxeko sarreran dago, erdi-erdian dagoen arkuetako batean.



Azpeitiko Urrestilla auzokoa

Letoizkoa da eta eskala handian egin zen lehen modeloa da. Landa-eremuetan erabili izan da orain gutxira arte.

Eleder Lozano, beterano azkarrena Sorginen Lasterketan

Elgetan jokaturako Intxortako Igoeran, Martin eta Pablo Egizabal anaiak izan dira nagusi aurten

L.Z.L. ELGETA

Esan daiteke mendi lasterketen eguna izan zela zapatua. Herrian jokaturako Intxortako Igoerarekin batera jokatu zen Atxondon Sorginen Lasterketa, eta gaur egun Intxortako Igoeran gizonen denborarik onena duen Eleder Lozano nagusitu zen Bizkaiko probaren beteranoen kategorian. Atxondoko Axpe auzoko plazan hasi eta amaitu zen 21 kilometroko eta 1.700 metroko desnibel positibo duen Sorginen Lasterketa. Lozanoren denbora 2:24:45 izan zen.



Lozano, Atxondon, saria jasotzen. o.v.

Intxortako Igoera

Herrian jokaturako Intxortako Igoeran, berriz, Egizabaldarrak izan ziren jaun eta jabe. Martin eta Pablo Egizabal anaiak izan ziren azkarrenak denbora berdinarekin; 19:13. Martin Egizabal nagusitu zen 16 urtetik go-

rakoen sailkapenean, eta Pablo Egizabal 12-16 urte artekoen kategorian. Bederatzi parte hartzaile izan ziren guztira, eta emakumerik ez tartean.

Neska-mutikoendako proban –Igoera Salbadorrera– dozena bat parte hartzaile izan ziren.



NEREA VILLA

Ludotekako hormak apaintzen

Izar Han Xue Irazabal Gillegi elgetarrak irudi berriak egin ditu ludotekako hormetan. Askotariko animaliak profilatu ditu, eta hurrengo asteotan margotuko dituzte zerbitzuko erabiltzaile diren neska-mutikoek. Baserriko animaliak egin ditu, gehienbat. Oiloak, oilarrak, ahuntzak, txerriak, behiak eta txakurrak daude. Laster hartuko dute kolorea.

Aro berezi bateko jaialdi berezi bat

21 urte bete dira gaur 'Holidays in the sun' bukatu zela, 2000ko irailaren 22tik 24ra orduko punk-oi! panoramako talde handienak Jam aretoan elkartu zituen jaialdia; efemeridea baliatu du GOIENAK garai haiek gogoratzeko, askotariko protagonisten ahotik

Jokin Bereziartua BERGARA

Gaur, 21 urte bete dira Bergarako Jam aretoan *Holidays in the sun* jaialdia amaitu zenetik. Izan ere, 2000ko irailaren 22an, 23an, eta 24an Europako eta, bereziki, Ingalaterrako orduko punk-oi! mugimenduko talde handienak elkartu ziren Jamen: Slaughter and the Dogs, Cockney Rejects, Cock Sparrer, The Boys, Peter and the test Tube Babies, Uk Subs, The Business, Angelic Upstarts, Oxymoron... Guztira, 26 talde eta 1.200 ikusle inguru, gehienak kanpotarrak. Kartel berezi hori osatu zuen talde bat baino gehiago egondakoa zen Jamen edo aurrerago itzuli zen, baina punk-oi!-aren puntako talde gehientsuenak batera izatea oso gutxitan gertatzen den fenomeno bat da. Hala, duela 21 urte Bergaran gertatu zen.

Efemeridearen berri Twitterren

2000. urtean zortzi urte eskas bazituen ere, Kaleko Urdangak taldeko baxu-jole Asier Kortabarria *Moto-k* Twitterren gogoratu zuen jaialdia, duela hilabete inguru: "Basakeria hau Bergaran gertatu zen, bai. Nire oroitzapen bakarra, amaren gomendia: 'Kontuz jeringillekin'. Herria Europa osoko punk eta kaskamotzez bete...". Efemeridea aitzakia hartuta, jaialdiaren bueltako protagonista batzuekin egon da GOIENA, besteak beste, jaialdi hartako atzeko istorio kuriosoen berri jaso eta musika panoraman gauzak nola aldatu diren aztertzen laguntzeko.

Jam aretoa erreferente zenekoa

Kontzertuen testuingurua "izugarri" aldatu dela dio hamarkada luze batez Jameko kontzertuak programatzeaz arduratu eta gaur egun oraindik sektorean jarrai-

tzen duen Mikel Berasategik; Kolonbiako Camilo musikariaren kontzertu baten antolakuntzan eta Sopelako sokatira saio baten muntaketa lanetan aritu da, besteak beste, asteon. Lanez lepo ibilita ere, tarte bat hartu du GOIENAREN galderak erantzuteko: "Lehen, kontzertuetan askoz jende gehiago mugitzen zen. Esan nahi dudana da orain jendea jaialdi handietara joaten dela; lehen, tabernetan, gaztetxeetan, frontoietan eta kiroldegietan sekulako mugimendua egoten zen. Intsumisoengatik zela, presoengatik... Beste mundu bat zen. Garai hartan, jende asko joaten zen kontzertuetara taldea apenas ezagutu edo gustatu gabe, bere lagunak joaten zirelako. Hori aldatu egin da erabat".

Ukaezina dena da garai hartan Europa mailako musika zirkuituko ezinbesteko geltoki bihurtu zela Jam. Puntako talde askok Bergarako Jamen egiten zuten geldialdia, Madrilan etaartzelanon jotzeaz gainera. "Oso ondo prestatuko aretoa zen, edukiera handiarekin. Hala ere, une hartan Jam izan zen, baina esan beharra dago Euskal Herria beti izan dela talde handiendako

"UDALAK LAGUNDU IZAN BALU, JAIALDI HANDIAGO AGIN GENEZAKEEN"

FERNANDO ETXEBARRI (ANTOLAKUNTZA)

"OROITZAPEN EDERRAK DITUT, ERREPIKAEZINA DA KARTEL HORI"

ANIOTZ BIRUMBRALES 'BIRU' (IKUSLEA)

geltoki berezia; biztanleen proportzioari dagokionez bai, behintzat", dio Berasategik.

Udalarekin tirabirak

Bestalde, garai hartan Jamen buru-belarri zebilen Fernando Etxebarrik gogoratzen du jaialdiaren aurretik hainbat buruhauste izan zituztela: "Udaltetik ez genuen inongo laguntzarik jaso; are gehiago, denak izan ziren trabak. Etorriko zen jendearentzat kanpina, azkenean, Mekolalden jarri behar izan genuen, orduan bertan zegoen ehungintza-enpresa baten lurretan. Akanpalekuaren ondoan zegoen tabernari baten kasua da adibide garbiena: ikaratuta zegoen bere tabernagatik eta gerora hainbat urtez gogoratu izan zidan ze gustura egon zen kanpotik etorri ziren punk haiekin guztiekin. Sekulako beldurra sortu zen herrian, bazirudien hondamendia zetorrela, Europatik zetozen punk haiek herria erre behar zutela. Baina gero, argi geratu zen oso jende jatorra eta edukazio onekoa zela. Ez zen inongo liskarrik izan hiru egunean".

Handiagoa egiteko "aukera"

Etxebarrik uste du, gainera, jaialdi hura askoz handiagoa izan zitekeela baldin eta "laguntza minimo bat" izan balute: "*Holidays in the sun* jaialdi ibiltaria zen eta Jam aretoari proposatzearen arrazoia izan zen ordurako talde haien kontzertu batzuk programatuta genituela. Ordurako Jamera ekarrira genituen, adibidez, Cockney Rejects eta Toy Dolls taldeak, eta musikariek eurek zein taldeen managerren arteko ahoz ahozko komunikazioari esker erabaki zuten 2000. urte-



2000. urtean Cock Sparrer Bergaran ikusi ahal izatea nobedade handia izan zen.

"Herrian beldurra zabaldu arren, punkek lezio bat eman zuten"

MIKEL BERASATEGI JAM-EKO ARDURADUNETAKO BAT (1995-2005)

Hamarkada luze batez aritu zen Jameko kontzertuak antolatzen.

Nola gogoratzen duzu *Holidays in the sun* jaialdia?

Ederra izan zen. Hala ere, gogoratzen dut ez zela erabateko *sold out*-a izan, domeka nahiko ahula izan zela... Hiru eguneko bonuak 17.500 pezetako prezioa zuen; batzuentzat garestia zen, antza. Baina Cock Sparrer moduko talde bat garai hartan ikusteagatik bakarrik gutxienez 2.500 pezeta ordaindu beharra zegoen...

Beldurra zabaldu zen herrian, ezta?

Gu lasai geunden, baina herrian beldurra zabaldu zen, bai. Sarrerekin batera akanpalekurako aukera ematen genien kanpotik zetozenei Udalarekin gune bat adostuta genuelako, baina jaialdia baino bospasei egun lehenago esan ziguten ez zigutela gune hori utziko. Hortaz, Mekolaldeko Narbaiza lantegiko lursail baten egokitu behar izan genuen kanpina, Xabi Albiaren laguntzari esker.

Eskerak... Punkek lezio bat eman zuten.

1995etik 2005era egon zinen Jamen. Zenbat zuzeneko?

Ez dakit ziur esaten, memoria kontuetan ez naizelako finena... Gogoan dut urte baten, errekor modura, 162 kontzertu antolatu genituela. 1.000 kontzertutik gora izango ziren, seguru.

Zer izan zen Jam zuretzat? Arrastoa utziko zuen zuzeneko...

Nire bizitzaren parte oso inportante bat izan zen, laga behar izateak sekulako pena eman zidan. Ikasgai itzela izan zen; Jamen aurretik ibilita nenbilen gaztetxean eta. Eta oraindik ere musikaren munduan jarraitzen dut. Hau da gustatzen zaidana.

Zaila izan da zurekin telefonoz egotea. Lanez lepo, ala?

Bai, iraila zoratzekoak daroat... Riff Produksioak-ekin ari naiz buru-belarri. Urte eta erdi erabat geldi egon ginen. Sektorearen egoera oso latza da; batzuek eutsi egin diogu, baina oso latz dago. Azken bi urteotan hiru hilabete egin ahal izan dugu modu duinean lan.



M.B.



Oxymoron, Jamen –Sucker erdian–, *Holidays in the sun* jaialdian, 2000ko irailaren 24an. ARGAZKIAK: ANDONI INURRITEGI 'POTTOKO'

ko jaialdia Jamen egitea. Udalak lagundu izan balu, jaialdi askoz handiagoa egin zitekeen, baina Jamera mugatu behar izan genuen eta, gehienez, 1.000 bat lagun elkartu. Jameko lantaldeari esker irten zen aurrea jaialdia, ez daukat zalantzarik; Udalaren inplikazioagatik, behintzat, ez zen izan..."

Ikusle bergarar baten bizipenak
Jaialdiko ikus-entzuleen artean, Berasategik dioenez, gehiengo zabal bat Europa osotik etorritako musikazaleak izan ziren, baina Debagoienetik eta Bergararik bertatik askok egin zuten bat proposamen bereziarekin. Horien artean dago Aniotz Birumbrales *Biru*-k, gaur egun Kaleko Urdangak taldeko gitarra-jolea dena. Bizitza erdi baino gehiago daroa oi! musika egiten eta ez dauka ahazteko bere jaio-terrian egin zen *Holidays in the sun* hura: "Oroitzapen ederrak gordetzen ditut. Jaialdi ezberdin bat izan zen, ordura arte Euskal Herrian ez zelako ezaugarri horietako halako jaialdi handirik egin. Oso gogotsu geundela gogoratzen dut, *Holidays in the sun* bat norberaren herrian egitea itzela zen..."

Liskarrik ez hiru egunean
Biru-k argi dauka eta halako kartel bat errepikatzea ia ezinezkoa izango litzatekeela gaur egun: "Hainbat eta hainbat talde batera leku berean jotzen, horietako asko sekulako ikusi

gabe genituenak. Bereziki, Cock Sparrer ikustea ahaztezina izan zen, itzuleraren barruan Ingalaterratik kanpo ematen zuten Europako lehen kontzertua izan zelako. Halako kartel bat errepikatu daiteke Blackpool-eko [Ingalaterra] *Rebellion Festival* baten, adibidez, baina gure herrian halakorik berriro egitea... Uste dut errepikaezina izango dela".

Bestalde, jaialdiaren aurreko egunetan Bergaran bizi izan zen tentsioa eta beldurra ere gogoan ditu *Biru*-k: "Zurumurrak eta beldurra ere gogoratzen ditut jaialdiaren aurretik, aurreiritziak zirela medio. Gero, baina, kontrakoa gertatu zen: herria oso pozik geratu zen kanpoko bisitarien jarrerarekin eta, noski, herrian gastatu zuten diruagatik". Izan ere, bisitarietako askok herriko eta inguruetakoko hotel, ostatu, nekazaritza-etxe zein etxe partikularretan egin zuten lo eta bertako tabernetan ere diru asko gastatu zuten. Horren adibide da garai hartan Depor tabernan lan egiten zuen tabernari batek Twitterren idatzi zuena, hain zuzen ere, *Moto*-ren txioari erantzunez: "Depor tabernan garagardo hiru bider

bete eta hiru bider hustu ziguten biltegia. Ahozabalik. Liskar bat ere ez hiru egunetan".

Orduko 'Berrigara'-ko kronika
Garai hartako *Berrigara*-n ere eman zen jaialdi bereziaren berri, datuak titularrera eramanda: *Punk jaialdia: 100 musikari, 1.200 entzule eta hotelak beteta*. Kronika horretan zehaztuta dator saldu ziren sarreren kopurua: *Antolatzaileak pozik daude orokorrean jaialdiak izan duen harrerarekin, nahiz eta egun bakoitzeko 200 bat lagun gehiago espero zituzten. Asteburu osorako sarrera 450 pertsonak erosi zuten. Kopuru horri eguaitzeko eta domekako beste 200 lagun gehitu behar zaizkio eta zapatuan beste 350*.

Gainera, atzeritrik 400 bat lagun etorri zirela ere badio albisteak: *Atzeritik etorritako gehienak Bergarako zein inguruko herrietako hotel, ostatu eta nekazaritza-etxeetan hartu dute ostatu. Horrez gain, antolatzaileek Narbaiza lantegiko atzealdeko soro baten kanpina egokitu zuten eta bertan beste 150 lagun inguru egon dira. Kanpinerraino joan gabe, Goiko estazioan kanpatu duenik ere izan da. Era berean, Berrigara-n jaialdia iragartzeko albistean aipatzen da kanpinerrako gunea aldatu behar izan zela, antolatzaileen hasierako asmoa kanpina San Martzialen jartzea zelako baina Udalaren baimenik ez zutelako jaso. Beste garai batzuk, zalantza barik.*

MUSIKA ZIRKUITUAN EZINBESTEKO GELTOKIA ZEN JAM GARAI HARTAN, LUXUA BAILARARENTZAT

"Berehala maitemindu nintzen Euskal Herriaz"

SWEN SUCKER OXYMORON TALDEKO ABESLARI ETA GITARRA-JOLE OHIA

1989tik 2002ra Oxymoron taldeko buru izan zen Sucker (Berlin, 1973), eta gustu handiz erantzun ditu GOIENAREN galderak Berlingetik. Jaialdi hartaz eta beste hainbat kontuz dihardu.

Zer moduz zaude? Zertan ari zara orain?


Ondo nago. Orain, lan askorekin, COVID-19aren ondorioz lanik ez dudalako izan orain gutxira arte. Horrez gain, Bad Co project taldearekin [bere proiektua gaur egun] disko bat argitaratu nahian gabilta; ea laster atera dezakegun...

Ze oroitzapen duzu Bergarako Jam-eko jaialdiarekin?

Gogoan dut jaialdi bikaina izan zela, banda distiratsu askorekin. Euskal Herrian gogoratzen dudana lehen jaialdi handia. Badakit Micky Fitzekin ibili nintzela *backstage*-an [The Business taldeko abeslaria, 2016ko abenduan hil zena]; elkarrizketa honen harira argazki bat topatu dut nire artxiboan... Oroitzapen ederrak.

2000. urterako plaza gustukoa zen zuretzat Euskal Herria?

Euskal Herria beti izan da leku oso berezia niretzat. Kontzertu guztietan, izan areto txikietan, kaleko emanaldietan edota jaialdi handietan, izugarri gozatzen nuen. Uste dut Euskal Herrian lehenengoz Urdulizen jo genuela, 1998an, The Crackekin eta Iskanbilarekin, besteak beste. Goizaldeko lauretan hasi ginen jotzen... Baina esperientzia ederra izan zen eta berehala maitemindu nintzen Euskal Herriko giro bereziarekin. Oxymoronekin egindako bira guztietatik oroitzapen onenetakoak Euskal Herrikoak dira. Akaso, Bergarako jaialdi hura are bereziagoa izan zen, ez zelako batere ohikoa



SUCKER

"INTERNET DA GUZTIAREN PLATAFORMA GAUR EGUN; NIK NAHIAGO DUT BINILOA"

Holidays in the sun bat bertan antolatzea. Baina esaten dizudana, Euskal Herrian egon naizen guztietan asko disfrutatu dut.

Arrasto berezia utzi dizu Euskal Herriak...

Izugarri maite dut Euskal Herria. Euskal Herria eta bereziki Arrasatera joatea etxera joatea modukoa da niretzat. Gainera, Euskal Herriak badu zerbait berezia Alemanian inondik inora gertatzen ez dena: belaunaldi berriak oraindik ere punkaren mugimendua bizirik irauteko lanean ari direla.

Zer aldatu da musikaren munduan 2000. urtetik?

Musikaren mundua izugarri aldatu da azken 20 urteetan. Gaur egun, Internet da guztiaren plataforma, sare sozialen eta *streaming*-erako edota deskargarako abestien jabea. Gaur, ez dago benetako albumik atera behar bere azal eta guzti, eta hori tristea da. Kantuak online izatea artxiboak baino ez dira askorentzat, eta horrek balioa kentzen die... Are gehiago, MP3arena ere ez da soinu kalitate ona. Klik baten behar ditugu entzun nahi ditugun abesti guztiak, baina horrela atmosfera galtzen da. Nik, behintzat, nahiago dut eskola zaharreko biniloa, esaterako.

Badago Oxymoron-ek ekarri zuena labor erantzuterik?

Liburu bat beharko nuke. Horrenbeste bizipen dira... la Europa osoan jo genuen, sei alditan egon ginen Ameriketako Estatu Batuetan eta behin Japonian. 800 kontzertu bai, gutxienez.

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Arrasateko lagunekin egoteko sekulako gogoia dudala!



Erakundeetako ordezkari eta teknikariak, martitzenean Laboratorium museoa, hitzarmena sinatu ostean. J.B.

Eraldaketa sozialerako "urrats garrantzitsua"

Bergarako Udalak, Debagoiena 2030 ekimenak, Olatukoop elkarteak eta Huhezi Fakultateak hitzarmena sinatu dute asteon Laboratoriumen, eraldaketa sozialean eragiteko "urrats garrantzitsua" egiteko asmoz; urrian aurkeztuko diete herritarrei

Jone Olabarria BERGARA

Bergarako Herri Proiektua eta eraldaketa soziala proiektua garatzeko hitzarmena sinatu dute asteon Laboratorium museoa Bergarako alkate Gorka Artolak, Olatukoopeko lehendakari Irune Canok, Huheziko dekanok Nagore Ipiñak eta D2030eko koordinatzaile nagusi Elena Herrartek.

"Elkarlana eta ekintza soziala"

Gorka Artola alkateak azaldu duenez, COVID-19ak baldintzatutako azken urtean Bergarako herrian hainbat prozesu jarri dituzte martxan, egoerari herri ekimenetik erantzuteko: "Aurrera begira oso erronka potoloak ditugu. Beharrak eraginda eta testuinguruak baldintzatu eta hainbat prozesu txiki ez-egituratu martxan jarri dira eta indar, elkarlan eta ekintza sozial hori baliatu nahi da modu iraunkorrean komunitateko eragileen arteko koordinazioa aktibatzeke".

Askotariko esparruetan

"Gobernantza publiko kooperatiborako eredu berriekin", Bergarak eta bailarak dituzten beharrak identifikatu eta gaur egungo paradigmatik eta tokikotasunetik erantzun nahi die. Lan ildo zehatzei dagokienez, askotariko esparruak jorratzea aurreikusten da.

D2030 ekimenaren egiteko nagusia eskualde mailan garatzen diharduten eraldaketa prozesua Bergarako eraldaketa sozialaren bulegoarekin konektatzea izango da, eta lankidetzaren sarearen jarduna herrira gerturatzeko aukerak sustatu. Prozesuaren eta eraldaketa sozialaren bulegoaren diseinu, dinamizazio eta bide laguntza egitea izango da Olatu-

"EKINTZA SOZIALA BALIATU NAHI DA ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIOA AKTIBATZEKO"

koopoen egiteko nagusia. Huheziko Lanki Ikertegiak formakuntza prozesuen, lan metodologiaren eta sistematizazio eta jasotze lanaren ardura izango du.

Bulego fisikoa martxan da

Bergarako Udalaren betebeharrak da eraldaketa sozialaren bulegoa abiatu eta martxan jartzea; horretarako, lokala egokitu eta ekipamendua hornituko du. Lokala egokitu bitartean, Udalak Laboratorium laga die lanerako espazio: "Helburua izango da herritarrak proiektura gerturatu, eta aholkularitza eta formakuntza eskaintzea".

Finantzaketa, bi urtean

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorikizuna Eraikiz egitasmoaren 2021eko deialdian sartu da proiektua, eta, hain zuzen, haren laguntza izango du: 30.632,68 euro. Bergarako Udalak 80.000 euro inbertituko ditu: 40.000 euro 2021ean eta beste horrenbeste 2022. urtean zehar.



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Tolerantzia hezteko

Ikasturtea hasi eta haur gehienek gozatu ahal izan dituzten oporrak uzteko penaren eta eskolara bueltatzearen artean pentsamendu kontrajarriak dituzte; horrek zereginetara bueltatzea ekarriko badu ere, lagunekin berriz elkartzeko ilusioa ere ekartzen du. Zoritxarrez, hau ez da horrela izango ikasle guztientzat. Batzuentzat, gutxiesteak dakarren torturara itzultzea ekarriko du. Ume askok isilean sufritzen dute, imajinatzen duguna baino gehiago. Baliteke gainerakoekiko interes desberdinak izatea, kolore edo sexu-orientazio desberdinekoak izatea... baina sufritu egiten dute! Gizarteak kasuak muturrekoak direnean erreparatzen die. Haur batek jipoi bat jaso edo bere buruaz beste egiten duenean... orduan, mundu guztiak egiten ditu *bullying*-aren aurkako adierazpenak. Gutxi batzuk indartsuak izango dira eta nortasun nabarmena izango dute sufrimenduzko etapa hori gainditu ondoren, baina pentsatu duzue zenbat haur iristen diren helduarora segurtasunik gabe eta arazo psikologikoekin? Hausnartzeko unea da. Hezi dezagun desberdintasunekiko tolerantzian.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Plastikoa eta zaborra goiko estazioan



Herritar batek GOIENARI bidalitako irudiarekin salatu du goiko estazioko banku eta mahaien gunean jaso gabeko zabor eta plastikozko botila ugari topatu dituela azken asteon.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

UGARTE
AROTEGIA · ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

21
KALITEA

Enpresa legezko 1100/025

'Kultura kalera' ekimena dator, ginkana eta guzti

Zapatuko ekitaldi nagusia izango da Bergarako orfeoiaren, Aritzeta abesbatzaren eta orfeoi gaztearen kontzertua eta domekan Musika Eskolaren ginkana eta kultura elkarten azoka izango dira asteburuko ekitaldi nagusiak; DBQ taldeak ez du joko

Jokin Bereziartua BERGARA

Herriko kultura taldeen lana ezagutzera emateko asmoz sortutako *Kultura kalera* ekimena egingo da bihar eta etzi. Aurten nobedadea da Bergarako Musika Eskolak domekarako prestatu duen ginkana -12:00etan, San Martin plazatik abiatuta-. "Musika tresnak probatzeko aukerarik ez dago, pandemiagatik, eta egokitu egin behar izan dugu. Hala, instrumentuok identifikatzeko ginkana musikala antolatu dugu", dio Marije Ugaldek. Izena aldeztetik eman behar da, Musika Eskolan: 943 76 57 80. Zapaturako bi ekitaldi eta domekarako lau daude lotuta. Za-



Edurne Korta, Kontxi Laskurain, Ainhoa Lete, Maitane Arizabaleta eta Marije Ugalde. J.B.

patuan, 11:00etan euskaraz eta 12:30ean gazteleraz, *Bergara monumental*a bisita gidatua egingo dute. Izena eman behar da Laboratoriumen. Gero, 13:00etako kanpai hotsak amaitu eta berehala, Bergarako orfeoiaren, Aritzeta abesbatzaren eta orfeoi gaztearen kontzertua izango da plazan -euria bada, Seminarixoa-. Talde bakoitzak bere emanaldia egingo du.

DBQ taldeak ez du joko

Domekarako, Bergara Oinez-en barruan, ibilaldia antolatu du Aspacek (10:30). Esandako moduan, 12:00etan hasiko da ginkana musikala, eta 12:30ean, kultura elkarten azoka jarriko dute San Martin plazan: Buztin-zale, Arizondo, Beart, taila elkarteak, Jardun eta erraldoien konpartsa egongo dira -azken hauek Aroztegin dute erakusketa-. Astelehenean aurkeztu zuten egitarautik bada bertan behera geratu den ekitaldi bat: Bergarako DBQ taldearen kontzertua. Zapatu arratsalderako zegoen aurreikusita, baina taldeko kide baten osasun arazoengatik suspenditu egin da.

Sorkuntza artistiko ikastaroa, Amaia Santamariarekin

Beart elkarteak hirugarren urtez antolatu du sorkuntza artistikoaren gaineko ikastaroa, Amaia Santamaria bergararren eskutik; Artean graduatua da. Egubakoitzetan izango da, 17:30etatik 20:30era, eta urriaren 1etik ekainera arte iraungo du. Hilabeteko kuota 40 eurokoa da eta izen ematea beart.elkartea@gmail.com-en egin daiteke.

OHARRAK

Igerileku txikia

Berritze lanengatik abuztuaren 30a ezkerro itxita zegoen, eta erabilgarri dago.

Udal euskaltegia

Izena eman daiteke irailaren 28ra arte: 943 76 44 53.

Txapa irratia

Irratsaio bat egin nahi? Bilera irekia urriaren 3an (18:30), Kartzela zaharrean.



URBIETA | Barne diseinua

ETXEEN ERABERRITZE
INTEGRALAK

PROIEKTUAK

DEKORAZIOA

GREMIOEN
KOORDINAZIOA



IBARGARAI 11 - 13, BEHEA • BERGARA • TEL.: 943 76 14 50 • URBIETAINTERIORISMOA@HOTMAIL.COM •



Langileak plaka fotovoltaikoa eskuetan dutela, pilotalekuan. MAIDER ARREGI



JOXE ANJEL ARBULU

40 lagun berriro elkarrekin

Pandemiaren ondorioz hamazazpi hilabetez itxita egon ostean, Landatxopek ateak ireki zituen astelehenean. Bertaratutako 40 erretiratutako gustura hartu dute elkartearen irekiera, eta berriro elkarrekin egon izanari balioa eman diote. "Giro ederra izan genuen eta erretiratu ugari animatu zen irekiera ekitaldira", azaldu du Joxe Anjel Arbulu presidentek.

Pilotalekuan plakak jartzeari ekingo diote

Asteon ziren plaka fotovoltaikoak pilotalekuko teiltuan jartzen hastekoak. Baina eguraldiak eraginda, datorren astera atzeratu dituzte lanak. Dena den, teiltu-hoditeria berria jartzeko lanekin hasiak dira. Berogailua ere jarriko dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Herriko eraikin publikoak energia berriztagarritik hornitzeko asmoz, datorren astean hasiko dira udal pilotalekuko teiltuan plaka fotovoltaikoak jartzen. "Aste honetan plakak teiltuan jartzen hasteko asmoa geneukan, baina, eguraldi iragarpenak medio, datorren astean jarriko dira. Hala ere, teiltuan zenbait konponketa egiteko lanetan hasi gara. Zehazki, teiltu-hoditeria berria jartzen hasi gara. Bi lanak, plakak eta hoditeria jartzeko, batera egitea zen asmoa, baina, adierazi bezala, plakena atzeratu behar izan dugu", kontatu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek. Gaineratu du pilotalekuan berogailua jartzeko lanak ere egingo dituztela.

Herriko bi eraikinetako teiltuetan –pilotalekuan eta Herri Eskolan– 128 plaka jarriko dituzte, guztira; erdiak baino zertxobait gehiago pilotalekuaren teiltutako albo banatan. Lanek, guztira, 38.121 euroko kostua

dute. "40 kilowatteko eguzki instalazioa da. Irailean bukatzeko asmoa zegoen, baina eguraldiaren arabera pixka bat atzeratuko da".

Argindar jasangarria

Autokontsumo energetikoaren aldeko apustua egina du Antzuolako Udalak. Hala, behin 128 plaka horiek ezarrita, posible eta errentagarria izango da energia berriztagarritik hornitzea gaztetxea, Olan, eskola zein patioa, udaletxea, pilotalekua eta Torresoroa osoa. "Urrian martxan jarriko da argindar jasangarriaz hornitzeko bidea. Urtean aurreztuko dena asko da, eta 4-5 urtean amortizatuko

**KALE ARGITERIA
ENERGIA
JASANGARRIZ
HORNITU OTE
DAITEKEEN AZTERGAI**

da egindako inbertsioa", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Kaleko argiteria

Bigarren fase batean, Aitzako depositutik kalera doan ur-jauziak behar beste energia sortu dezakeen ere aztertuko dute. Helburua da ur-jauzi horren energia aprobetxatu eta Ondarre, Herriko Plaza, Kalebarren, Aihera eta Beheko auzoa argi jasangarritik hornitzea. "Azterketa egingo da eta errentagarria den edo ez ikusiko da. Hala balitz, aurrera egingo genuke proiektuarekin", gaineratu du.

Autokontsumo energetikoa

Goienerek antzuolarrei dei egin die autokontsumo kolektiboa bultzatzeko urriaren 6an 19:00etan egingo den bileran parte hartzeko. "Elkartzen garen jende kopuruaren arabera udaletxean edo Torresoroan egingo dugu. Interesa duten orok udala@antzuola.eus helbidera mezua idatzi dezakete".

Olio bilketarako edukiontzi berriak jarri dituzte

Olio bilketarako edukiontzi berriak jarri dituzte herriko zenbait gunetan. Orain arteko edukiontzi berdea aldatu egin dute, eta horren ordezkari edukiontzi laranja jarri dira hiru gunetan. Hala, edukiontziok San Josepen, Sagastin eta Antiguan jarri dituzte. Aurreratzean, herritarrek ez dute ontzia berriro bueltan jaso beharko.

'Nekatutak' bakarrizketa saioa gaur Torresoroan

Antton Telleria tolosarrak *Nekatutak* bakarrizketa saioa eskainiko du gaur, egubakoitza, Torresoroa aretoan, arratsaldeko zazpi eta erdietan hasita. Ordu bete inguru iraungo du emanaldiak, eta sarrerak aurrez hartu behar dira, ohiko bideen bitartez: labur.eus/sarrerakan-tzuola webgunearen bidez edo liburutegira jota.

GORA ETA BEHERA



Patioaren barrualdea, babestuta

Eskolako patioaren barrualdeko ertz gehienak puskatuta zeudela-eta, babesteko estalkia jarri berri dute udal-langileek aste honetan, arriskua saihestu aldera.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Odol berriak gogotsu hartu du erreleboa

37 urtez aritu dira Begoña Lete eta Jose Angel Arbulu Antzuolako odol-emaileen elkarteak kudeatzen. Hemendik aurrera, lau hilean behingo hitzorduak koordinatzeaz arduratuko direnak Ainitze Segurola eta Arrate Aranguren izango dira

Hasier Larrea ANTZUOLA

1984ko otsailean osatu zuen Antzuolako odol-emaileen zerrenda lehenengoz Begoña Letek. Oraindik etxean dauka koaderno, garai hartan gauzak nola egiten ziren gogoratzeko: "Bakoitzaren izena, nortasun agiriko zenbakia eta odol-taldea apuntatzen genituen; orain, hori guztia ordenagailuz egiten da".

Badira, ordea, aldatzen ez diren gauzak. "Antzuolarren odola emateko grina, esaterako", dio Jose Angel Arbuluk. Leteren antzeko garaian sartu zen bera ere herriko odol-emate hitzorduak kudeatzen: "Jendea erakrri, merienda prestatu, urteroko dominak banatu... Gustura egiten genuen, ekitaldien ostean kalean afaltzera gelditzen ginen

odol-emaileekin". Agian, sortzen giroagatik izango da, baina deigarria da zenbat antzuolar animatzen diren lau hilabetetik behineko ekimen solidariora. Antolatzaileek diote "askotan" azaldu direla 80tik gora, baita behin 100 pertsonako langa gainditu zutela ere: "Udaletxean egin genueneko batean, 101 lagun etorri ziren".



Jose Angel Arbulu, Begoña Lete, Ainitze Segurola eta Arrate Aranguren, Torresoroako sarreran, astearteko ekitaldian. H.L.

San Mateo torneoko finala jokatu du bihar Leire Galeanok


Logroñoeko Adarraga pilotalekuan saiatuko da txapela irabazten, Ana Belmonte errioxarraren bizkartzain duela, Galeano ahizpetan gazteena. Aurrean etxeko bi pilotari izango dituzte, Ibone Salinas eta Alejandra Bylia, 11:00etan hasita. Neurketa parekatua izango dela aurreikusuten du bi pilotarien aitak, Josemari Galeanok, "pandemia au-

rretik euren aurka jokatzekoan ikusi bezala".

Partida hura batera jokatu zuten Galeano ahizpek, baina oraingo torneoan bereizi egin dituzte, elkarren aurka jokatzeko egokituta. Nagore, ahizpa zaharrena, atzelari aritu zen, ezohiko postuan, alegia, eta aitak adierazi du "bi eskuakin ondo" moldatu zela. Hamaseina berdindu ostean, azken bi tantoak ahizpa gazteenaren aldekoak izan ziren, eta finalerako txartela eskuratu zuen, bide batez.


Arrolaren hurrengo irteeraren helmugak, Burgos eta Errioxa

Urriaren 2an eta 3an, Lagunas de Neila eta Pico de Urbion bisitatuko dituzte Arrola mendi elkartekoek. Izen-ematea irailaren 25era arte egongo da irekita, arrolamt@gmail.com helbidera idatzita. Autobusaren, afariaren, loaren eta gosariaren truke 45 euro ordaindu beharko dute federatuek eta 50 gainontzekoek. Plazak mugatuak dira.



NICOLETA ROSOCHA
ODOL-EMAILEA

"Urte hasieran hasi nintzen odola ematen, koronabirusa hartu eta gaizki pasa nuelako; nire odolaren plasma behar dutenek ondo jasoko dute".



PATXI KORTABARRIA
ODOL-EMAILEA

"Hamar urte daramatzat hona etortzen. Positibo izan ginenon odola ZIU daudenentzako ona dela esan zidaten; beraz, arrazoi bat gehiago etortzeko".

Gazteen txanda orain

Odola ematera 25 eta 40 urte arteko "jende asko" gerturaten dela nabarmendu dute Letek eta Arbuluk, eta hori izan behar dela jarraitu beharreko helburua; hau da, "jende gaztea erakartzea".

Egiteko hori, eta elkarteko gainontzekoak, Ainitze Segurola eta Arrate Aranguren hartuko dituzte euren gain aurrerantzean. Errelebo aldaketa "modu naturalean" gauzatu dutela diote, "bi aldeak hasieratik ados" jarri zirelako. Arbuluk eta Letek onartu dute "atseden hartzeko premia" zeukatela.

Joan den astearteko odol-emaileen hitzorduan jarri zuten praktikan aurreko arduradunek erakutsi dietena bi boluntario berriek, eta ekimenak izandako arrakastarekin pozik azaldu dira: "50 lagunentzako zitak eskaintzea geneukan aurreikusita, baina, azkenean, beste hamar laguni eman diegu aukera, goizean zehar telefonoz dei ugari jaso ditugulako, aurretiko hitzordua eskatzeko".

Hain zuzen, jendeak erantzuten jarraitzea da bi boluntarioen helburua, eta aldarte onarekin

hasi dute ibilbidea, oraingoz. Duela bi aste, Gipuzkoako odol-emaileen elkarteko egoitza nagusian egon ziren, Donostian, bertako instalazioak eta historia ezagutzen, beste herrietako ordezkariekin batera. Dinamikan sartzeko "modu aproposa eta interesgarria" izan zela nabarmendu du Segurolak.

Odola, EAE osora

Gipuzkoako odol-emaileen elkarteko hiru erizainek eta mediku batek artatu zituzten astearteko odol-emaileak. Egunean joaten dira herriz herri material guztiarekin furgonetan, ondoren jasotako dohaintzak Galdakaoko odol-bankura eramateko. Hortik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ospitaleetara banatzen dute, behar gehien daukaten pazienteek transfusio bidez jaso dezaten. Mikel Ruiz de Alegria medikua esker oneko azaldu da ekimenean parte hartzen dutenekin: "Abuztuaren erretsebak nahiko baxu zeuden, eta deialdia egin genuen irailean, hitzorduetara jende gehiago hurbildu zedin; lasaiago gaude, erantzun ona jaso baitugu".

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Berdintasun Saileko Marijo Etxegoien, Oihane Ruiz de Apodaka, Izaro Elorza eta Anik Zubizarreta. O.E.

Berdintasunera iristen lagunduko duen plana

Bigarren Berdintasun Plana aurkeztu du Oñatiko Udalak, Berdintasun Sailetik atera bada ere Udaleko gainerako sailetara ere zabalduko dena, helburua gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna delako, genero ikuspegia udal politiketan txertatuz

Oihana Elortza GOIENA

Estrategikotzat du berdintasuna Oñatiko Udalak, eta, hori oinarri hartuta, bigarren Berdintasun Plana definitu eta zehaztu du, "teoria eta mugimendu feministak eraldaketa sozialerako egiten duen ekarpena handia dela kontuan hartuta eratutako plana". Berdintasun Sailetik bultzatutako plana da, baina beste arloetara ere zabalduko dena.

Zeharkakotasuna lortu

Zeharkakotasuna da, hain zuzen ere, plan honen barruan pisu handia duen helburuetako bat. "Etxetik, barrutik, hasi behar dugu genero berdintasunaren ikuspegia txertatzen, baita politiketan ere. Udaleko beste sailetako jardueretara ere zabaldu behar da", adierazi du alkate eta Berdintasun Saileko batzordeburu ere baden Izaro Elorzak.

Hainbat printzipio gidari jaso dituzte plan horretan: aukera berdintasuna, interseksionalitatea, genero ikuspegia, emaku-

meen ahalduntzea eta emakumeen parte-hartzea, tartean. Eta printzipioekin batera bermeak ere jarri dituzte: konpromiso politikoa, baliabideak eta gainerako sailek eta erakundeek inplikazioa izatea. Lanketari dagokionez, bide hauek zehaztu ditu Elorzak: "Trebakuntza, teknikari zein politikariengan, lan prozeduretan genero indarkeria txertatzea, berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana bermatzea transbertsalitatea lortzeko eta Udaleko lan arloko barne mailako politikan berdintasun ikuspegia txertatzea".

Ekarpenekin osatutako plana

2012an egin zuen Oñatiko Udalak lehen Berdintasun Plana.

LAN PROZEDURA ETA EKINTZAK JASOTA DAUDE, BAITA INPAKTUA NEURTZEKO ASMOA ERE

Gizarte Zerbitzuetatik kudeatu zuten, oraindik Berdintasun Sailik ez zegoelako. Harrezkero indartu egin duten saila da; departamentua ez ezik, teknikaria ere badu egun, eta, lehen planaren eguneraketa eginda, bigarrena landu eta definitu dute orain. Oihane Ruiz de Apodaka Berdintasun teknikariak azaldu duen moduan, hamalau bilera egin dituzte prozesuan eta udal ordezkariekin, teknikariekin eta herriko beste eragile batzuekin ere konpartitu eta kontratatu dute, hala nola herriko sare feministarekin, Emakume Kontseiluarekin eta pentsiodunekin. Ekarpeneak aztertu eta planean txertatu ostean, sozializazio fasean sartu dira orain.

Sei urterako

Sei urterako plana da hori. Printzipio gidariak nola landu eta zein ekintza egin pentsatuta eta jasota dute planean, baita jarraipena egitea eta inpaktua neurtzea ere.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Bidegorri gainean aparkatutako kamioia

"Aparkatu non-nahi eta txaloak jasoko dituzu", dio argazkia bidali duen herritarrek. Aste honetan ateratakoa da, "Mugikortasun Astearen barruan".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Tokia dago oraindik 'Uler-saioak' egitasmoan aritzeko

Uler-saioak izeneko metodologia berria probatuko dute datorren ikasturtean udal euskaltegian, euskal hartzaile kopurua handitzeko, eta izena emateko epea zabalik dago probatu gura dutenentzako. Euskaraz hitz egiten ez jakin arren ulertzeko gai izango diren herritarrek presatu gura ditu, *belarriprest* kopurua handitzeko.

Urriaren 5ean da elkar ezagutzeko hurrengo kafe tertulia

Bakarrik sentitzen direnak beste batzuekin tarte batez elkartu eta elkarrekin kafe bat hartuaz elkarri konpainia egiteko ekimena berriz dago martxan, udako etenaren ondoren. Pake Leku erretiratuen elkartearen elkartzera dira, martitzenetan, 17:00etatik 18:00etara. Urriaren 5ean da hurrengo hitzordua. BiziPoz-ek kudeatuko du.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Euskal espetxe-eredua

Kartzeletako transferentzia Gernikako Estatutuan aurreikusita zegoen, eta aurten, 42 urteko atzerapenarekin, euskal espetxeen funtzionamenduaren ardura Eusko Jaurlaritzaren esku gelditu da. Hiru espetxe, 1.000 lagun baino gehiago preso -44 EPPK-koak-, 700 langile inguru, eta hau guztia kudeatzeko, 70 milioi euroko deskontua kupoaren ordainketan.

Preso guztien birgizarteratze prozesuak onez landuko ditugula entzun dugu, emakume, adingabe eta eriek arreta berezia izango dutela, erdi-askatasuneko erregimena bultzatuko dela, gizartean bizikidetzaren etika sustatuko dugula, pobrezia eta bazterketa egoerak saihestuko ditugula, eta biktima guztiei arreta eta erreparazio zabal ematen saiatuko garela.

Gai honetan asko dago adosteko eta egiteko, badakit, denok dakigu, baina, gutxienez, leihor berri bat ireki zaio giza duintasunari. Ez da erronka makala! Nola gozatu askoren eta askotariko zauriak eta sufrimenduak? Nola baretu amorruak eta mendeku goseak? Nola egin lekua damua eta barkamenari?...

Zentzuz eta arduraz gozatzeko egunak datoz

San Migel eta Errosaixo jairik ez da ospatuko baina kultura eskaintza zabala egongo da datozen egunetan. Emanaldietan herritarrak disfrutatzea da Udalaren nahia, baina zentzuz, elkar zainduz eta errespetuz jarduteko eskaera ere egin du

Oihana Elortza OÑATI

Pandemiagatik bigarren aldiz, aurten ere ez dira herriko jai nagusiak ospatuko. "Helduko dira San Migelak eta Errosaixoak elkarrekin ospatzeko egunak, baina, bitartean, azken ahalegina egin beharrean gaude", azaldu du Iñaki Olalde Altzelaik, Kultura zinegotziak.

Aste barruan ere bai

Jaien ordez, eskaintza kulturala egongo da San Migel eta Errosaixo egunen bueltan, eta, plaza ondoan jarri duten karpan ez ezik, Zubikoa kiroldegian, Etxaluzen eta txosnagunean. Izan ere, egoera oraindik pandemikoa den arren, joan den urtean baino hobe da eta hainbat herri eragile ere animatu dira ekintzak antolatzea, pandemia aurretik egin ohi zuten moduan. Txosna batzordea da horietako bat. Karpa handi bat jarri du Irunberri plazan eta hantxe egingo dituzte antolatutako ekitaldiak; zuzeneko hainbat musika kontzertu,

tartean. Nekazarien Elkarateak antolatuta gazta lehiaketa eta dastatzea egingo da aurten, eta baita umeen danborrada eta artzain txakur txapelketa ere. "Eragile horiek antolatutako ekintzekin bete da gure kultura eskaintza. Joan den urtean, asteburu ezberdinetan egin ziren emanaldiak, baina aurten, aste barruan egitearen alde egin dugu, Oñatiko lantegi eta komertzio askoren egutegietan jaiegunak diren egunetan. Herritarrendako kultura eskaintza izango da eta herritarrek disfrutatzea gurakogenuke, zentzuz jokatzuz", gaineratu du Kultura zinegotziak. COVID-19aren kontrako prebentzio neurri guztiak bermatuz gauzatuko da egitarauan jasota

OHIKO TOKIETAN HAR DAITEZKE TXARTELAK PLAZAKO KARPAPAN IZANGO DIREN EKITALDIETARAKO

dagoena, eta, egon daitezkeen aldaketei dagokienez, kontuan hartuko dituztela adierazi du Olalde: "Oso aintzat hartua izango dugu unean uneko egoera. Moldaketarik egin beharra balego, moldatu egingo genuke. Halaxe eskatzen du egoerak". Ekitaldien ordutegia, baina, mantendu egingo dute, malgutu arren.

Udal zerbitzuak, itxita

San Migel eguna, irailak 29, jaieguna izaten da Oñatin, eta, hori horrela, datozen egunetan itxita egongo dira udal zerbitzuak. Kiroldegia, liburutegia eta Herritarren Arreta Zerbitzua, esaterako, itxita egongo dira irailaren 29an eta 30ean, eta baita urriaren 2an, 3an eta 4an ere. Zubikoa kiroldegian, gainera, garbiketa lanak egingo dituzte urriko lehen astean, eta urriaren 8an zabalduko dute. Udal zerbitzuak ez ezik, herriko lantegiak eta dendak ere itxita egongo dira edo ezohiko ordutegia izango dute.



Leintz-Aloña Mendi taldeko jokalariek Jabi Aspiazu presidentearekin. ALOÑA MENDI

Mutrikuren aurka jokatuko dute maila goreneko neskek bihar

Ordizian hasi zuten denboraldia joan den astean; biharko partidua Azkoagaineko lehena izango da

O.E. OÑATI

Etxean jokatuko duten denboraldiko lehen partidua dute zapatuan Aloña Mendiko futboleko emakumezkoen maila goreneko taldeko jokalariek. "Hasi ez dugu oso ondo hasi denboraldia. Ordizian jokatutakoa lehen partidua joan den astean eta han ikusi genituen gabeziak zuzendu eta ahalik eta ondoan lan egitea izango da gure aurtengo helburua. Azken bi denboraldiak nolakoak izan diren ikusita, pausoz pauso joango gara hasi berria den honetan", dio Leintz-Aloña

Mendi taldeko entrenatzaile Nerea Uriarte oñatiarrak.

Realaren kontra

Zortzi ekipo daude euren talde berean, eta Real da horietako bat. Ane Isasisasmendi eta Maren Arabaolaza oñatiarrek jokatzen dute talde horretan eta partidua hori berezia izango dela uste du Uriartek. "Normalean baino jende gehiago egongo da, ziurrenik, ikusten ere".

Asteburu honetako partidua Mutrikuren kontrakoa izango da, Azkoagainen, bihar, zapatua, 15:30ean.

Tokia dago 'fitness'-ean eta helduendako ur ekintzetan

Urriaren 8an hasiko dira Zubikoako ikastaroak eta bertan eskatu daiteke informazioa, edo izena eman

O.E. OÑATI

Urritik aurrera hasiko dira martxan Zubikoa kiroldegian antolatutako ikastaroak, eta oraindik izen ematea zabalik dago, bai nagusiendako uretako ekintzetan, bai gimnasioan egingo dituztenetan.

Igerilekuan, esaterako, igeri egiten ikasteko ikastaroak ez ezik, bestelakoak ere eskainiko dituzte helduendako. Gogortasun mailaren arabera, *aqua-gym*, *aqua-training* eta *aqua-power* delakoak dira ikasturte honetako aukerak. Astean bi egunetan

egingo dituzte, goizeko zein iluntzeko ordutegian.

Gimnasioan egingo dituzte *fitness* ikastaroetan ere badago oraindik tokia. Pilates, oihal, *body balance*, *fit bike*, *krossfit* eta gimnasia hipopresibo saioak daude, esaterako, aukeran. Gehiago ere badira, eta guztien gainera informazioa eta izen-ematea Zubikoa kiroldegian bertan eskatu edo egin daiteke. Urriaren 8an hasiko dira ikastaroak eta egoerak agintzen duen neurri eta protokolo guztiak jarraituta egingo dira.



Joan den urtekoa baino pixka bat handiagoa da aurten plaza ondoko gunean jarri duten karpa. O.E.



Lide Zubiaga, Mariñoren kontrako partiduan, defentsa gaintzen. IMANOL SORIANO

Zigorra 'leundu' egin diote Leintz Arizmendiri

FUTBOLA Pandemia egoeran futbolearen ez jokatzeko erabakia hartu izana garesti ordaindu dute Leintz Arizmendiko neskek. Mailaz jaitsita eta zigor ekonomikoa ordainduta, orain, Euskadiko Federazioak aho batez onartu du mailaz igo ahal izango

Xabier Urzelai ARRASATE
Iaz azaroan Leintz Arizmendiko neskek hartutako erabakia garesti ordaindu dute. Euskal Ligara igo berri zeuden, pandemiagatik Euskal Herriko herri asko egoera *gorrian* zeudenean Jaurlaritzak euren txapelketa hastea baimendu zuen, kategoria erdi-profesionalen multzo barruan sartuta. Taldearen eta

jokalarien baldintzak, noski, oso urrun zeuden profesionalismotik eta ez zituzten klub handiagoek izan ditzaketen baliabideak. Hala, ziurgabetasun egoera horretan debagoiendarrak ez jokatzeko erabaki zuten, eta araudia aplikatuta Euskadiko Federazioak zigorra jarri zien: kategoria galdu, 760 euroko isun ekonomikoa eta beste urtebetez

mailaz ez igotzeko zigorra, hain zuzen ere.

Aho batez hartutako erabakia
Zigorraren azken puntu hori kentzeko lanean ibili da Gipuzkoako Federazioa, eta joan den asteburuan jakin zen berria: Euskadiko Federazioak aho batez onartu du zigorra *leuntzea*: mailaz igo ahal izango dira.


"Duela urtebete hartutako erabakia berdin hartuko genuke orain ere"

AINHOA ITURRIOZ ETA URTZI AMIANO LEINTZ ARIZMENDIKO KIDEAK

Euskadiko Federazioak hartutako erabakia jakin berri egin zuten salto Leintz Arizmendiko neskek domekan Mojategiko zelaira. **Albiste pozgarria, zalantza barik, asteburuan jaso duzuen.** Urtzi Amiano: Pentsa, partidu aurretik jakin zuten jokalariek, eta 3-1 irabazi zioten Mariño taldeari. Motibatuta irten ziren. Eskerrak eman behar dizkiogu Gipuzkoako Federazioari, badakigulako zigor hau kentzeko lanean ibili dela.

Izan ere, urte oso bat jokatzeko ibiltzea, jakinda gauzak ondo eginda ere ez zinetela mailaz igoko...

Ainhoa Iturrioz: Garbi dago jokalarion motibazioan horrek eragina izan behar zuela. Hala ere, urtebetez futbolearen jokatu barik egon eta gero taldearen helburua gehiago zen formakuntzarena, taldea osterata egitea, gure arteko harremanak sendotzea...



GOIENA

Urtebete atzera egingo

bagenu, berriz ere erabaki berbera hartuko zenukete?

A.I.: Bai, ez jokatzeko erabakia hartuko genuke orain ere. Ez geunden jokatzeko moduan, egoera ez zen batere ona eta ziurgabetasun handia zegoen. Asko kosta zitzaigun erabaki hura hartzea, baina Arrasate, esaterako, egoera *gorrian* zegoen. Ez genuen uste batera eta bestera ibiltzea egokia zenik, eta kutsatzeak ekidin gura genituen.

Mailaz igotzearen debekua kendu izana eraginkorra izan daiteke? Alegia, mailaz igotzeko borrokan ibil daiteke Leintz Arizmendi?

A.I.: Garbi dago penatuta geratu garelako Euskal Ligan jokatu ez dugulako, amets polita zen hura eta arantza barruan geratu zitzaigun. Eta orain ez dugu baztertuko mailaz igotzea; goiz da ezer aurreratzeko, baina gogotik egingo dugu lan aurrean ibiltzeko.

Zigor kontuak alde batera utzita. Urtzi, egonkortzen dabilen proiektua da Leintz Arizmendi?

U.A.: Bai. Badira urte batzuk Arizmendik UDArekin eta Mondrarekin indarrak batu zituela, eta azken urteotan Aloña Mendi batu da proiektura. Hori oso pozgarria da, bailarako neskek badakite non jokatu dezaketen futbolearen. Goiko taldearen emaitzak positiboak dira, behekoendako erreferente direlako. Baina, esaterako, infantil mailan 40 neskek eman dute aurten izena, eta horrek pozten gaitu gu. Hori da benetako helburua, neska guztiei aukera ematea.

Aristi eta Irizar talde laranja izango dira 2022an ere

ZIKLISMOA Astean eman dute aditzera Mikel Aristik taldean jarraituko duela. Irizarrek kontratua zuen 2022an ere

X.U. ARRASATE
Euskaltel-Euskadi taldeak bost txirrindulari baiezatu ditu hurrengo urteari begira: Mikel Aristi (1993), Iker Ballarin (1997), Joan Bou (1997), Gotzon Martin (1996) eta Antonio Soto (1994).

Aristi eskarmentu handiko txirrindularia da, 30 urte bete ez dituen arren. Aurten, denboraldi hasieran protagonista izan zen zenbait lasterketatan. Lautan helmugaratu zen bigarren postuan, GP Valentzian, Per

Sempre Alfredo proban eta Alentejoko (Portugal) bi lasterketatan. Hala, garaipenetik gertu ibilita, errematatzea falta izan zaio.

Horren harira, taldeak hama-bi lagun baiezatu ditu 2022ra begira. Aurretik aipatutako bost lagun horiei batu behar zaizkie joan den asteburuan Oñatin irabazi zuen Laboral Kutxako Unai Iribar, haren taldekide Xabier Mikel Azparren, Mikel Bizkarra, Julen Irizar (Bergara), Mikel Iturria, Juanjo Lobato eta Luis Angel Mate.



Aristi eta Irizar, 2020ko neguan, Gorrilako gainean. X.U.

Hawaii, behin eta berriro atzeratutako ametsa

TRIATLOIA Mikel Mujikak 2019ko abuztuan lortu zuen, Frantzian, Hawaiiiko Ironman proba entzutetsura sailkatzea. Edozein triatloilariren ametsa dena, baina, ametsgaizto bilakatzen ari zaio, proba behin eta berriro atzeratzen dabilzalako

Xabier Urzelai ARRASATE

Oraindik ez dute erabat konfirmatu, baina badirudi urrian Hawaiiin egin beharreko ironmana ostera ere atzeratu egingo dutela -2020ko edizioa izan beharko litzateke-. Eta, hain zuzen, mezu ofizialaren zain dago Mikel Mujika (Bergara, 1989): "Beste denboraldi bat helburu hori begiz jota, eta orain ere ez da posible izango. Badirudi otsailera atzeratuko dutela, baina ez nuke halakorik nahi, ea datorren urteko urrian egin dezakedan. Izan ere, ez dut pentsatu ere egin nahi zer izango litzatekeen neguan halako ironman bat prestatzea. Alegia, hemen neguan eguraldiak ez du laguntzen".

Hain zuzen, Bergarakoak ondo baino hobeto aprobeztatu ditu udako hilabeteak: "Asko entrenatu naiz, abuztuan bero gehien egiten zuen momentuan irtetzen nintzen entrenatzera, eguerdian, Hawaiiiko kondizioetara ahalik



Mikel Mujika Zuian. NAIKEFOTOSPORT

eta gehien gerturatzeko. Sakrifizioa da, norberarendako eta gertukoendako; horregatik diot proba ostera atzeratzea kolpea dela, ametsa zena dagoeneko kontrako eztarritik sartu zaigu, dio umorea galdu barik.

Triatloilari osoagoa

Bi urte hauek ez dira, baina, zaborrontzira botatakoak izan. Ezta gutxiago ere. Izan ere, gogor entrenatuz Mikel Mujikak oso atzean utzi du duela bi urte zen triatloilari hura. Entrenatzailearekin, denboraldia ondo planifikatuta, eta ordu askotako lanari esker aurrerapauso handiak eman ditu, eta bestelako probetan ikusi da hori. Esaterako, Espainiako Openean podiumetik oso gertu dago orain momentuan, eta joan den asteburuan Bilbon egin zuten Espainiako Txapelketan, elite mailako *half* distantzian, hamar onenen artean helmugaratu zuen: "Triatloi bat irabaztea baino poztasun handiagoa ematen du horrek, estatuko triatleta onenetako bertan zeudelako -Nabarmentzeko Mikel Ugarte oñatiarrak egindako seigarren postua-. Sikiera, bestelako probetan gozatzen ari gara, eta ez da gutxi".

'Quebranta'-n seigarren egin, eta domekan besoak altxatu

ZIKLISMOA Iker Eskibel eskoriatzarrak bi hitzordu kateatu ditu asteburuan; domekan Caja Rural kopa irabazi zuen

X.U. ARRASATE

Quebrantahuesos martxa zikloturistako helmuga gurutzatzean zikloturistaren buruan atseden hartzea egoten da. 200 kilometroko martxa da, 3.500 metroko desnibel positiboarekin. Berez, ez da lasterketa, baina aurreko postuetan benetako lasterketa giroa egoten da. Eta horretaz jabetu ahal izan da, asteburuan, Iker Eskibel eskoriatzarra: "Aurrean lagun gutxi egoten dira, hori ikusi dut", adierazi dio eskoriatzarrak GOIENARI, barez -Aipatzekoa Iker Ibabe



Iker Eskibel helbugaratzean. ITZALAK

aretxabaletarra hamargarren izan zela-.

Kasu honetan, baina, domekan atsenden hartu beharrean Eskibel errepideko bizikleta mendikoarekin aldatu eta Aratzuriko (Nafarroa) lasterketako irteera puntuan azaldu zen. Hor, ziklistek 6,7 kilometroko zirkuituari zenbait itzuli eman behar zizkioten, eta lehenengoan Eskibel lurrera joan zen. Hori, baina, ez zen lasterketa irabazteko traba izan. Lasterketa ikustera joandako lagunei bostekoa ematen pasa zuen helmuga. Eta bide batez, Caja Rural Opena poltsikoratu zuen: "Quebranta-n eguraldiak ez zuen batere lagundu, baina oso gustura ibili nintzen. Pena ere badut: katearekin arazoak izan eta mekanikariaren laguntza behar izan nuen".

Goienakideen txokoa

Iraileko sariak



SPC Tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
GASTROLOGIA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org
Eskatu Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
*Goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena (DNI/NIF) lagun ezarri, jakinarazi dagoen bitartean Goiena komunikazio zirkuituan Erabazlearen izena laster kontatu diko. Datu bilera/bera helburu bakarra da irabazlearen izena zozketarako. Eskubide larriko diru-erabilerak. Lehiaketa irabazteko zozketak. Helbide larriko datu geroziak@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

LARRINETXE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otoroban atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: irailak 28

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 *Goiena app'-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE .Jatetxeo [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€
Datuz: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGA TU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Hogei urtetik gorako ibilbide oparoa duen Kimuak plataforman jarduten du Txema Muñozekin batera Aretxabaletako Esther Caberok.

Zorionak! Pozik?

Eskerrik asko! Urduri samar egon gara aurreko egunetan, baina oso pozik igo ginen martitzenean Victoria Eugeniako agertokira, eta lortu genuen gero nerbioak ahaztu eta galarekin gozatzea, eta oso egun polita izan zen.

Sariaren bidez, itzaletik argitara atera zarete.

Bai, hala da; ez da gure ohiko lekua fokuaren aurrean egotea, atzeko lanetan baizik; izan ere, Txema Muñoz lankidea eta biak teknikariak gara. Azken finean, Kimuak da saria jaso duena, eta entitate horren ordezkari moduan guri egokitu zaigu aurtengo saria jasotzea.

Ze garrantzi ematen diozu Zinemira sariari?

Sorpresa handia izan da, sektoreko elkarte nagusietatik –Donostia Zinemaldia, EPE-APV eta IBAIA ekoizle-elkarteak– datorelako sari hori; hortaz, sektorearen babesa sentitzea hunkigarria da. Aurreko aldietan nork jaso duen ikusita, are gehiago: Imanol Uribe, Alex Angulo, Elias Querejeta... Estreinakoz, bada, pertsona batek beharrezan egitasmo batek jaso du, eta oso eskertuta gaude, duda barik!

Ze helburu ditu Kimuak egitasmoak eta noiz abiatu zen?

Euskal ekoizpenak banatzeko, nazioartean ezagutzera emateko eta sustatzeko Eusko Jaurlaritzak bultzatutako egitasmo bat da. 1998an jaio zen, banaketa esparruan hutsunea zegoelako. Garai hartan, euskal filmak egiteko dirulaguntzak ematen zituen Eusko Jaurlaritzak, eta film arrakastatsuak ere bazeuden, baina ez zen horien banaketa bermatzen. Hori horrela, orduan Eusko Jaurlaritzako Kultura zuzendari zen Amaia Rodrigezek eta gaur egun Zinemaldiko zuzendari den Jose Luis Rebordinosek formula hau asmatu eta martxan jarri zuten. Eta, hurrezkerok, hala ari gara film larrek eta euskal filmak nazioartean ezagutzera ematen.

Eta zu, Esther, noiztik zaude Kimuak-en lanean?

Hamaika urte dagoeneko, eta aurretik Zinemaldian jardun nuen lanean; hortaz, ikusten

"Hunkigarria da euskal zinemaren industriaren babesa sentitzea"

ESTHER CABERO KIMUAK EGITASMOKO KOORDINATZAILEA

Euskal zinemaren industriak euskal film laburren hedapenean Kimuak-ek urteetan egindako lana txalotu du Zinemaldian, Euskal Zinemaren Galan, Zinemira sariarekin



Esther Cabero, Donostia Zinemaldian, martitzenean. IMANOL GALLEGU

duzuen moduan, nire lan ibilbidea euskal zinemara lotuta izan da beti.

Zelan banatzen dituzue lanak?

Denetik egiten dugu biok: filmak batu, ikusi, katalogoak osatu, jaialdietara joan... Lan dezente dago, bai.

Azken katalogoa edo bilduma aurkeztu berri duzue Donostian.

Bai; urtero legez, zapatuan egileen eta protagonisten aurrean eskaini genituen emanaldi pribatu batean, Zinemaldian. Elkar

ezagutzeko aukera polita izan zen oraingoan ere.

Azkeneko bilduman dago Mikel Gurreak zuzendu duen eta Haizea Osés arrasatearra protagonista den Heltze film. Zelakoa da?

Spoiler handirik ez dut egingo, filma pantaila handian ikusteko aukera izango delako. ETA-ko kide izateagatik protagonistaren anaia kartzelan edo ihes eginda dago, egileak ez du argi erakusten, eta Sarak (Haizea Osés), nerabe izanda, erreali-

tateari aurre egin beharko dio, eta eskalada izango du horretarako tresna edo baliabide nagusi.

Noiz izango da ikusteko aukera?

Udazkenean zinema jaialdiak eta bestelako ekimenak izango dira, eta horietan eskaintzeko ahaleginetan ari gara.

Venezia Mostra jaialdi ezagunera ere heldu da. Ez da gutxi!

Ikaragarria izan da, bai; izan ere, Mostran lehenengo aldiz erakutsi da euskarazko film labur bat. Zaila da edozeinendako haraino heltzea, eta lortu dugu! **Uste duzu sortzaileek eskertu egiten dutela Kimuak-en ahalegina?**

Bai; hori esaten digute. Nazioartean filma ezagutzera ematea bermatzea ahalbidetzen du Kimuak-ek, eta, era berean, eurei, zinemagileei, banaketa prozesua ahazteko aukera ematen die egitasmoak, eta proiektu berrietan sartu ahal izateko aukera eman; modu baten esanda, buru-karga bat kentzen diegu.

Debagoieneko zinemagile askoren lanak batu dituzue zuen bildumetan.

Hala da! Asier Altuna *Kixi*-k, esaterako, zazpi lan ditu jasota, lehenengo katalogotik hasita, gainera, 1998an *Txotx* zegoen eta. Aitor Arregi oñatiarraren lanak ere badaude, eta baita Arrasateko Iban del Campo zuzendariak egindako bi ere, azkenekoa iazkoan, eta *Érase una vez en Euskadi* film luzea aurkeztu berri duen Manu Gomez arrasatearraren *Hilarri* ere bai.

Zuen egitasmoa aktoreentzako ere erakusleho aparta da. Zuk ere hala uste duzue?

Hala da, bai, aktoreentzako ere teknikarientzako ere hala dela esango nuke. Beste programa batzuekin batera, Kimuak-ek Euskal Herrian zinema industria ehuntzen lagundu du.

Asier Altunak *Hondalea* dokumentala aurkeztu du egunotan. Ikusi duzue?

Erakunde eta bestelako elkarte askorekin bilera asko izan ditugu egunotan, eta ezin, bada, oraingoz, *Kixi*-ren lana ikusi, baina lehenbailehen ikusteko gogoia dut, bai.

Eta Manu Gomezena ikusteko aukerarik izan duzue?

Nire asmoa hori zen, baina, azkenean, ez nuen gonbidapenik lortu, ez baita samurra, baina, duda barik, ikusi beharreko filmen nire zerrendan dago hori ere. Bailaran egindakoa izateak eta gertuko gertakariak kontatzeak kuriositatea sortzen dit. **Zinema arloko langileaz gainera, zinemazalea ere bazara. Zer film ikusi dituzu egunotan?**

Zinema aretoetan ikusteko zailak diren filmak ikusten saiatzen naiz Donostia Zinemaldian; eta, nola ez, euskal filmak beti daude nire zerrendan. Iciar Bollainek zuzendutako *Maixabel* ikusi nuen lehenengo, eta ondoren, Danimarkako *As in heaven*, Argentinako *Camila sale esta noche* filma eta *O gemer* (*Intziaria*) euskalduna.

Gustatu zaizu *Maixabel*?

Gustatu zait bai. Gogorra da, baina pertsonaien bilakaera eta bizipenak ikustea hunki-

"EUSKAL ZINEMA INDUSTRIA EHUNTZEN LAGUNDU DUGU"

"NIRE LAN IBILBIDEA EUSKAL ZINEMARA LOTUTA IZAN DA BETI"

"BILERA ASKO DITUGU; EZIN, BADA, GURA BESTE FILM IKUSI"

"PROFESIONALKI UNE ONEAN NAGO; HAZTEN ETA IKASTEN POZIK"

garria egin zitzaizkan. Ondo eratuta dago filma.

Eta zer diozu *O gerner* filmari buruz?

Xabi Erkizia soinu diseinatzaile nafarrak egin du. Euskal ekoizpen gehienetan egiten du lan Erkizia. *O gerner* pelikula sensoriala dela esango nuke, ez dauka dialogorik ez musikarik. Gizakiok lurraldearekin dugun harremanaren gaineko hausnarketa da, idiek tira egiten duten gurdien intzrietatik abiatzen dena. Gomendatuko nuke ikustea, euskaldunon historiarekin ere lotura handia du. **Bihar da Zinemaldiaren azken eguna. Atsedean hartzeko deseatzeko ala penaz bukatzeko?**

Aurten inoiz baino film gutxiago ikusi ditut, eta, alde horretatik, pena ematen dit amaitzeko, nahiz eta datozen estreinaldien

zain egon... Bestalde, edizio hau oso intentsua izan da, bizipen askorekin, eta eskertuko dut domekan atsedean hartu ahal izatea.

Aurrera begira ze erronka ditu Kimuak-ek?

Ikus-entzunezko panorama izugarri aldatu da 1998tik. Une bakoitzera egokitzen joan gara, baina azken bizpahiru urteetan kontsumitzeko, ekoizteko eta abarrerako ohitura berriek aldatuta esanguratsuak ekarri dituzte, eta horrek gure eredu birpentsatzea ekarriko digu.

Eta, eremu pertsonalagoan, zein da zure ametsa?

Profesionalki une onean nago, zoriontsu sentitzen naiz egiten dudarekin. Hazten eta ikasten jarraitu nahi dut, eta, zorionez, sektore honen erritmoak horretara behartzen zaitu.



Cabero eta Muñoz, Zinemira saria hartzeko unean. ALEX ABRIL

Euskal Zinemaren Galan, izarrak

Euskal Herriko zinemagintzako profesionalak eta zaleak batu ziren martitzenean Victoria Eugeniean egindako ekitaldian; eta horien artean zeuden Kimuak egitasmoa ordezkaritza Txema Muñoz eta Esther Cabero aretxabaletarra, Zinemira saria jasotzeko.

'Érase una vez en Euskadi' eta 'Hondalea', aurkeztuta

Bihar, zapatua, amaituko den 69. Donostia Zinemaldia erakusleho "aparta eta distiratsua" izan da aurten ere, bertako eta nazioarteko film berriendako eta baita Euskal Herrian datozen hilabeteetan egingo dituzten proiektu berriak aurkezteko ere

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Manu Gomez arrasatearraren *Érase una vez en Euskadi* eguaztenean, RTVE Galaren baitan aurkeztu zuten, eta han izan ziren zuzendaria lantalde teknikoko eta artistikoko kideekin. "Adiskidetasunez eta galdutako ametsari egindako omenaldi zintzoa da", dio Donostia Zinemaldiko Goienako berriemaile Imanol Gallegok, eta zera gaineratu du: "Euskal Herriko 80ko hamarkadako gertakariak lantzeko Gomezek lau gazteren begirada garbia erabili du; hau da, protagonisten ikuspuntu gozoa erabili du euren familien amets, arazo eta gatazkak kontatzeko".

"Ez lan erraza izan, baina prozesu guztia oso aberasgarria izan da", aitortu du Gomezek. Urteak kanpoan eman ostean, jaioterrira bidaiak "asko hunkitu" du zuzendaria. Egun lanpetuak besteko gozoak izan ditu Gomezek, eta, Donostia Zinemaldian aurkeztu ondoren, "gogotsu" dago urriaren 29an zinema aretoetan estreinatzeko.

'Hondalea', txalotua

Lagun artean, Euskal Zinemaren Galan, estreinatu zuen *Hondalea* dokumentala Asier Altunak. Zinemaldira eraman duen hirugarren dokumentala da Cristina Iglesias eskultoreak Santa Kla-



Manu Gomez bere lantaldearekin Donostia Zinemaldian. ALEX ABRIL

ra irlan egin duen *Hondalea* artelanaren eraikitze prozesua kontatzen duena. "Cristina oso eskuzabala izan da gurekin", azaldu du zuzendaria. 20 hilabeteko jarraipena egin dio Iglesias dokumentalak, eta, Altunak onartu duenez, "zailena pelikulan sartu beharrekoa aukeratzea" izan da. Artelanaren egile Iglesias filmarekin "gustura" dagoela dio Altunak: "Gustatu zaio irudiekin nola atondu dugun; muntaian gurekin izan zen eta aholku batzuk eman zizkigun berak. Eta haren laguntzaile

Lurdes Umerez eskoriatzarra ere hunkitu egin zen filma ikusi zuenean".

Amaia Albesen jantzia

Filmez gain, ikusmira handia sortzen dute izarren eta aurkezleentzako jantziek. Euskal diseinatzaileek egindakoak dira asko, eta horien artean dago Anne Igartiburuk irekiera galan jantzi zuena, Arrasateko Amaia Albesek egindakoa. "Opari bat izan da niretzako, eta abentura eta prozesu interesgarria".

JUANTXO ZEBERIO

MUSIKARIA

GOIENA TELEBISTA, 'ELKARRIZKETTAP'

IRAILAREN 29AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

JONI UBEDAK GIDATUTAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



OROIGARRIA



Gaizka Etxaniz Aranguren



Tio Gaizka, emun aitxitxa eta amamai patxo bana gure partez.

Bladi eta Lidek
Antzuolan, 2021eko irailaren 24an.

OROIGARRIA



Gaizka Etxaniz Aranguren



*Nahiz joan zaren agurtu gabe
zu beti jator munduan,
gau ta egun alai, adarra
jotzen
eta barrea ahoan.
Herri guztietan lagun pila bat*

*pozik zure inguruan,
hurrengo juergan egongo gara
beste askotan moduan,
zu betirako, bizi baitzara
gure bihotzen onduan.*

Agur omenaldia bihar izango da, 18:00etan, Antzuolan.

Aramaixo, Elgeta eta Arrasateko lagunak.
Antzuolan, 2021eko irailaren 24an.

ESKER ONA



Bittori Munarriz Valencia

Javier Iturberen alarguna




2021eko irailaren 18an hil zen, 91 urte zituela.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko irailaren 24an.

OROIGARRIA



Gaizka Etxaniz Aranguren



Hegaran irrifarrez zatoz, Gaizka, gure artean gelditzera. Ezta, kaxkajo?


—
Izebak: Rosario, Edurne, Pakita.
Lehengusu-lehengusinak: M.Elena eta Esteban, Javier eta M. Carmen,
Margarita eta Javier, Pilar, J. Francisco, M. Antigua eta Joserra, Iñaki eta
Conchi, Belen eta Jose Mari (†), Rafael, Jesus M. eta Izaskun, Juan Ignazio
eta Puri, Iñaki eta Ana, Tomas eta Ascen, German eta Marien, Asier eta Ana,
Agustin eta Jone, Iñigo, Maia eta Ibai, Xabi, Izadi eta Aritz, Aitziber.

Etxaniz senideak.
Antzuolan, 2021eko irailaren 24an.

OROIGARRIA



Gaizka Etxaniz Aranguren




*Ze gustura egingo genuke berriz...
Bazkari bat...
Sagardotegi bat...
Kontzertu bat...
Agian, zu zauden beste leku horretan, Trabis...*

Zure kuadrilla.
Antzuolan, 2021eko irailaren 24an.

ESKER ONA

Miguel Sagastume Narvaiza




2021eko irailaren 11n hil zen, 90 urte zituela.


Miguel Sagastume Narvaizaren familiak eskerrak eman nahi
dizkizue berarenganako adierazi duzuen maitasunagatik.
Bihotz-bihotzez!

Bergaran, 2021eko irailaren 24an.

OROIGARRIA



Gaizka Etxaniz Aranguren



Bihotzean eramango zaitugu.

Aranguren izeba-osabak eta lehengusu-lehengusinak.
Antzuolan, 2021eko irailaren 24an.

OROIGARRIA




Gaizka Etxaniz Aranguren




*Agurtu gabe joan zara gure albotik
Zuk lagatako hutsunea inork ezingo du sekula bete.
Zure barreak eta adar jotzeak faltan botako ditugu.
Bidaia ona izan, Trabis.
Beti gure bihotzian.*

Antzuolako lagunak.
Antzuolan, 2021eko irailaren 24an.

ESKER ONA



Maria Lourdes Cobos Zubia



2021eko irailaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
—
Beti izango zara gure bihotzean, amama.

Bergaran, 2021eko irailaren 24an.

OROIGARRIA

Gaizka Etxaniz Aranguren



Goizper-eko zure lankideak.

GOIZPER S.COOP

Antzuolan, 2021eko irailaren 24an.

OROIGARRIA



Gaizka Etxaniz Aranguren



*Hutsune galanta laga duan arren,
hire barre, broma ta adarjotiak betirako geatukoituk gurekin.*

Mox tabernako lagunak.
Antzuolan, 2021eko irailaren 24an.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako
guztiei euren bidea aurkitzen
lagundu diegu, orain arte
bezala, eta guztiek izango
dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak gudan
izan duzuen konfiantzagatik
eta maitasunagatik.*

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



5



4



6

1. 25. 'Quebranta' jarraian, 75 urterekin
Jose Ignazio Aranburu bergararrak egin zuen balentria hori aurreko zapatuan, Sabiñanigon (Huesca). Ander eta Jon semeen laguntza izan zuen 200 kilometroko proban.

2. Etorkizuneko skaterrak
Bixi programari esker, asko izan ziren skatean ibili ziren gaztetxo aretxabaletarrak. Hasierako ikastaroa jaso ostean, ederto ibili ziren skate gunean akrobaziak egiten.

3. 59 urte ezkontuta
Bergarako Rosa Mari Larrañagak eta Pedro Garitanok zapatuan beteko dute ezkontza-urteurrena. Dagoeneko 59 urte ezkontu zirela. "Zorionak, bikote!". Etxekoan partetik.

4. Hilaren 18an ezkontu ziren
Arrasateko Loretxo eta Iñigo aurreko zapatuan ezkontu ziren. "Zorionak, bikote! Muxu erraldoi bana, Mararen, Daviden eta Anaren partetik".

5. Hilaren 17an, 100 urte
Ana Morales Barrancosek etxekoekin ospatu zuen. Murtzian jaio eta Nafarroan ezkontu ostean, duela 65 urte heldu zen Bergarara. Egun, Matxiategin bizi da.

6. Harriarekin trebatzen
Oñatiko San Martin auzoko herritarrek 110 kiloko harri borobilarekin hainbat saiakera egin zituzten. Harri-jasotzaile lanetan ibili ziren, Inaxio Perurenak lagunduta.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkaritza (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Valeria Garcia Daza
Irailaren 30ean, 9 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, Valeria, zure familiaren partetik!



ARAMAIO
Nahia Reguero Osinaga
Irailaren 29an, 11 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat. Asko maite zaitugu!




OÑATI
Hodei Ruiz Martin
Irailaren 29an, 11 urte. Zorionak, Hodei! Oso ondo pasatu zure eguna! Disfrutatu topera! Muxu pila danon partetik. Bereziki, amatxo, aitatxo eta Lur.




BERGARA
Maddi Lopez Usaola
Irailaren 28an, 6 urte. Zorionak, maitxia! Aitaxo, amatxo, Aner eta Malenen partetik. Muxu potolo bat.




ARETXABALETA
Inar Isasmendi Zabala
Irailaren 27an, 6 urte. Zorionak gure etxeko gizontxoari! Sei urte honezkeroko eta haundiketan! Bikain pasatu zure urtebetetzean eta besarkada eta patxo handi bat, bihotzez maite zaituen familia osoaren partetik!



BERGARA
June Maiztegi Arruti
Irailaren 27an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, potxola, familixakuen partetik! Primeran pasatu zure eguna! Muxu potolo bat!



BERGARA
Maia Ugalde Iruin
Irailaren 27an, 3 urte. Zorionak, Maia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada eta patxo handi bat etxeko guztien eta, batez ere, Ekainen partetik.




OÑATI
Iker Rodriguez Okendo
Irailaren 26an, 12 urte. Zorionak, Iker! 12 urte jada... Ondo pastua zure eguna, eta asko disfrutatu. Muxuak eta segi horrela.



ARRASATE
Lier Lizaur Sagasta
Irailaren 25an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Jada sei urtetxo! Egun ederra pasatu, lagun eta familia artean! Besarkada handi bat! Muak!




ARRASATE
Eider Dominguez Garai
Irailaren 25ean, 7 urte. Zorionak, Eider! Neska handi! Ederto ospatuko dugu zure urtebetetzea. Patxo pila bat etxeko partetik.



ARAMAIO
Irene Arrizabalaga Gonzalez
Irailaren 25ean, 8 urte. Zorionak, politx hori! Super ondo ospatu zeure egune, asko merezi dozu-eta! Familixako danon, eta batez be, nire partetik.



BERGARA
Mia Dominguez Gonzalez
Irailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, politx hori! Bost urtetxo ja! Egun politxa pasatu eta ederto ospatuko dugu! Opari asko jaso! Mila patxo erraldoi! Mua!



ARRASATE
Ane Atondo
Irailaren 25ean, 27 urte. Zorionak Piliarentzat, Miliren partetik! Ondo ospatu eguna! Muxu potolo bat!



ARRASATE
Araitz Gartzia Dorransoro
Irailaren 24an, 9 urte. Zorionak, Araitz! Zeinen neska polita bihurtzen ari zaren! Etxeko guztiok izugarri maite zaitugu.




OÑATI
Maddi Lopez Inza
Irailaren 24an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, Maddi! Topera disfrutatu zeure eguna, merezi dozu-eta! Patxo potolo bat maite zaitugun danon partetik!



ARRASATE
Aimar Domingos Garay
Irailaren 24an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Sei urte dagoeneko. Oso ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko, eta bereziki, Nahiaren partetik.




BERGARA
Aitana Mendizabal Paya
Irailaren 24an, 11 urte. Zorionak, Aitana! Ondo ospatu zure urtebetetzea! Muxu handi bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Julen Salguero Olabarria
Irailaren 23an, 4 urte. Zorionak, bihotza! Ze azkar pasatu jakun lau urte honek. Segi beti bezelako alai. Asko maite zaitugu! Muxu erraldoi bat familiaren partetik.



ARETXABALETA
Oinatz Garro Larrañaga
Irailaren 23an, 9 urte. Zorionak, artista! Muxu handi bat familia osoaren partetik!



OÑATI
Eñaut Beitia Maisterrena
Irailaren 22an, 10 urte. Zorionak, Eñaut! 10 urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat zure etxeko partetik.



ARRASATE
Ibai Ezkurra Iturbe
Irailaren 22an, 7 urte. Zorionak, Ibaixito! Poz-pozik ospatuko danok eguna zurekin batera. Aupa, txapeldun, segi irribarre politx horrekin!



ARRASATE
Aroa Garai Urrutia
Irailaren 22an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, Aroa! Espero dugu egun zoragarria pasatzea. Patxo eta besarkada handi bat, familia osoaren partetik!



OÑATI
Enara Garcia Calzada
Irailaren 21ean, 9 urte. Zorionak, maittia! Topera disfrutatu, sorgintxo! Maite zaitugu. Aitaxoren, amatxoren, Aneren eta Hegoiren partetik, txokolatezko 9 patxo!



ARETXABALETA
Aner De la Torre Muñoz
Irailaren 20an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, Aner, aitaren, amaren eta Nahiaren partetik. Asko maite zaitugu, txikitxo! Patxo asko!



ARRASATE
Nora Rueda Calleja
Irailaren 19an, 5 urte. Zorionak, bihotza! Primeran pasatu urtebetetze eguna! Izugarri maite zaitugu! Mila muxu etxeko partetik!



BERGARA
Malen eta Inhar Aramendi Olasolo
Irailaren 19an, 3 urte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu eguna eta opari asko jaso. Muxu handi bat.



ARRASATE
Oihan Perez de Villarreal Perez
Irailaren 18an, 8 urte. Zorionak, maittia! Ze bizkor pasatzen den denbora. Zortzi urte jada! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat aitaxoren, amatxoren, eta bereziki, Laiaren partetik.



OÑATI
Gari Palacin Errasti
Irailaren 18an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, Gari! Ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetze egunian. Mila muxu danon partetik!



ANTZUOLA
Ankara Sandia
Irailaren 18an, 4 urte. Zorionak familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu, kutxufleta. Ondo-ondo pasatu eta segi horrela. Muxu erraldoi bat danen partetik.



ARRASATE
June Canales Diez
Irailaren 18an, 13 urte. Zorionak, June! Ondo ospatu zure eguna, bihotza! Muxu asko etxeko guztien partetik.



BERGARA
Ega Zabala Pozo
Irailaren 18an, 6 urte. Zorionak, politx hori! Oso ondo pasatu ginuan danok urtebetetzian, eta batez be lkerrek.



BERGARA
Ana Morales
Irailaren 17an, 100 urte. Zorionak, amama! Eta urte askotarako! Irati eta Laia. Baita Matxiategiko albokuen partetik ere.



OÑATI
Xabat Samaniego
Irailaren 17an, 7 urte. Zorionak, Xabat! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Patxo handi bat danon partetik.



OÑATI
Izar Aramburu Gende
Irailaren 16an, 5 urte. Zorionak, Izar! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat danon partetik. Batez ere lbairena!



ARRASATE
Irene Dolara Balanzategi
Irailaren 16an, 24 urte. "Da uda, uda da, da uda, uda da"! Zorionak, Irene! Danok batera ospatuko dogu "Uda"lako txiringituan!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 24

BERGARA Aidau Haurren Zerbitzua: 'Ezagutza ginkana'
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoko neska-mutikoendako.
Oxirondon, 17:30etan.

ARETXABALETA Basotxoko kantu eta dantza taldeen emanaldiak
Kultura Astearen baitan. Edukiera mugatua.
Basotxoko lorategian, 18:00etan.

ARAMAIO Hotel Ruido taldea
Bertsioak jotzen dituen Miranda de Eboko bikotearen kontzertua.
Parkean, 19:00etan.

ARRASATE 'Erresistentzia arazo fisikoa da' antzezlan
Maite Aizpururekin, euskaraz eta Jabetze Eskolaren baitan.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA Alos Quartet eta Bergarako Musika Eskolako dantzariak
Debalde, edukiera mugatuarekin.
Santa Marina parrokiaren, 20:00etan.

BERGARA Buru Gabe, The Potes eta No Limits taldeak
Sarrerak, zortzi eurotan, Arrano tabernan.
Seminarixoko karpan, 21:00etan.

OÑATI La Basuren emanaldia
Sanmigeletako kultura eskaintza.
Azoka Kultura Gunean, 22:00etan.

ZAPATUA 25

ARAMAIO Aitor Aranaren omenezko mendi martxa
25. mendi ibilaldia izango da, eta 25,2 kilometrokoa. Irteera puntuan eta anoa postuetan maskara erabili beharko da.
Kiroldegian, 08:00etan.

ARETXABALETA San Migel kulturala
10:00etan, Nekazaritza Ekologikoaren 26. azoka; 10:00etan, diana; 11:00etan, Loramendiko Tril emakume

taldearekin, taloak; 13:00etan, *Balkoitik balkoira* bertso saioa; 16:30ean, 'Pin-ball' 12-17 urte artekoendako; eta, 19:30ean, *Iratzar kantari* musika emanaldia.
Aretxabaletan, 10:00etan.

ARAMAIO 'Amatasun feminista' delako hitzaldia
June Fernandezek egingo du berba. Aurrez eman behar da izena.
Osoko bilkuren aretoan, 10:00etan.

BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua
Edukiera mugatua, izen-emate hurrenkeraren arabera.
Laboratoriumen, 11:00etan eta 12:30etan.

OÑATI Sanmigeletako kultura eskaintza
12:00etan, txosnen irekiera; 14:30ean, bazkaria (norberak ekarria); ondoren, 'hiltzailearen jolasa'; 16:30ean, Kahoot; 21:30ean, Tribade eta No Name Tiriti taldeak; eta, ostean, DJ emanaldia.
Irunberri plazan.

BERGARA Aritzeta abesbatza, Bergarako orfeoia eta orfeoi gaztearen emanaldia
'Kultura kalera' egitasmoaren baitan. Eurria bada, Seminarixoan.
San Martin plazan, 13:00etan.

ARRASATE Sukaldaritza tailerra
Gaztetxoendako ekintza.
Gazte Informazio Bulegoaren ondoan, 17:00etan.

BERGARA 'Bergarako erraldoi taldea' erakusketa: azken egunak
Bihar da bilduma ikusteko azken eguna.
Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE 'Maestrissimo' ikuskizuna
Yllana taldearen azken lana. Sarrerak, 20 eurotan.
Amaia antzokian, 19:00etan.

OÑATI Oñatzen 50. urteurreneko azken ikuskizuna
Dantzariekin batera, Aita Madina txistulari taldeak, udal dandak, Ganbara abesbatzak, Arrasateko

dultzaineroak, Txinparta bertso eskolak eta Lizargarate Trikitizale Elkartek parte hartuko dute.
Zubikoan, 19:30ean.

DOMEKA 26

BERGARA 'Bergara oinez' zortzigarren irteera
Herritar guztiendako.
Agorrosinen, 10:00etan.

OÑATI Sanmigeletako kultura eskaintza
10:30ean, artisau azoka; 10:30ean, artzain txakur txapelketa; 11:00etan, jaioberriei ongietorria; 16:30ean, mus txapelketa; 18:00etan, haurren danborrada; eta 20:00etan, Neomak taldea.
Oñatin.

ARRASATE Omenaldia erreprezio frankista jasan zutenei

Bertsolariak, dantzariak, musika banda eta abeslariak egongo dira ekitaldian, erakundeetako ordezkariekin eta omenduen senideekin.
Jose Maria Arizmendiarieta plazan, 12:00etan.

BERGARA 'Musika tresnak aurkitzeko prest?' ginkana
Kultura kalera egitasmoaren baitan.
Musika eskolan, 12:00etan.

BERGARA Bergarako kultura taldeen azoka
Kultura kalera egitasmoaren baitan.
San Martin plazan, 12:00etan.

BERGARA Alai taldearen kalejira
Kultura kalera egitasmoaren baitan.
Herriko kaleetan, 12:30ean.

ARAMAIO Konpost taldea
Edukiera mugatua.
Isturrieta sagardotegian, 13:00etan.

ARETXABALETA San Migel kulturala: herri kirolak
Iparraldeko jokoak, Karlos Aretxabaletarekin; Hodei Iruetagoiena, Jakes Iruetagoiena eta Lierni Osa harri-jasotzaileekin; eta Xabier Zaldua, Hodei Ezpeleta, Andoni Izeta eta *Bihurri* aizkolariekin. Edukiera mugatua.



MAO

ARRASATE 'Erresistentzia arazo fisikoa da' antzezlan
Kirola egitearen garrantziari buruzko hausnarketa taularatuko du Maite Azpiazu aktoreak. Kirola "neurritz" egin behar izateak dituen onurak begi bistan ipiniko ditu.
Egubakoitzean, Amaia antzokian, 19:00etan

Herriko Plazan, 13:00etan.

ARRASATE 'Sua' maratoia
Gaztetxoendako ekintza.
Gazte Informazio Bulegoaren ondoan, 17:00etan.

BERGARA Koruko Andra Mari Musika Kapera taldea
Membra Jesu Nostrie emanaldia egingo dute, Andoni Sierraren zuzendaritzapean. Bakarlariak izango dira Maria Jesus Ugalde eta Aitor Garitano bergararrak, besteak beste.
Santa Marinan, 19:00etan.

ASTELEHENA 27

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE 'Biztanleriaren zahartzeari buruzko mahai-

ingurua
Olatz Etxabek, Miguel Laspiurrek, Iñaki Peñak eta Izarra Gonzalezek parte hartuko dute, Pertsona Nagusien Astearen baitan. Edukiera mugatua.
Kulturaten, 17:00etan.

ARETXABALETA Lindy hop dantza ikastaroa
Gaurtik aurrera, Jaiki elkartearekin.
Kuartel zaharrean, 18:00etan.

MARTITZENA 28

BERGARA 'COVID-19a' hitzaldia
Miren Basaras mikrobiologoak egingo du berba.
Seminarixoan, 10:00etan.

OÑATI Sanmigeletako kultura eskaintza
17:00etan, Eriz magoaren *Auskalo* ikuskizuna; eta 22:00etan, Esti eta Mikel Markez taldearen emanaldia.
Azoka kultura gunean.

OÑATI Sanmigeletako kultura eskaintza
17:00etan, txosnen irekiera; 18:00etan, *Distopia* elektrotzaranga; 20:00etan, pregoia; 20:30ean, DJ Malandro; eta, gauerdian, karaokea.
Irunberri plazan, 17:00etan.

ELGETA 'Azaleko ipuinak'
Azken saioa, Saroa Bikandirekin. Haur bakoitzarekin heldu bat.
Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE 'Abuelos' pelikula



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Lehen berba

Horra nire lehen berba GOIENA osteko txoko honetatik. Ostetxoan eta zutabe meharrean joanagatik ere, ez pentsa buelta bat edo beste eman ez diodanik. Izan ere, jendeari interesekoa suertatu dakiokkeen zer-kontatua izatea ere ez da kontu erraza.

Saiatuko naiz, nire muga guztiekin, iritzi bat ematen gai bat edo besteren inguruan. Politika, ekonomia, hezkuntza... eta ohiko bizitzako gai arruntak ditut maite. Pertsonak, inguratzen gaituzten pertsonaia anonimo horiek maite ditut. Zenbait kasutan, biografia eder askoak belaunaldien arteko ahanzturan amilduak.

Sinisten dut politikan, hitzetan, baina, batez ere, ekintzetan. Gero eta gehiago nekatzen nau zaratak, bere adiera zabalenean. Nahiago dut askatzeko ditugun mila korapilo txikien inguruan jardun, nekez askatuko dugun korapilo handi horretaz baino. Bestalde, iruditzen zait konfort eremuetatik kanpo gertatu ohi direla gauza interesgarriak. Eta, noski, guztiok ditugu gure konfort eremuak.

Hauxe, ba, nire lehen Azken berba.

GOIENA OKM GIDA

"Lan bila dabilena, sarri, bakarrik sentitzen da"

AMAIA IRIZAR MANKOMUNITATEKO ENPLEGU TEKNIKARIA

Gazteak formakuntzaren garrantziaz eta bailarak eskaintzen duenaz jabetuta dauden arren, lehen aukerak izateko bultzada bat beharrezkoa dela aitortu du Irizarrek

Jone Olabarria ARRASATE

Lan ideala norberaren garapenerako tartea lagatzen duena dela uste du Amaia Irizarrek; hori bai, etxetik gertu badago, askoz hobeto. Unibertsitatera joan edo Lanbide Heziketa ikastearen arteko borroka hautsi eta osagarri bezala ikusi behar direla uste du.

Enplegu teknikari zara, laneratzeko programak antolatzen dituzu, baina zuk zeuk zer formakuntza duzu?

Enpresara zuzendutako Giza Zientzietan lizentziatua naiz eta Proiektuen Kudeaketan ere badut prestakuntza.

Lan bila dabilenarentzat, zer eskaintzen duzue Garapen Agentzian? Enpresen lan-eskaintzak kudeatzen ditugu, eta horretarako lan-poltsa propioa ere badugu. Ekintzailera eta enpresa arloa ere lantzen ditugu. Banakako saioen bidez, lan bilaketarako orientazioa ematen da hainbat herritan, eta prestakuntza eskaintzen da goi-mailako ikasketarik ez dutenentzat.

Zer geratzen da gazteekin? Nolakoa da egoera gurean?

Gazteek badakite prestakuntza garrantzitsua dela lanerako, eta eskualdean eskaintza zabala



Amaia Irizar, Enplegu teknikaria, Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan.

Animaliak eta guzti lan eskean!

"Eraikinen goialdean dauzkagun animaliekin hainbat kontu gertatu zaizkigu; behin, katu bat barrura sartu eta asteburu osoa pasatu zuen eraikinean zehar, nahi zuen moduan pasean. Astelehen goizean, lehenengo langilea eraikinerara sartu zenean, bulegoa hankaz gora eta katua guztiz aztoratuta topatu zuen... Ezin harrapatu ibili ginen eraikin osoan zehar, bere lekura bueltatzeko asmotan!".

daukagu. Askotan, lehen lan-aukerak izateko bultzada bat behar dute. Lan bila dabilena, askotan, bakarrik sentitzen da.

Hori gainditzeko, esaterako, Hazi-lan...

Adibidez, taldean elkar indartzen dute eta dituzten gaitasunak ere potentziatzen dituzte. Horri lan-bilaketarako baliabideak eta tresnak ere jasotzen dituztela gehitzen badiogu, lan bilaketa errazagoa egiten zaie.

Formakuntzari dagokionez, zer gomendatuko zenuke, Lanbide Heziketa ala unibertsitate gradua? Lanbide Heziketa eta unibertsitatea uste baino lotuago egon daitezke; batetik bestera joateko ateak zabalik daude.

Ba al dago oraindik ere Lanbide Heziketarekiko aurreiritzirik?

Oso aukera balizkoa da laneratzeko. Urteak daramatzagu eskualdeko Lanbide Heziketako zentroekin elkarlanean, Lanbide Heziketari balioa ematen eta bere indarguneak ezagutarazten. **Zein da lan ideala, zure ustez? Zer bilatzen du jendeak?**

Lan ideala? Pertsonaren garapena ahalbidetzen duen lana, norbera mugiarazi eta asetzen duena egitea izango litzateke, nire ustez. Eta etxetik gertu bada, askoz hobeto!

Internetek zela eragin du arlo honetan?

Lana bilatzeko orduan ere Internetek aldaketak ekarri ditu: enpresekin kontaktatzeko eta harremantzeko modua, lan-eskaintzak bilatzeko, sare sozialen presentzia eta abar.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida



'GURE SOKAREN GORULARIAK'

GOIENA TELEBISTA, OÑATZEN 50. URTEURRENEKO IKUSKIZUNA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA, OÑATITIK ZUZENEAN
IRAILAREN 25EAN, ZAPATUAN, 19:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

